

200. araua

Euskara Batuaren Ortotipografia (EBO)

EBO (IV). Letra larriak eta letra xeheak

Euskaltzaindiak data eta leku hauetan onartua:

2023ko maiatzaren 26an, Baionan

2023ko azaroaren 25ean, Getarian (Gipuzkoa)

2024ko urtarrilaren 26an, Donostian

2024ko apirilaren 26an, Iruñean

2024ko ekainaren 29an, Gasteizen

2024ko uztailaren 19an, Bilbon

2024ko azaroaren 29an, Bilbon

AURKIBIDEA

Sarrera

Orain arteko saioak

Lanaren atalak

I. ATALA. Letra larriak eta xeheak: ezaugarriak eta erabilera-irizpide orokorrak

1 Letra larri eta xeheen definizioak eta ezaugarri orokorrak eta morfologikoak

2 Letra xeheen eta larrien aldaera hibridoa: letra larri txikiak

3 Letra larriak digrametan

4 Letra larriak eta zeinu diakritikoak

5 Letra larria hitzaren lehen letran eta letra larriak letra guztietan

6 Zenbaki erromatarrak

7 Siglak

8 Kasu-markak osorik letra larriz idatzitako hitzetan

II. ATALA. Letra larrien funtzioak

1 Hitzak testuan duen posizioa adieraztea

1.1 Esaldiaren hasieran

1.1.1 Testuaren edo paragrafoaren hasieran

1.1.2 Puntuaren ondoren

1.1.3 Esaldiaren hasierako letra larriaren salbuespenak

1.2 Galdera- edo harridura-markaren ondoren

1.3 Etenpuntuen ondoren

1.4 Bi puntuen ondoren

1.4.1 Mezu-hasierako kortesiazko hitzen ondorengoak

1.4.2 Enumerazioak

1.4.3 Testu administratibo eta juridikoetako erabilera

1.4.4 Kronologiak, sailkapenak eta gisakoak

1.4.5 Mezua datorrela iragartzeko hitzen ondorengo bi puntuen ondoren

1.4.6 Esaldiaren barneko bi puntuen ondoren

1.5 Aipuetan

1.6 Parentesien edo marren arteko testuaren hasieran

1.7 Olerkietan

2 Izen bereziak eta adierazpen izendatzaileak nabarmentzea

2.1 Berezko izen bereziak eta adierazpen izendatzaileak

2.2 Adierazpen izendatzaileen osagaiak: generikoa eta espezifikoa

2.3 Letra larrien erabilera izen berezietan eta adierazpen izendatzaileetan

2.3.1 Leku-izenak

2.3.1.1 Kontinenteak

2.3.1.2 Estatuak, eskualde administratiboak, probintzia eta departamenduak, hiri eta herriak

2.3.1.3 Barrutiak, auzoak eta etxe-multzoak

2.3.1.4 Eskualdeak

2.3.1.5 Toponimo politiko historikoak

2.3.1.6 Eremu geopolitikoak, geoturistikoak

2.3.1.7 Irudizko leku-izenak, leku-izen literarioak eta erlijioei lotutako leku-izenak

2.3.1.8 Bestelako entitate administratiboak: eskualde militarrek eta erlijiosoa

- 2.3.1.9 Leku-izenen izendapen korreferenteak
- 2.3.1.10 Entitate geografikoak: elementu geografikoak
- 2.3.1.11 Parkeak, lorategiak eta espazio natural babestuak
- 2.3.1.12 Kaleak edo karrikak, plazak eta bestelako bideak, herri eta hirien barnekoak zein hiriartekoak
- 2.3.1.13 Merkataritza-bideak, bide historikoak, altxonbideak
- 2.3.1.14 Monumentuak eta eraikinak
- 2.3.1.15 Puntu kardinalak
- 2.3.1.16 Lurburu edo poloak eta hemisferioak
- 2.3.1.17 Irudizko lerroak
- 2.3.1.18 Astroen izenak: planetak, sateliteak, izarrak, konstelazioak eta era guztietako astro-elkartek
- 2.3.2 Pertsona-izenak
 - 2.3.2.1 Erdal abizen konposatuak
 - 2.3.2.2 Preposizio batez hasten diren erdal abizenak
 - 2.3.2.3 Hipokoristikoak
 - 2.3.2.4 Izengoitiak, izenordeak, izen artistikoak eta kidekoak
 - 2.3.2.5 Pertsona-izenak dituzten zientzia eta teknologiako terminoak
 - 2.3.2.6 Artistaren izena artelana izendatzeko erabiltzea
- 2.3.3 Erlijio, mitologia eta fikzioaren arloetako izaki eta gizakien izen bereziak
 - 2.3.3.1 *Jainko* hitza
 - 2.3.3.2 Jainko-jainkosak, erlijioen arloko izenak eta izen mitologikoak
 - 2.3.3.3 Santuei eta Ama Birjinari deitzeko izenak
 - 2.3.3.4 Izaki mitologiko kolektiboak
 - 2.3.3.5 Fikzio-pertsonaien eta animalia antropomorfoen izenak
 - 2.3.3.6 Familiak, leinuak, dinastiak eta pertsonen izenetatik eratorritako izenak
 - 2.3.3.7 Herritar-izenak eta etnien eta herrien izenak
 - 2.3.3.8 Pertsonen trataerak, tituluak, karguak eta lanbideak
 - a) Izen bereziekin batera erabiltzen direnak
 - b) Izen berezirik gabe baina pertsona jakin bat aipatzeko erabiltzen direnak

c) Modu generikoan, pertsona jakin bat aipatu gabe, erabiltzen direnak

2.3.3.9 Ohorezko titulu eta protokolozko trataerak

2.3.4 Animalia- eta landare-izenak

2.3.4.1 Animalien eta landareen izen zientifikoak

2.3.4.2 Animalia-arrazak

2.3.5 Erakunde, elkarte eta kidekoen izenak

2.3.5.1 Enpresa eta bestelako establezimenduen izenak

2.3.5.2 Erakunde, elkarte eta kidekoen izen laburtuen erabilera: izenaren parte espezifikoa erabiltzea

2.3.5.3 Erakunde, elkarte eta kidekoen izen laburtuen erabilera: izen arruntak erabiltzea

2.3.5.4 Erakunde, elkarte eta kidekoen izenaren orde bestea bat erabiltzea

2.3.5.5 Izendapen bereziak: zenbait instituzio

a) armada

b) administrazioa

c) eliza

d) estatua

e) gobernua

f) parlamentua eta legebiltzarra

g) polizia

2.3.6 Era guztietako erakunde, instituzio eta entitateen barneko kudeaketa-organo, sail, atal, arlo, zerbitzu eta batzordeen izenak

2.3.7 Sinboloak

2.3.8 Fenomeno meteorologikoak

2.3.9 Biologia: animalien eta landareen izen zientifikoak

2.3.10 Denbora-erreferentziak: aldiak geologian eta historian, ospakizunak eta jaiak

2.3.10.1 Aldi geologikoak

2.3.10.2 Historiaren eta historiaurrearen aldiak

2.3.10.3 Erregimenen izenen bidez edo izen arruntez adierazitako aldi historikoak

2.3.10.4 Jaiegunak, ospakizunak eta festak

2.3.10.4.1 Jai erlijioso eta kidekoen izenak

- 2.3.10.4.2 Jaiaren inguruko aldiaren izenak
- 2.3.10.4.3 Aldi erlijioso edo liturgikoak
- 2.3.10.4.4 Jaiaren ondorengo egun seinalatuak
- 2.3.10.4.5 Zerbait ospatzeko ordua, eguna, astea, hilabetea edo urtea: jai zibilak
- 2.3.11 Gertaera historikoak (gerrak, guduak, iraultzak, itunak...)
- 2.3.11.1 Historiako erresumen, inperioen eta kidekoen izenak
- 2.3.12 Hezkuntza-, politika-, zientzia- eta gizarte-jarduerak
- 2.3.12.1 Hezkuntza arautuaren barneko hezkuntza-zikloak, irakasgaiak eta jakintza-alorrak
- 2.3.12.2 Ikastaroak, mintegiak eta tailerrak, arautuak zein ez-arautuak
- 2.3.13 Azokak, kongresuak, erakusketak, jaialdiak eta kideko jendaurreko ikuskizunak
- 2.3.14 Kirol-probak, torneoak, txapelketak eta kideko kirol-ikuskizunak
- 2.3.15 Sariak eta kidekoak
- 2.3.16 Goiburuak, esloganak, leloak
- 2.3.17 Sorkuntza-obren izenburuak
 - 2.3.17.1 Liburuak eta kideko argitalpenak
 - 2.3.17.2 Liburuen eta bestelako dokumentuen atalen izenak eta liburuen barneko artikuluen izenak
 - 2.3.17.3 Liburu sakratuak eta haien atalak
 - 2.3.17.4 Egunkariak, aldizkariak eta bildumak
 - 2.3.17.5 Sorkuntza-obra digitalak
 - 2.3.17.6 Ikus-entzunezko komunikabideen saioak
 - 2.3.17.7 Antzezlanak, filmak, musika-obrak eta era guztietako artelanak
 - 2.3.17.8 Hitzaldiak, mahai-inguruak eta kidekoak
 - 2.3.17.9 Adierazpenak, programak, planak, proiektuak, agiriak eta kidekoak
 - 2.3.17.10 Legeak, dekretuak, dokumentu diplomatikoak eta bestelako arau juridikoak
- 2.3.18 Gauzakiak, produktuak eta markak
 - 2.3.18.1 Izen berezia duten gauzakiak
 - 2.3.18.2 Markak, serieak eta modeloak
 - 2.3.18.3 Markak edo modeloak produktua izendatzea (metonimia)
 - 2.3.18.4 Marka edo produktua izen arrunt bihurtzea (lexikalizazioa)

2.3.18.5 Produktua sortzailearen edo aurkitzailearen izenaren bidez izendatzea

2.3.18.6 Artelana egilearen izenaren bidez izendatzea (metonimia)

2.3.18.7 Janari-edariak eta bestelako produktuak jatorrizko leku-izenaren bidez izendatzea (metonimia)

III. ATALA. Letra xeheen erabilera: non eta noiz ez diren erabiltzen letra larriak

Arau orokorra

1 Siglak edo sinboloak eratzeko erabiltzen diren hitz arruntak

2 Sigletatik eta erakunde-izenetatik eratorritako hitzak

3 Pertsona-izenetatik eratorritako izenak eta adjektiboak

4 Leku-izenetatik eratorritako herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak

5 Leku-izen, pertsona-izen edo abizen batetik eratorritako familia, leinu, dinastia eta jarraitzaileen izenak

6 Elementu eta konposatu kimikoak, mineralak, neurri-unitateak

7 Santu-santen izenetatik eratorritako auzo, herri eta hirietako jaien izenak

8 Trataerak, tituluak, karguak eta lanbideak

9 Herritarrak eta etniak

10 Hizkuntzak

11 Animaliak, landareak eta onddoak, arrazak eta barietateak

12 Erliijoak, otoitzak eta erlijioen arloko kontzeptuak

13 Zientziaren arloko teoria, printzipio eta gisako kontzeptuak

14 Arte-, ideologia- eta pentsamendu-mugimenduak eta estiloak, eskolak eta generoak

15 Asteko egunak, urteko hilabeteak eta urtaroak

16 Sendagaiak

17 Dibisak (dirua)

18 Musika-notak

19 Zergak

20 Koloreak

21 Zodiakoa: zeinuak eta aldi horietan jaiotako pertsonak

22 Dantzak

IV. ATALA. Letra larri eta xeheen gaikako aurkibidea

Letra larriak eta letra xeheak

Sarrera

Egia da letra larri eta xeheen arloko konbentzioak ez direla, lehen begi-ukaldian bederen, hil ala biziko hizkuntza-afarak. Halaber da egia, ordea, ezinbestean behar direla arlo horretan ere arauak edo konbentzioak, baldin eta idazkera-sistema estandar eta koherente bat ezarriko bada. Erreferentziatzko irizpideak behar dira testuen homogeneotasuna lortuko bada.

Letra larria noiz erabili behar den zehazteak gai tolesgabea badirudi ere, errealitateak behin eta berriro erakusten du gai konplexua dela eta ez dela beti erraza arauak eta irizpideak behar bezain zehatz zedarritzea.

Horretaz gainera, alor horretan erabiltzen diren irizpideak ez dira betiereko, eta eboluzioaren mende daude, hein batean, hizkuntzak oro etengabeko eboluzioan dauden gisa berean¹. Eta badira erabilera sektorialak ere; alegia, letra larriak erabiltzeko ohiturak eta konbentzioak ez dira berdin-berdinak arlo guztietan: erabilera administratiboa dago batetik, egunkari-aldizkarietako erabilera bestetik, argitaletxeena bestetik... Nolanahi ere, aldeak oso txikiak dira, zorionez.

Eta bada beste faktore bat gaiaren garapena bihurrikatzen duena gurean. Estandarizazio-maila handiko bi hizkuntza ahaltsu ditugu, hala inguruan nola gure artean, eta, zoritxarrez, letra larrien erabilera ez da berdina bi hizkuntza horietan. Adibidez, herrien eta herritarren izenak letra larriz hasita idazten dira frantsesez eta letra xehez, berriz, gaztelaniaz: *les Américains* / *los americanos*. Horrek, bidenabar, garbi erakusten du letra larrien erabilera-irizpideak, neurri handi batean, konbentzionalismoak direla, tradizioz ezarriak direla askotan eta ez direla logika eztabaidaekin baten emaitza.

¹ Eboluzioaren mende eta, zenbaitetan, errotiko aldaketan mende. Adibidez, danieraz letra larriz hasita idazten ziren izen guztiak, arruntak zein bereziak, alemanez bezala, baina Bigarren Mundu Gerran Alemaniak Danimarka okupatu zuen, eta, gerra amaituta, danieraren ortografiaren 1948ko erreformak ezabatu egin zuen izen guztiak letra larriz hasita idazteko araua.

Hizkuntzen arteko irizpide-desberdintasunak zailtasun gehigarri bat dakar euskararako irizpideak ezartzeko. Bi auzo-erदारak batera dabiltzan kasuetan, errazagoa da hautua, gure hizkuntzaren tradizioaren kontra ez badago behintzat: bide berera jotzea. Bi auzo-erदारak bat ez datozenean, baina, kontuan izanik dagoeneko ez dagoela euskaldun heldu alfabetatu elebakarrik eta euskaldun heldu guztiok gutxienez elebidunak garela, neke erantsi bat izango da euskaldunarentzat berak ezagutzen duen erdaran ez bezala erabili beharra, zenbaitetan, letra larriak edo xeheak euskaraz.

Nolanahi ere den, ez da euskaldunen arazo eskusiboa, elebidun (eta hirueledun) gehienena baizik, letra larrien erabilera ez baitago arau-sail unibertsal batek gobernatua. Inguruko hizkuntzetara begiratzea besterik ez dago ohartzeko arau orokor batzuk badirela baina beste arau asko aldatu egiten direla hizkuntzatik hizkuntzara. Frantsesez letra larri gutxiago erabiltzen dira, oro har, gaztelaniaz baino; ingelesez, berriz, nabarmen gehiago baliatzen dira gaztelaniaz baino, eta, ondorioz, frantsesez baino askoz ere gehiago. Eta alemanarekin erkatzerik ez dago, alemanez letra larriz hasita idazten baitira izen guztiak, arruntak zein bereziak izan.

Orain arteko saioak

Letra larrien erabilera arautzeko saio bat egin zuen Euskaltzaindiak 1990ean. Honela dio 1990eko otsailaren 23ko batzar-agiriak:

Maiuskulen erabilpena

Eskuarteko zenbait idazlan parekatuz maiuskulen erabilpenean gaur egun ikusten diren desberdintasunak bateratu beharra, azaldu du euskaltzainburuak. Erakunde eta elkargo izenak, pertsona izen eta karguak, hilabete nahiz asteko egunen aipamena, noiz idatzi behar diren maiuskulekin eta noiz ez. Ohitura batzuk nagusitu eta nazioarteko jokabide eta usadioak ezagutu beharra ikusten da. Eztabaidan sartu aurretik bakoitzak bere iritzia eta han-hemengo lekukotasunak Bilbora bidaltzeko epea ezarri da. J. A. Arana Martija eta J. L. Lizundia arduratuko dira oharrak jaso eta sailkatu ondoren Euskaltzaindiari aurkezteaz. Iritziak ikusita aztertuko da arazoa.

1990ean bizpahiru batzarretan eztabaidatu ondoren, *Letra larrien erabilera euskaraz, Euskaltzaindiaren gomendioak* izeneko gomendioa onartu zuen Akademiak 1990eko

azaroaren 30ean. Hastapen bat izan zen, lehen urrats bat, baina aski lan mugatua da azalpenez zein adibidez (bi orrialde eta erdiko hedadura du). Puntu orokor batzuk jasotzen ditu, baina ñabarduretan sartu gabe. Berehala ikusi zen gomendio hori baino zerbait landuagoa behar zela. Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean, 1994an, gomendio horri kritika ongi funtsatua egin zion Antton Elozegi Aldasorok, eta hura osatzeko eta zuzentzeko proposamen batzuk egin zituen (“Euskaltzaindiaren gomendio-arauen idazkeraz: letra larriei buruzkoaren kasua”). Euskaltzaindiak emandako beste gomendio batzuk arau bihurtu ziren XIII. Biltzarraren ondoren, baina letra larrien erabilerari buruzkoak ez zuen aurrera egin.

Ez du geroztik Euskaltzaindiak letra lerrri eta xeheen gaia modu orokorrean landu, baina letra larrien erabilerari buruzko zenbait ohar eman ditu han-hemenka onomastikako arauetan. Eta *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko sarreretan, behar denean, badira erabilera-oharrak ohartarazten dutenak hitz bat adiera jakin batean letra larriz hasita idaztekoa dela.

Beste ekimen batzuk ere izan dira Euskaltzainditik kanpo. Adibidez, administrazioan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntzarako Zuzendaritza Nagusiak *Letra larri eta xeheak* lana ondu zuen 1991n, eta berritu eta zehaztu zuen geroago. IVAPek ere, bere estilo-liburuan (*IVAPeko estilo-liburua*, 2005), letra larrien eta xeheen erabilerari buruzko atal labur bat du. Eusko Legebiltzarreko Itzulpen Zerbitzuak ere baditu letra larri eta xeheetarako arauak barne-erabilerarako. Hedabideen arloan, aipatzekoa da *Euskaldunon Egunkaria*, 1992an bere estilo-liburuan zenbait arau eman baitzituen letra larriak egunkarian nola erabili zehazteko (1992ko liburu haren jarraipena da —zabaldua, osatua, eguneratua eta eraberritua— *Berria* egunkariaren oraingo estilo-liburua). Bestalde, Joxe Ramon Zubimendik eta Pello Esnalek ere letra larrien erabilerari buruzko ohar batzuk egin zituzten *Idazkera-liburuan*, 1993an.

Orain arteko lanik osatuenak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Ikasmaterialetako Hizkuntzaren Egokitasun-irizpideak Finkatzeko Aholku Batzordearen hiru liburutan ageri dira: *Ortotipografia*², *Onomastika*³ eta *Letra larriak erabiltzeko irizpideak*⁴. Lan horiek

² Joxe Ramon Zubimendi, 2004.

³ Alfontso Mujika, Ane Goenaga, Andres Alberdi, 2005.

⁴ Alfontso Mujika, 2008.

argitaratu aurretik, Euskaltzaindiari bidali zitzaizkion, eta Akademiak, aztertu eta ohar batzuk egin ondoren, egoki eta taxuzko iritzi zien, eta, oniritzia adieraztearekin batean, jakinarazi zuen oniritzi horrek ez zuela baldintzatzen Akademiak berak aurrerantzean gai horri buruz bestelako erabakiak hartzea.

Lan horiek guztiek bide nagusia erakusten dute, zehatzago zedarritu beharrekoa zenbait puntutan eta zenbait ñabardura, eguneratzeren bat eta hobekuntza batzuk behar dituen baina baliagarria den neurri handi batean. Ez da, zorionez, ezerezetik eraiki beharreko bidea.

Lanaren atalak

Lehen atalean, letra xehe eta larriei buruzko jakingarri orokor batzuk ematen dira, aski labur.

Bigarrenean, letra larrien erabileraren azterketa sistematikoa egiten da, letra larriaren bi funtzio nagusiak kontuan hartuta: posizioa adierazteko funtzioa edo funtzio demarkatiboa eta bereizte-funtzioa edo funtzio konnotatiboa; azken funtzio hori da atalaren parte nagusia.

Hirugarren atalean, letra xeheen berezko erabilera-esparruak aletzen dira, letra larriak noiz ez diren erabili behar zehaztearren.

Azken atala adibidetegi bat da, aurkibide gisa antolatua, zalantza eragin dezaketen kasu puntualez osatua, aurreko ataletan zehaztu diren irizpideen aplikazioa —eta, zenbaitetan, salbuespenak— erakusten duena, erabiltzaileek kontsulta zehatzak eta lasterrak egin ditzaten irizpideen ataletan nabigatzen ibili beharrik gabe.

I. ATALA

Letra larriak eta xeheak: ezaugarriak eta erabilera-irizpide orokorrak

Ez da komeni beharrik gabe erabiltzea letra larriak

Hori da Euskaltzaindiak 1990ean letra larrien erabilerari buruz emandako gomendioen lehen esaldia. Hainbat urte igaro dira Akademiak hori esan zuenetik, baina esaldi hark ez du indarririk galdu. Hau da, letra xehea da testuetan lehenespenez erabili beharreko letra-moldea. Letra larria salbuespena da, nolabait esateko. Beraz:

- Letra xehea da testuak idazteko letra-molde nagusia.
- Letra larriak kasu jakinetan baino ez dira erabiltzen, eta kasu berezi horiek ahal den gehiena zehaztea da lan honen helburua.
- Irizpideetan letra larria erabili behar dela zehaztuta ez dagoen kasuetan, ulertu behar da letra xehea dagokiola.
- Zalantzako kasuetan, hobe da letra xeheen alde egitea.

1 Letra larri eta xeheen definizioak eta ezaugarri orokorrak eta morfologikoak

Alfabeto latinoak erabiltzen duten hizkuntzetan —euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana, alemana, turkiera eta beste asko—, alfabetoko letrek bi taxu dituzte aukeran, xehea edo minuskula eta larria edo maiuskula. Bi letra-sail izatea ez da alfabeto guztien ezaugarria. Alfabeto latinoaz gainera, alfabeto zirilikoak, alfabeto grekoak, armenieraren alfabetoak eta beste gutxi batzuek baliatzen dute letra-molde bikoitza. Beste alfabeto batzuetan, berriz, molde bakarra dago. Adibidez, arabiar alfabetoak (arabierak, persierak, urduak eta beste zenbait hizkuntzak baliatzen dute), hebrear alfabetoak, Indiako hizkuntza nagusi batzuetako alfabetoek eta beste batzuek letra-molde bakarra dute. Eta gainerako idazketa-sistemek ere ez (txinera eta japoniera idazteko sistemek, adibidez).

Alfabeto latinoak ere molde bakarra zuen hasieran, Erromatar Inperioaren garaian: gaur egun letra larriak direnak. Haren eboluzio gisa sortu ziren, pixkanaka, letra xeheak, eta XV. mendean nagusitu ziren, inprentarekin.

Honela definitzen ditu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* letra larria eta letra xehea, bata bestean oinarrituta:

letra larri iz. Letra xehea baino handiagoa den letra, era bereziko, batez ere perpausen eta izen berezien hasieran erabiltzen dena.

letra xehe iz. Eskuarki erabiltzen den tamaina eta formako letra, larria ez dena.

Xeheak eta larriak bi letra-sail paraleloak dira, eta sail bateko letra bakoitzak bere baliokidea du beste sailean. Alegia, letra beraren bi aldaera baino ez dira: izen bera eta ahoskera bera dute, eta era berean ordenatzen dira alfabetoaren hurrenkeran.

Letra xehearen eta larriaren arteko aldea oso txikia da letra batzuen kasuan, letraren tamaina baino ez. Adibidez: **k/K, s/S, v/V**. Beste letra batzuetan, baina, eitea oso desberdina da. Adibidez: **a/A, q/Q, r/R**. Dena dela, letra xeheen eta larrien arteko desberdintasun tipografiko nagusia ez da tamaina, baizik eta altuera-uniformetasuna: letra xehe guztiek ez dute altuera bera. Alderatu, adibidez, letra hauen altuerak:

a eta b | c eta y | f eta n

Letra larriek, berriz, altuera bera dute letra-tipo gehienetan⁵. Alderatu, adibidez, aurreko adibideko letren altuerak letra larriak erabiliz:

A eta B | C eta Y | F eta N

Hauek dira euskal alfabetoaren letren bi bertsiok (goian xeheak eta behean larriak):

a b c d e f g h i j k l m n ñ o p q r s t u v w x y z
A B C D E F G H I J K L M N Ñ O P Q R S T U V W X Y Z

⁵ Salbuespenak **Ñ** eta **Q** letrak dira, haien tiletak goiko eta beheko marrak, hurrenez hurren, gainditzen baitituzte letra-tipo askotan.

Letra xeheetako bik, **i** letrak eta **j** letrak, puntu bat dute goialdean, baina letra xehe horiei dagozkien letra larriek, **I** letra eta **J** letrak, ez dute puntu hori⁶.

2 Letra xeheen eta larrien aldaera hibridoa: letra larri txikiak

Letra xeheen aldaera bat da: letra larriak bezalakoak dira formaz, baina ez tamainaz. Letra larriak baino txikiagoak dira, baina letra xeheagoak baino handixeagoak.

letra xeheak / LETRA LARRI TXIKIAK / LETRA LARRIAK

Testuko hitzak nabarmentzeko erabiltzen dira letra larri txikiak, estilo-baliabide gisa. Letra larrien itxura izan arren, letra xehearen aldaeratzat hartzen dira. Horregatik, letra larri xehez idatzita dagoen testu baten atal batean hitzen bati dena delakoagatik hasieran letra larria badagokio, jarri egin behar zaio. Dena letra larriz idatzita dagoen testu batean, berriz, ez dira desberdintzen. Adibidez:

LETRA LARRI XEHEAK: **LAPURDI ETA GIPUZKOA ARTEAN**

LETRA LARRIAK: **LAPURDI ETA GIPUZKOA ARTEAN**

3 Letra larriak digrametan

Fonema bakar bat adierazten duen letra-bikoteak dira digramak. Adibidez, **ll**, **ts**, **tx**, **tz**, **ch**, **sh**, **kh**... Digrama bat hitz baten hasieran gertatzen denean, hitz hori hasierako letra larriz idatzi behar bada, digramaren lehen letra bakarrik idazten da larriz (**Ll**, **Ts**, **Tx**, **Tz**, **Ch**, **Sh**, **Kh**...)⁷. Adibidez:

Txomin, **Txulapain**, **Txile**, **Chartres**, **Cherbourg**, **Khartum**, **Lleida**, **Shetland**

Tzarkeria egiteko baizik ez zen haren alaba zaharrena.

Tsunami handi batek astindu zuen lurraldea.

⁶ Turkieraren alfabetoa da salbuespena (baita hartan oinarritzen diren azerbaijaneraren eta kazakheraren alfabetoak ere). Bi *i* letra ditu, hala xehez nola larriz, puntuduna eta punturik gabekoa (**i**/**i** eta **I**/**I**), fonema desberdinak adierazten dituztenak.

⁷ Salbuespena nederlanderazko **IJ**/**ij** digrama da, bi letrak larriz idazten baitira. Adibidez, **IJsland**.

4 Letra larriak eta zeinu diakritikoak

Letra larria eta letra xehea grafema beraren bi aldaera dira. Horregatik, hitzak zeinu diakritikoren bat badu, letra xehean zein larrian jarri behar da zeinu hori⁸. Adibidez:

Ûrrüstoi, Cintruénigo, Åland, Ávila, Épinal, Évry, Öland

ÜNDÜREINE, MÉLIDA, VÉZÈRE, ANSÓ, CHAMBÉRY, CÔTES-D'ARMOR

5 Letra larria hitzaren lehen letran eta letra larriak letra guztietan





Testuak idazteko, letra xeheak erabiltzen dira, eta letra larriz hasita idazten dira hitz batzuk, dauden tokiagatik edo duten izaeragatik, arauk eta irizpideek zehazten duten kasuetan. Letra askoz osatutako testuetan, errazagoa da irakurlearentzat letra xeheak irakurtzea letra larriak baino. Letra larrien segida luzeak nekagarriak gertatzen dira, toki handiagoa hartzen dute eta polikiago irakurtzen dira. Adibidez:

PELLO ZABALA IDAZLE ETA OHOREZKO EUSKALTZAIN GIPUZKOARRAREN HILBERRI-TXOSTENA PAULO AGIRREBALTZATEGI OHOREZKO EUSKALTZAINAK IRAKURRI DU. PELLO ZABALA OSO EZAGUNA ZEN EUSKAL HERRI OSOAN. MUSIKAZALEA, IRRATI ESATARIA ETA METEOROLOGOA, GIZON APAL BEZAIN ADEITSUA IZAN ZEN. EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN MESEDETAN EGINIKO LANAK KONTUAN IZANIK, EUSKALTZAINDIK OHOREZKO EUSKALTZAIN IZENDATU ZUEN FRAIDE FRANTZISKOTARRA 2018AN.

Pello Zabala idazle eta ohorezko euskaltzain gipuzkoarraren hilberri-txostena Paulo Agirrebaltzategi ohorezko euskaltzainak irakurri du. Pello Zabala oso ezaguna zen Euskal Herri osoan. Musikazalea, irrati esataria eta meteorologoa, gizon apal bezain adeitsua izan zen. Euskararen eta euskal kulturaren mesedetan eginiko lanak kontuan izanik, Euskaltzaindik ohorezko euskaltzain izendatu zuen fraide frantziskotarra 2018an.

⁸ Lehengo idazmakinek ez zuten aukera ematen zeinu diakritikoa letra larrian ondo jartzeko, letra xeheari dagokion tokian jartzen baitzuten, altuera berean; horren ondorioz, zeinuak zapaldu egiten zuen letra larria, letraren goialdean gelditu beharrean. Gaur egun, ez dago horrelako arazorik.

Testu laburretan, berriz, letra larria ikusgarriago gertatzen da, nabarmenago. Horregatik, testu laburrak osorik letra larriz idazten dira batzuetan, baliagarriak direlako irakurlearen arreta erakartzeko; baita arrazoi estetikoengatik ere, diseinu-baliabide gisa. Hala, ohikoa da, nahitaezkoa ez bada ere, liburuetakoa eta dokumentuetako azaletan (edo lehen orrian, dokumentu elektronikoetan) izenburuak osorik letra larriz idaztea, baita egunkari eta aldizkarietako mantxetetan ere, estilo-aukera bat baino ez bada ere. Adibidez:



Kartel iragarleetan eta informazio-paneletan, arrazoi beragatik, larriz idazten dira, batzuetan, testu laburrak edo testuen hitz nagusiak. Adibidez:





XV "EUSKADIKO MUSIKARI
GAZTEEN"
LEHIAKETA



**DAGOENKO KONTSULTA
DITZAKEZUE BEHIN-BETIKO
ORDUTEGIAK**

Beste hainbeste gertatzen da pankartetan eta idazkunetan. Adibidez:



Adierazgarritasuna emateko baliabide gisa ere erabil daiteke, hala literaturan nola bestelako testuetan. Adibidez, norbait garrasika ari dela adierazteko:

Isildu ZAITEZTEEE!

Edo hitz bat nabarmentzeko:

OSO GARRANTZITSUA da bilerara GARAIZ iristea.

Azkenik, testuaren barnean idazki baten atalen izenburuak, edo dokumentu batean aipatzen diren parte-hartzaileak, testu juridikoetan adibidez, osorik letra larriz erabiltzen dira batzuetan, nabarmentzearren: ESKATZAILEA, ADIERAZTEN DU, ZIURTATZEN DUT, JAKINARAZPENA...

6 Zenbaki erromatarrak

Erromatarrek zenbakizko balio bat esleitu zizkieten letra batzuei, zenbatzeko sistema bat ezartzeko. Hala sortu ziren zenbaki erromatarrak. Alfabeto latinoak, hasieran, letra larriak besterik ez zuen. Horregatik, zenbaki erromatarrak idazteko, letra larriak erabiltzen dira.

Zenbaki erromatarrak letra larriz idazten dira beti adierazpen izendatzaile bati edo izen berezi bati badagozkio. Adibidez:

II. Mundu Gerra, Frantzisko I.a, Retegi II.a, V. Olinpiar Jokoak

Baliabide estilistiko gisa, letra larri xeheak ere erabiltzen dira batzuetan mendeak adierazteko edo liburuen eta bestelako obren barneko atalak adierazteko (kapituluak, liburukiak...), bai eta obra baten hasierako atalak zenbakitzeko ere (aurkibidea, hitzaurrea...), baina berdin erabil daitezke letra larriak. Adibidez:

III. kapitulua edo III. kapitulua

XXI. mendea edo XXI. mendea

Azkenik, zenbaki erromatarrak letra xehez idatzita erabiltzen dira, batzuetan, zerrendetan edo liburuetakoko atalak zenbakitzeko, ingelesaren eraginez beharbada. Estilo-aukera bat da, baina ez da beharrezkoa. Adibidez:

iii. kapitulua

xvi. taula

7 Siglak

Siglak, oro har, osorik letra larriz idazten dira. Adibidez, GKE, HABE, EIZIE. Dena dela, silabaka irakurtzen diren izendapen berezien sigletan (akronimoetan), baldin eta bost letra edo gehiago badituzte, aukerakoa da lehen letra bakarrik larriz jartzea edo denak larriz jartzea. Adibidez, UNICEF edo Unicef, IRALE edo Irale, EIZIE edo Eizie. Lexikalizatuta dauden siglak, berriz, erabat letra xehez idatzi ohi dira: laser, ihes, led.

8 Kasu-markak osorik letra larriz idatzitako hitzetan

Zenbaitetan, estilo-erabaki gisa edo arrazoi berezi batengatik hala erabaki edo hitzartu delako, hitz bat edo hitz-kate jakin bat edo batzuk osorik letra larriz idazten dira testu arruntetan. Adibidez, hitzarmenetan BEZEROA, BALDINTZAK, KONTRATUA, ALDERDIAK, ZERBITZUA, AURREKONTUA... hitzak letra larriz idazten dira batzuetan, edo enpresa edo erakunde batzuek osorik letra larriz idazten dute beti beren izena beren idazkietan: EROSKI, TECNALIA...

Hitz horiek izen bereziak direnean kasu-markaren bat hartzen badute, kasu-marka ez da letra larriz idatzi ohi, kasu-marka ez baita nabarmendu nahi den izenaren parte. Adibidez:

Egoera honetan, EROSKIIn geure onena ematen ari gara.

Aurreztu gehiago EROSKIren doako kreditu-txartel berriarekin.

Aurrerantzean, CAIXABANKek kudeaketa diskrezional eta banakatuaren zerbitzua eskainiko du.

Orain, TECNALIAren aerotaxiak etapa berri bati ekin dio.

Munduaren beste ikuspegi bat duzu? Egin bat TECNALIArekin!

Osorik idaztekoa den hitza erre letraz amaitzen denean (TEKNIKER, GOIZPER, SENER, BANKINTER, CARREFOUR, PETRONOR, MOVISTAR, DAIMLER, UNILEVER...), errea ez da bikoizten, eta kontuan izan behar da amaierako erre hori beti gogor gisa ahoskatzen dela, sigletan gertatzen den bezala. Adibideak:

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK eta SENEREK akordioa lortu dute teknologiaren garapenean eta talentuaren kudeaketan lanean aritzeko.

MOVISTAREK zerbitzu berri bat jarriko du bezeroaren esku.

Litekeena da baldintza hauek aurrez adierazi gabe aldatzea, GOIZPEREK beretzat gordetzen baitu aldatzeko baimena.

BANKINTERen albisteak

OHARRAK

- Letra guztiak larriz idatzita dauden testu baten edo esaldi baten barnean erre letraz amaitzen den izen bereziren bat dagoenean, amaierako erre letra bikoiztu egin ohi da kasu-marka hartzean. Adibidez:

PETRONORREN JAKINARAZPENA

JANARI-BILKETA CARREFOURREN

SENERREKO LEHENDAKARIAREN AGURRA

- Kasu-marka zuzenean lotzea ohikoena bada ere, marratxoa erabil daiteke izenaren forma argi gera dadin nahi bada:

URREZKO BIKAIN ZIURTAGIRIA JASO DU GOIZPERREK

EDO: URREZKO BIKAIN ZIURTAGIRIA JASO DU GOIZPER-EK.

PASTEURREN ESPERIMENTUAK

EDO: PASTEUR-EN ESPERIMENTUAK

KEPLERREN LEGEAK

EDO: KEPLER-EN LEGEAK

- Euskal leku- eta pertsona-izen bereziekin, dena dela, ez da marratxorik behar:

BAZTAN KANTUZ AMAIURREN (eta ez AMAIUR-EN)

1976AN KORTABARRIAK ETA IRIBARREK IKURRINA ATERA ZUTEN (eta ez IRIBAR-EK)

- Letra guztiak larriz idatzita dauden testu baten edo esaldi baten barnean erre letraz amaitzen diren izen arruntekin ere aukerakoa da marratxoa, euskal hitza ez bada:

BANNERRAREN DISEINUA edo BANNER-AREN DISEINUA

PLOTTERRAREN ERABILERA edo PLOTTER-AREN ERABILERA

- Letra guztiak larriz idatzita dauden testu baten edo esaldi baten barnean siglak daudenean, marratxoa erabiltzen da:

BEZ-AREN IGOERA

CIA-REN EZKUTUKO OPERAZIOAK

- Testuaren barnean osorik letra larriz idazten diren hitzak lexiko arrunteko hitzak direnean, kasu-marka ere letra larriz idatzi ohi da; hau da, ez da beharrezkoa kasu-marka letra xehez jartzea:

Kutxabankek BEZEROAREKIN izandako komunikazio telefoniko eta elektronikoak grabatu eta erregistratuko ditu.

Hortaz, EROSLEA kontratuan adostutako prezioa ordaindutakoan bihurtuko da etxebizitzaren jabe.

Hala ez bada, EROSLEAK seinalea galduko du SALTZAILEAREN mesedean.

Kontratu honek arautzen du CAIXABANKek BEZEROAREN ondareaz egiten duen kudeaketa diskrezional eta banakatua.

II. ATALA

Letra larrien funtzioak

Letra larriak bi funtzio nagusi ditu: demarkatiboa, hau da, testuan hitzak duen posizioa adieraztea, eta konnotatiboa, hau da, izen bereziak eta adierazpen izendatzaileak nabarmentzea.

Aurkibidean ikus daitekeen moduan, bi funtzio horiek bereizita deskribatu dira lan honetan. Lehen atala funtzio demarkatiboari dagokio, eta ez da bereziki korapilatsua; izan ere, alderdi horretan, erabilera aski egonkorra, ezaguna eta errespetatua da, eta gure inguruko erdarena ere berdintsua da, zorionez. Funtzio konnotatiboan, aldiz, letra larrien erabilera eztabaida- eta zalantza-iturri izaten da batzuetan, zeren eta ez baita beti erraza izen berezia eta izen arrunta behar bezain argi bereiztea.

1 Hitzak testuan duen posizioa adieraztea

Puntuazioak agindutako letra larria da; hau da, arau ortografikoa da. Letra larria letra xehea baino nabarmenagoa denez, ikusizko marka baliagarria da testuen barne-egitura orokorrari antzemateko.

1.1 Esaldiaren hasieran

1.1.1 Testuaren edo paragrafoaren hasieran

Testuko lehen letra larriz idazten da, berdin dio hitz hori zer den: izena, aditza, zenbatzailea, juntagailua...

Agur t'erdi:

Lagunok, ongi etorri gurera!

Has gaitezen, bada, lehenbailehen.

Hemen bildu gara gaur...

1.1.2 Puntuaren ondoren

Testuetako kasurik ugariena da. Gehienetan, aurreko esaldiaren amaierako puntuak adierazten du esaldia amaitu dela eta, beraz, esaldi baten hasiera datorrela. Berdin dio esaldia paragrafo berean edo hurrengo paragrafoan hastekoa den. Adibidez:

Arte eta zientzietan, Erromaren egiazko oinordekoa Frantzia da, noski. Ez da Italia. Ideia hori oso kuttuna dute frantsesek.

Ez da nahasi behar esaldi-amaierako puntua laburduren puntuarekin eta ordinalen puntuarekin, puntu horiek ez baitute esaldiaren amaiera adierazten. Adibidez:

Baserritik bizi ziren; behiak, idiak, ardiak, untxiak, etab. izaten zituzten etxean.

Ikus I. liburukiko 224. mapan Makeako datuak.

1.1.3 Esaldiaren hasierako letra larriaren salbuespenak

Enuntziatuaren hasierako elementua digituz idatzitako zenbaki bat baldin bada, zenbakiaren ondoren dagoen hitza letra xehez hasita idazten da, ez baitago esaldiaren hasieran. Adibidez:

1977ko urriaren 14an gertatu zen.

90 urte bete zituen egunean, ez zen etxetik irten egun osoan.

600 000 eurotik gorako kaltea eragin zuten euriteek.

Gune elektronikoen sarbide-protokoloen siglak letra xehez hasita idazten dira beti (http eta https) eta Interneteko domeinu-izenen aurretik jartzen den www sigla ere bai. Esaldi baten hasieran gertatzen badira ere, letra xehez idatzi behar dira. Adibidez:

www.euskaltzaindia.eus webgunea maiz-maiz berritzen da.

<https://www.berria.eus/> izango da, ziur asko, euskara hutseko webgunerik bisitatuena.

<https://zthiztegia.elhuyar.eus/> webgunean aurkituko duzu definizioa.

Ez da nahastu behar webgunearen izena beraren URLarekin, ez eta beraren domeinu-izenarekin ere. Adibidez, *Sustatu* blogaren domeinu-izena *sustatu.eus* da, eta haren URLa *https://sustatu.eus* da. Dena dela, webgunearen domeinua erabiltzen da sarritan webgunea izendatzeko, hau da, webgunearen domeinuak ematen dio izena

webguneari. Orduan, webgunea izendatzen duenean, letra larriz hasita idazten da. Adibidez:

Euskarazko hedabide digitalak dira, besteak beste, *Erran.eus* eta *Zientzia.eus*.

1.2 Galdera- edo harridura-markaren ondoren

Galdera- eta harridura-marken ondoren beste puntuazio-markarik ez badago (koma bat, puntu eta koma bat, bi puntuak edo etenpuntuak), ulertzen da marka horiek esaldiaren amaiera adierazten dutela eta haien ondoren hasten dela hurrengo esaldia eta, ondorioz, letra larriz hasita idatzi behar dela haien ondoko lehen hitza. Adibideak:

Hori duk hori sakea! Nondik atera zaio?

Eskerrak horri! Bestela, ez genuen lortuko.

Zer du diferentea? Ez al da beste edozein bezalako liburu bat, prezio jakin bat ordainduta edo liburutegian eskatuta eskuratu duzuna?

Nola esan dezake hori? Ezin dut ulertu.

Bestela, gerta daiteke galdera- edo harridura-markak ez izatea esaldiaren amaiera. Orduan, puntuazio-markaren bat izan ohi du ondoren, eta haren ondoko lehen hitza ez da letra larriz hasita idaztekoa izango. Adibidez:

Eutsi, Ane, eutsi!, esaten diot neure buruari goizero-goizero etxetik ateratzean.

O, lili xarmanta!, orok maite zaitugu.

Ongi lo egin al duzu?, galdetu ohi diot amari sukaldean sartzean.

Antzera gertatzen da esaldia galdera-sorta edo harridura-sorta batez osatuta dagoenean. Komaz bereizi ohi dira bata bestetik, eta ez dira letra larriz hasita idazten. Adibideak:

Honelako galderei buruz arituko gara: non bizi da?, zarautztarra al da?, noiz hasi da tabernan lanean?, zergatik etorri da berandu?

Zein zaldi, geldirik dagoena ala ibiltzen ari dena?, zein ontzi, kostan dagoena ala itsasoan dabilena?, zein ur, geldia ala lasterra?

Etxeko txoko bakoitzari usain berezia emateko aire(-)gozagarri berriak!, zein da zure gustukoena?, etorri eta probatu!

1.3 Etenpuntuen ondoren

Etenpuntuek esaldiaren amaiera adierazten badute, letra larriz hasita idazten da haien ondoren datorren hitza. Adibideak:

Horrela jokatzuz gero, ez dago irabazterik... Nolanahi ere, liga hasi besterik ez da egin.

Eskerrik asko, eskerrik asko... Zuek bezala ez dakigu, baina amaren bularretik haziak gaude behintzat.

Honela: baba-lore, historia fidagarririk gabeko, alfer, axolagabe, optimista... Beude berean.

Beste batzuetan, baina, etenpuntuek esaldia une batez eten bai baina ez diote esaldiari amaiera ematen. Halako kasuetan, haien ondoren datorren hitza ez da letra larriz hasita idazten. Adibideak:

Gizona nahiko zera zen... berezia.

Opari bikaina da... ezer gutxi behar duenarentzat.

Hil nahi, ezin hil... gauaren azkengabea!

Delitua da hori ere... gezur biribilak botatzea.

Beste batzuetan *haizu da, zilegi da, debeku da, erraza da...* predikatu inperzonalak ere aurki dezakegu, kontrolik ezartzen ez duena.

Ohikoa ez bada ere, gerta daiteke etenpuntuek esaldiaren hasieran gertatzea, hala nola literaturan. Kasu horretan, esaldiko lehen hitza (edo are paragrafoko lehen hitza) ez litzateke letra larriz hasiko. Adibidez:

“... zortzi, bederatzi eta hamar. Bukatu da denbora”. Hori esanda, tiro egin zion.

1.4 Bi puntuen ondoren

1.4.1 Mezu-hasierako kortesiazko hitzen ondorengoa

Zenbaitetan, bi puntuen ondoren datorrena esanahi osoa duen eta bi puntuen aurretik dagoena irakurri gabe osorik eta arazorik gabe ulertzen den esaldi bat da. Kasu horietan, bi puntuen ondoren datorren hitza letra larriz hasita idazten da. Adibidez, gutunen eta posta-mezu elektronikoen hasieran jarri ohi den ohiko kortesiazko agurraren, diosalen

edo deikien ondoren bi puntu jartzen direnean, testuak hurrengo lerroan jarraitzen du letra larriz hasita. Adibideak:

Andre hori:

Mezu hau idazten dizut gogorarazteko...

Kaixo, Idoia:

Etxera iristen haizenean, itxi nire gelako leihoa, mesedez, euria egin behar din eta.

Agur, harpidedun maitea:

Berriro ere, zuregana jo beharrean gaude laguntza eske.

1.4.2 Enumerazioak

Enumerazioa osotasuna duen zerbaiten atalen ondoz ondoko adierazpena da, eta horizontala izan daiteke, atalak bata bestearen ondoren baina lerro berean adierazten direnean, edo bertikala izan daiteke, atal batetik bestera lerro-jauzia dagoenean, taula edo lauki moduan. Zerrenda ere esaten zaio, batez ere bertikala denean. Enumerazioak, batzuetan, paragrafoan txertatuta daude, gainerako testutik bereizi gabe.

Kongresuan, idazleak, itzultzaileak eta interpreteak elkartu ziren.

Beste batzuetan, baina, enumerazioaren edukia aurreratu egiten da; orduan, bi puntu idazten dira enumerazioaren aurretik. Enumerazio horizontala laburra denean, atalak esaldi osoak ez izanik, osagaiak komaz edo puntu eta komaz bereizten dira (edo hurrenkera adierazten duen zenbaki edo letra batez), eta bi puntuen ondoren ez da beharrezkoa letra larria idaztea.

Kongresuan, hiru profesional(-)mota elkartu ziren: idazleak, itzultzaileak eta interpreteak.

Dokumentazio hau aurkeztu behar da: 1) nortasun(-)agiria; 2) pasaporteak; 3) gidabaimena.

Enumerazio horizontaleko atalak esaldi osoak direnean, letra larria erabil daiteke osagai bakoitzaren hasieran baldin eta zenbakiren bat edo markaren bat jartzen bada; bestela, ez.

Koordinatzailearen eginkizun nagusiak hauek izango dira: 1. Urteko kudeaketa(-)plana gauzatzea; 2. Behar diren neurriak hartzea aurrekontuan desbideratze larririk ez gertatzea ziurtatzeko; 3. Sailen eta lantaldeen arteko elkarlana koordinatzea.

Enumerazio bertikalean, bi puntuak erabiltzen dira ondoren beste paragrafo batean (edo batean baino gehiagotan) emango den azalpen baten sarrera gisa, eta, atalak aurkezteko, letrak, zenbakiak edo beste marka batzuk erabil daitezke, hala nola buletak (●, ■, □, *, ◆...) edo marrak. Bi puntuen ondoren datorrena letra larriz hasita idatzi ohi da azalpen horiek esaldi osoak direnean. Adibideak:

- Epaimahai bateko kide izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:
- Adin nagusikoa izatea, eta eskubide politikoak egikaritzeko ahalmen osoa izatea.
- Irakurtzen eta idazten jakitea.
- Izendapenaren garaian, epaituko den delitua egindako probintziako edozein udalerritako herritarra izatea.

Baimen hori honela eman daiteke:

- Aurrez aurre, izapidetze elektronikorako egiaztagiri baliozkoa ez badu.
- Telematikoki, izapidetze elektronikorako egiaztagiri baliozkoa badu.

Bi puntuen ondoren beste lerro batean hasita idazten direnak esaldi osoak ez badira, enumerazio horizontaletan bezala jokatzen da, hau da, ez dira letra larriz hasita idazten eta zerrendako osagaiak komaz edo puntu eta komaz bereizten dira, baina, enumerazio bertikala eskematikoa izan ohi denez, egokia da puntuazio-markak kentzea. Adibideak:

HONELA:

Hauek dira alorrez alorreko euskalgintzako profesionalak:

- irakasleak
- kazetariak
- itzultzaileak
- argitaratzaileak
- idazleak

Lau laguntzat, osagai hauek behar dira:

- zainzuriak (20 ale)
- piper berde bat
- piper gorri bat
- tipulin bat
- oliba(-)olioa
- ozpina
- gatza
- azukrea

EDO HONELA:

Hauek dira alorrez alorreko euskalgintzako profesionalak:

- irakasleak,
- kazetariak,
- itzultzaileak,
- argitaratzaileak,
- idazleak.

Lau laguntzat, osagai hauek behar dira:

- zainzuriak (20 ale),
- piper berde bat,
- piper gorri bat,
- tipulin bat,
- oliba(-)olioa,
- ozpina,
- gatza,
- azukrea.

1.4.3 Testu administratibo eta juridikoetako erabilera

Izaera administratibo edo juridikoko testuetan, *adierazi, eskatu, ziurtatu, egiaztatu* eta gisako aditzen ondoren jartzen diren bi puntuen ondoren datorren hitza letra larriz hasita idazten da, baita lerro berean idazten bada ere (askotan, aditz horiek osorik letra larriz idazten dira era horretako idazkietan).

Behean sinatzen duen pertsonak honako hau ZIURTATZEN DU:

Berak legez ordezkaten duen erakundeak dekretuan jasotako baldintzak guztiak betetzen dituela eta...

1.4.4 Kronologiak, sailkapenak eta gisakoak

Enumerazio bertikal gisa antolatutako kronologiak, sailkapenak edo gisa horretako testuak direnean, bi puntuen ondoren datorrenaren lehen hitza letra larriz hasita idazten da.

Apirila: Baimena eskatzea.

Maiatza: Baimena ematen ez badute, errekurtsioa egitea.

[...]

Otsailak 22: Alegazioak jartzeko epea amaitu zen.

Maiatzak 16: Sailburuak behin-behineko onespena eman zion.

[...]

Sagar-barietateak

Errezila: Kolore berde-arreko sagarra; azal mehe, gogor eta pixka bat latzekoa. Loraldi berantiarra.

Gezamina: Kolore berdeko sagarra; azal lodi eta ezkoduna. Produkzio handia du, urterokoa. Garai ertaineko loraldia.

Goikoetxea: Kolore gorri-berdeko sagarra; ildaskatua, azal mehe, samur eta ezkoduna. Produkzio handia du, baina bi urtez behingoa. Garai ertaineko loraldia.

1.4.5 Mezua datorrela iragartzeko hitzen ondorengo bi puntuen ondoren

Zerbait iragartzeko baliatzen diren *oharra*, *ohartarazpena*, *adibidea* eta gisako hitzen ondoren bi puntu jartzen direnean, ondoren datorrena letra larriz hasita idazten da.

Udaltzaingoaren oharra: Ez bota suziri edo suzko artefaktuak.

OHARRA: Ez utzi materia organikoa plastikozko poltsetan.

ABISUA: Bihar, goizeko 10etatik 12etara, ura moztuko da.

1.4.6 Esaldiaren barneko bi puntuen ondoren

Bi puntuen atzetik enuntziatuak segitzen bada, hau da, aurreko zatiaren jarraipena bada, letra xehez hasita idazten da bi puntuen ondorengo lehen hitza.

Hizkuntza hori ez da bere buruaren jabe: besteren legeak dauzka gogoan.

Oso garbi du urteak bete aurretik zer egin nahi duen: marka ezarri.

Horixe lortu nahi dute: gu beldurtzea eta gauez kalean ez ibiltzea.

Kasu horietan, adibide bat aurkezteko baliatzen dira askotan bi puntuak. Adibidez:

Batzuetan, harritu egiten nau: egun osoan ez du hitzik esan.

Atera baino lehen, gauza batzuk egin behar dira: alarma jarri, leihoa itxi.

1.5 Aipuetan

Zuzeneko aipuak komatxo artean (aipu-marken artean) idazten direnean, aipuaren lehen hitza letra larriz hasita idazten da. Aipua eteten bada, jarraipenean ez da letra larririk idazten. Adibideak:

Lehendakariak esan zuen: «Ezin dugu hori horrela onartu».

«Ezin dugu hori horrela onartu» —esan zuen lehendakariak— «baina prest gaude eztabaidatzen jarraitzeko».

Aipu-marken arteko zatia esaldi baten barnean gertatzen bada eta sintaktikoki beregaina ez bada, aipuaren hasiera ez da letra larriz hasita idazten. Adibideak:

Alde horretatik, negoziazioetan «orain dagoen arazo nagusia konponduko den itxaropena» agertu du alkateak⁹.

Aztertu eta azaldu zer esan nahi duen «filosofia desmistifikazio-enpresa bat» dela.

Esaldi eginak, esaerak, atsotitzak edo aipu ezagunak enuntziatuan txertatzen direnean, letra larriz hasita idazten dira bi punturen ondoren doazenean.

Esaera zaharrak dioen bezala: «Gogozko tokian aldaparik ez».

⁹ «orain dagoen arazo nagusia konponduko den itxaropena» ez da esaldi osoa, ez da beregaina; norbaitek egindako adierazpen baten zatia da, baina esaldi nagusiaren parte ere bada.

Bi punturik gabe sartzen badira enuntziatuan, letra xehez hasita idatz daitezke esaldiaren barnean josita daudenean.

Ezaguna egiten zait «askoren mina zoroen atsegina» delako esaera.

Edo letra larriz hasita.

Hor ere ondo egokitzen da «Zozoak beleari, ipurbeltz» atsotitza.

Bi puntuen ondoren datorrena aipu-marken barruko adierazpen bat bada, esaldi osokoa, letra larriz hasita idazten da bi puntuen ondorengo lehen hitza. Adibideak:

Gogoratu haren hitzak: «Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak baditu bere arriskuak; ongi agerikoak, gainera».

Orainaldian kokatu du eleberria idazleak: «Nire auzoan, ongi ezagutzen dudan lekuan».

Nazio Batuen Erakundearen ohartarazpena: «Muturreko fenomeno meteorologikoak normaltasun berria dira».

1.6 Parentesien edo marren arteko testuaren hasieran

Parentesien edo marren artean idazten den testu-zatia ez da letra larriz hasita idazten. Adibideak:

Batzuetan, gainera, ia ezinezkoa zen batuan paratzea (pentsa, adibidez, bertso batzuez ari bagara).

Galdegaiaren eta aditzaren artean ez da komarik idazten (ikus 3.3. puntua).

Horiek guztiak, berriro diogu, gramatika eta hiztegi arruntek jasotzen dituzte —edo jaso behar lituzkete—, eta hizkuntzak berak arauturik daude.


Hala ere, hasierako parentesiaren edo marraren aurretik galdera-marka, harridura-marka edo puntua baldin badago, letra larriz hasita idatzi behar da barneko testuaren hasiera. Adibideak:

Areagotu egin zen eskualdeen ohiko nagusitasuna itsas arrantzan. (Prozesu hori XX. mendearen hasieran osatu zen.)

Nork prestatuko du bidaia? (Beharrezkoa da puntu hori lehenbailehen argitzea.)

1.7 Olerkietan

Inprenta asmatu ondoren, eta XIX. mendera arte, ohikoa zen olerkietan ahapaldien bertso-lerro guztien hasieran letra larria idaztea. Hona hemen Bernart Etxepareren *Linguae vasconum primitiae* liburuaren amaierako “Kontrapas” olerki ezagunaren jatorrizko edizioa (1545):



XX. mendean, baina, ohitura hori galduz joan zen, eta gaur egun ez da batere ohikoa. Olerkiaren ahapaldi bakoitzeko lehen hitza larriz hasita idatzi ohi da, eta puntu ondoren ere bai, baina ez besterik. Adibidez (J. A. Artze, *Ortzia lorez, lurra izarrez* liburutik):

Lurra lorez
da janzten
lotatik esnatzean,
eguzkia agertzean.
Ortzia izarrez
apaintzen
loak hartzean,
eguzkia agurtzean...

Salbuespen gisa, olerki eta testu akrostikoetan baliatzen da, olerkiak aterpetzen duen hitza nabarmentzeko. Adibidez (Joxantonio Ormazabal):

negUaren
onDoren
dAator
Bere
Eguzki
epelaRekin
loRez
jantzIta
kAntari

2 Izen bereziak eta adierazpen izendatzaileak nabarmentzea

Izen berezia izen arruntetik bereiztea da letra larriaren eginkizun nagusia, hitzak testuan duen posizioa markatzea alde batera utzita.

2.1 Berezko izen bereziak eta adierazpen izendatzaileak

Esan daiteke testuan duten posizioa edozein dela ere letra larriz hasita idazten diren izenak izen bereziak direla. Pertsonak izendatzeko izenak eta deiturak —antropónimoak— (Ane, Jon, Goenaga, Bidegain...) eta tokiak izendatzekoak —topónimoak— (Nafarroa, Baiona, Anboto, Garona, Norvegia, Saturno...) izen bereziak dira, eta, horregatik, letra larriz hasita idazten dira. Izaki bakarrak izendatzen eta aipatzen dituzten izenak edo izen-sintagmak izaten dira. Erreferente jakin bat izendatzeko balio dute, eta ez dute esanahi lexikorik, ez dute balio izaki horien klase bat ezartzeko.

Horiek guztiak **berezko izen bereziak** dira: izaki bat edo batzuk modu berezian izendatzen dituzte, eta ez dute arazorik sortzen letra larriaren erabilerari dagokionez: letra larriz hasita idazten dira.

Baina izen berezien izaera —eta, beraz, hasierako letra larriaren erabilera— ez da hor agortzen. Haiekin batera daude **adierazpen izendatzaile** izenekoak. Adierazpen horiek lexiko arrunteko hitzen edo lexiko arrunteko hitzen eta izen berezien konbinazio finko

batez osatuta daude, eta haiek ere izaki bakar bat aipatzen dute, erreferente bakarra dute; hau da, haien eginkizuna dena delako izaki hori identifikatzea da, besteetatik bereiztea. Adibidez, Udako Euskal Unibertsitatea adierazpen izendatzailea erreferente bakarreko izen berezi bat da, uda, euskal eta unibertsitate izen arruntez osatua. Kasu horretan, hiru izen horiek beren esanahiaren konnotazioa gorde dute, hau da, izendapen hori deskribatzailea ere bada nolabait, baina, berez, Udako Euskal Unibertsitatea multzoak balio izendatzailea du. Izendapenaren jatorrian asmo deskribatzailea izanda ere, izendapena sortu eta errotu ondoren, haren funtzio bakarra erreferente bakar bat izendatzea da, jatorrizko izendapenaren oinarria izan zen ezaugarriak badirauek edo ez alde batera utzita. Udako Euskal Unibertsitatea izena duen erakundearen jardura urte osoa da, ez soilik udakoa, baina horrek ez du eraginik izenean.

Adierazpen izendatzaileak dira hauek guztiak, adibidez:

Bigarren Mundu Gerra, Oihan Beltza, Euskal Herria, Europar Batasuna, Ekialde Hurbila, Eiffel dorrea, *Soinujolearen semea*, *Haizearen orrazia*, Usurbilgo Udala, Kultura Saila, Ameriketako Estatu Batuak, Eusko Ikaskuntza, Europako Banku Zentrala, Euzko Alderdi Jeltzalea, Mugarik Gabeko Medikak.

Adierazpen izendatzaileetan, esanahi formalak ez du nahitaez bat etorri behar izendatzen duen erreferentearen izaerarekin. Adibidez, Argiaren erreferentea ez da argia, aldizkari bat baizik, Euskadi Gaztea ez da lurralde “gazte” bat, irrati bat baizik, edo Gurutze Gorria ez da gurutze-mota bat, erakunde bat baizik.

Egiturari dagokionez, izen-sintagmak dira gehienetan, baina perpaus osoak edo perpausen bestelako osagaiak ere izan daitezke: Gure Esku Dago (herri-mugimendu bat), *Gorde nazazu lurpean* (eleberria), Ahal Dugu (alderdi politiko bat), *Gara* (egunkari bat), Nafarroa Oinez (Nafarroako ikastolen jaia).

2.2 Adierazpen izendatzaileen osagaiak: generikoa eta espezifikoa

Hitz bat baino gehiagoko adierazpen izendatzaileetan, osagai generikoa eta osagai espezifikoa bereizi daitezke gehienetan. Osagai generikoak erreferentea —izendatzen

ari den hori— zer klasetakoa den adierazten du, eta izen arrunta izan ohi da. Adibidez (osagai generikoa letra lodiz nabarmenduta dago adibideetan):

Ozeano Atlantikoa, **Ibai** Horia, Gibraltarko **itsasartea**, Konstituzio **plaza**, Hezkuntza **Saila**, Iruñeko **Udala**, Kyotoko **Protokoloa**, Dolores Ibarruri **kalea**, Euskal Herriko **Unibertsitatea**.

Osagai espezifikoak erreferentea —izendatzen ari den hori— identifikatzen du. Aurreko adibideetan, hauek dira osagai espezifikoak: Atlantikoa, Horia, Gibraltar, Konstituzioa, Hezkuntza, Iruñea, Kyoto, Dolores Ibarruri, Euskal Herria.

Aurreko adibideetan nabari den moduan, osagai generikoa letra larriz hasita idazten da kasu batzuetan, eta beste batzuetan, berriz, ez, erreferente-motaren arabera; horregatik, zalantza-iturri gertatzen da maiz.

Izendapen izendatzaileek izen bereziaren estatusa dute, eta, horregatik, gutxienez hitz bat letra larriz hasita izan behar dute. Izendapena nola osatua dagoen —zer barne-egitura duen— eta zer erreferente-motari dagokion, izendapena osatzen duten hitzetariko lehenengoan bakarrik jartzen da letra larria (Konstituzio plaza, Amazonas ibaia, Eiffel dorrea, *Gorde nazazu lurpean*) edo izendapena osatzen duten hitz guztietan (Hezkuntza Saila, Ekialde Hurbila, Gurutze Gorria, Euskal Herriko Unibertsitatea).

Letra xehez idatzita ez lukeen esanahia hartzen du adierazpen izendatzaileak: hala, adierazpen arrunta zena adierazpen berezi bihurtzen da. Alegia, baliabide tipografiko huts batez —hitz baten lehen letra ondoko letrak baino handiagoa izatea—, beste balio bat hartzen du. Kasu batzuetan, oso nabarmena da hitzaren lehen letra larria edo xehea izateak eragiten duen aldaketa. Adibidez:

berdeak / **Berdeak** (erakundea: Alemaniako alderdi politikoa)

erdialdeko mendigunea / **Erdialdeko mendigunea** (leku-izena: Frantziako mazizoa)

itsaso beltza / **Itsaso Beltza** (leku-izena: Europa eta Asia arteko itsasoa)

kongresua / **Kongresua** (erakundea: biltzar legegilea)

mendi harritsuak / **Mendi Harritsuak** (leku-izena: Ipar Amerikako mendikatea)

Adierazpen izendatzaileetan, hitz guztiak letra larriz hasita idatzi behar diren edo lehenengo hitza bakarrik idatzi behar den izan ohi da zalantza, baina ez dago kasu guztietarako balio duen erantzunik. Erreferentea zein den kontuan hartuta ebatzi ohi da zalantza.

Ez da euskararen arazoa. Inguruko hizkuntzetan ere ez dago batasunik. Erakundeen izenak eta leku-izenak idazteko orduan, adibidez, berehala ageri dira aldeak hizkuntzatik hizkuntzara. Hona hemen, erakusgarri, bi adibide:

Giza Eskubideen Europako Auzitegia erakundea idaztean, honela baliatzen da letra larria inguruko hizkuntza batzuetan:

ingelese	E uropean C ourt of H uman R ights
frantsesa	C our européenne des droits de l' h omme
gaztelania	T ribunal E uropeo de D erechos H umanos
katalana	T ribunal E uropeu de D rets H umans
italiera	C orte europea dei diritti dell' u omo

Eta Mendi Harritsuak izeneko mendikatearen kasuan, honela erabiltzen da letra larria erdara horietan:

ingelese	R ocky M ountains
frantsesa	montagnes R ocheuses
gaztelania	M ontañas R ocosas
katalana	muntanyes R ocoses
italiera	M ontagne R occiose

2.3 Letra larrien erabilera izen berezietan eta adierazpen izendatzaileetan

Izen berezietan eta adierazpen izendatzaileetan letra larriak erabiltzeko gomendio orokorrik ematerik ez dagoenez, izendatu behar duten erreferentearen izaeraren arabera sailkatuta emango dira gomendioak hurrengo azpiataletan.

2.3.1 Leku-izenak

Izen geografikoak —toponimoak— atal generiko batez eta espezifiko batez osatuta egoten dira askotan. Generikoak modu orokorrean identifikatzen du lekuaren izaera (ibaia, herria, aintzira, mendia...), eta espezifikoak, berriz, modu partikularrean (Amazonas ibaia, Mendi Harritsuak eta Bizkaiko golkoa toponimoetan, Amazonas, Harritsuak eta Bizkaia dira espezifikoak). Osagai espezifikoa letra larriz hasita idazten da beti.

Bi atalak, baina, ez dira beti ageri. Askotan, atal espezifikoa besterik ez da erabiltzen, eta generikoa hautazkoa da; hala gertatzen da, batez ere, aposizioan daudenean. Adibidez, Everest, Gorbeia, Aturri, Nilo, Gipuzkoa, Frantzia espezifikoak dira, eta ez da ezinbestekoa Everest mendia, Gorbeia mendia, Aturri ibaia, Nilo ibaia, Gipuzkoa(ko) probintzia, Frantziako Errepublika esatea edo idaztea. Beste batzuetan, berriz, ezinbestekoa da biak adieraztea. Adibidez, Bizkaiko golkoa, Oloroeko uhaitza, Suezko kanala, Eduardo Printzearen uhartea, Ibai Horia¹⁰.

Leku-izenak, bestalde, *entitate geografikoak* edo *entitate administratiboak* izan daitezke.

Entitate geografikoak bi motatakoak dira: *entitate naturalak*, hala nola mendiak, ibaiak, mendikateak, itsasoak, basoak edo haranak, eta *entitate artifizialak*, hala nola zubiak, kanalak, tunelak, errepideak edo urtegiak.

Entitate administratiboak edo politikoak, berriz, lurralde baten banaketa formalak dira; lurralde-antolaketarako unitateak dira, eta haiek gobernatzeko instituzioak adierazteko ere balio dute askotan. Beraz, leku-izen izateaz gainera, badira instituzio-izen ere. Estatuen barneko banaketa administratiboaren emaitza izaten dira (edo beste helburu baterako banaketaren emaitza; adibidez, eskualde militarrek, barruti judizialak edo elizbarrutiak): autonomia-erkidegoak, probintziak, departamenduak, erregioak, mankomunitateak, hauteskunde-barrutiak, udalerrak, hiriak, herriak, parke naturalak, erreserbak eta abar. Eta entitate politikoak dira, orobat, estatuak eta estatuz gainekoak ere, hala nola federazioak, inperioak eta eskualde geopolitikoak.

¹⁰ Dena dela, erabiliaren erabiliaz edo zenbait testuinguru jakinetan, haietako batzuetan gerta daiteke edo gertatzen da generikoa adierazi beharra ezinbestekoa ez izatea. Adibidez, Ozeano Atlantikoa gabe, Atlantikoa.

2.3.1.1 Kontinenteak

Kontinente, azpikontinente edo superkontinenteen izenak edo haien atalen izenak letra larriz hasita idazten dira hitz guztietan.

Afrika, Europa, Eurasia, Ipar Amerika, Hego Amerika, Antartika, Pangea...

Kontinente batzuk izendatzeko baliatzen diren izendapen antonomasikoak ere letra larriz hasita idazten dira.

Mundu Berria (Amerika izendatzeko), **Kontinente Zaharra** (Europa izendatzeko), **Kontinente Beltza** (Afrika izendatzeko).

Dena dela, aposizio deskribatzaile hutsa denean, hau da, benetako izenarekin batera erabiltzen denean, ez da letra larriz hasita idazten.

Afrika, kontinente beltza; **Europa**, kontinente zaharra.

2.3.1.2 Estatuak, eskualde administratiboak, probintzia eta departamenduak, hiri eta herriak

Letra larriz hasita idazten dira hitz nagusi guztietan.

Arabiar Emirerri Batuak, Burkina Faso, Dominikar Errepublika, Ekialdeko Timor, El Salvador, Hego Korea, Salomon Uharteak, Zeelanda Berria; Nafarroako Foru Erkidegoa, Pirinio Atlantikoak, Loira Garaia, Akitania Berria, Asturiasko Printzerria; Donibane Garazi, Iruñea, Miranda Ebro, Donemiliaga Kukula, Las Palmas, Saint-Étienne, Lurmutur Hiria, New Delhi, La Paz, Port Moresby.

Estatu-elkarteen izenak eta estatuen izendapen ofizialak ere bai.

Europar Batasuna, Eritreako Estatuak, Frantziako Errepublika, Espainiako Erresuma, Irango Islamiar Errepublika, Brasilgo Errepublika Federala, Errusiako Federazioa, Ameriketako Estatu Batuak, Liechtensteingo Printzerria.

Salbuespena: izen konposatuak *eta* hitzaren bidez lotzen direnean, *eta* hitza letra xehez idazten da.

Antigua eta Barbuda, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua, Trinidad eta Tobago, Saint Kitts eta Nevis, Gaztela eta León, Saona eta Loira, Meurthe eta Mosela.

Estatu, eskualde, hiri edo herriaren izena egokitzen ez denean, hau da, jatorrizko hizkuntzan bezala erabiltzen denean, baldin eta jatorrizko hizkuntzan osagaietakoren bat letra xehez idazten bada (*de, le, sur, en, la...*), berdin idatziko da euskaraz ere.

Port-**au**-Prince, Santo Domingo **de la** Calzada, Île-**de**-France, Pas-**de**-Calais, Santiago **de** Compostela, Andorra **la** Vella, Bourg-**en**-Bresse, Lons-**le**-Saunier, Mont-**de**-Marsan, Digne-**les**-Bains, La Roche-**sur**-Yon, '**s**-Hertogenbosch, Reggio **di** Calabria, Trás-**os**-Montes **e** Alto Douro.

Estatu baten barneko lurralde-banaketaren unitateen izendapenaren atal generikoa letra xehez idazten da lurraldea adierazi nahi denean.

Araba **p**robintzia edo Arabako **p**robintzia, Astrain **k**ontzejua edo Astraingo **k**ontzejua, Ziortza-Bolibar **u**dalerria edo Ziortza-Bolibarko **u**dalerria, Pirinio Atlantikoak **d**epartamendua edo Pirinio Atlantikoetako **d**epartamendua, Akitania Berria **e**skualdea edo Akitania Berriko **e**skualdea, Lancashire **k**onderria edo Lancashireko **k**onderria (Ingalaterra), Jalisco **e**statua edo Jaliscoko **e**statua (Mexiko), Ohio **e**statua edo Ohioko **e**statua (Estatu Batuak), Yorkshire eta Humber **e**rregioa edo Yorkshire eta Humberko **e**rregioa (Ingalaterra).

Izendapenaren nahitaezko atala denean, letra larriz idazten da.

Juduen **P**robintzia **A**utonomoa (Errusia), Badakhxan Garaiko **P**robintzia **A**utonomoa (Tajikistan), Tibeteko **E**skualde **A**utonomoa (Txina), Nafarroako **F**oru **K**omunitatea autonomia-erkidegoa, Madrilgo **E**rkidegoa autonomia-erkidegoa, Valentziako **E**rkidegoa autonomia-erkidegoa, Murtziako **E**rregioa autonomia-erkidegoa.

2.3.1.3 Barrutiak, auzoak eta etxe-multzoak

Udalerrien barneko banaketa administratiboen izenetan (barrutiak, auzoak, urbanizazioak, industrialdeak) eta, oro har, etxe-multzoen izenetan, generikoa letra xehez idazten da.

Donostiako Amara **a**uzoa, Bilboko Otxarkoaga-Txurdinaga **b**arrutia, Iruñeko Txantrea **a**uzoa, Baiona Ttipia eta Baiona Handia **a**uzoak, Esako Lasaitasuna

urbanizazioa, Andoaingo Olagain **auzunea**, Donibane Garaziko Larroinea **auzoa**, Usurbilgo Osinalde **industrialdea**, Iruñeko Bigarren Zabalgunea **auzoa**.

Erakunde baten izenaren parte denean, berriz, letra larriz hasita idazten da.

Zorrotzako **Auzo Elkarte**a.

2.3.1.4 Eskualdeak

Eskualdeen izenak (gaur egungo eskualdeenak zein eskualde historikoenak) letra larriz hasita idazten dira (eskualdeak zenbateraino diren entitate administratiboak edo entitate geografiko hutsak diren zehaztea ez da beti erraza; ezaugarri fisikoen arabera definitu ohi dira, baina ezaugarri kulturalen arabera ere bai).

Arabako **Lautada**, **Mendialdea** (Arabako eskualdeak), **Basabürüa** (Zuberoako eskualdea), Estellerriko **Erribera**, Los Arcosko **Bostiriak** (Nafarroako eskualdeak), **Bigorra**, **Bearno**, **Alpujarra**, **Empordà**, **Beaujolais**, **Médoc**.

2.3.1.5 Toponimo politiko historikoak

Jada desagertutako estatuen, inperioen, kolonien eta kidekoen izenak letra larriz hasita idazten dira (ikus, halaber, 2.3.11.1 puntua).

Nafarroako **Erresuma**, **Mendebaldeko Erromatar Inperioa**, **Bizantziar Inperioa**, **Mediako Inperioa**, **Akemenestar Inperioa**, **Germaniako Erromatar Inperio Santua**, **Austro-hungariar Inperioa**, **Otomandar Inperioa**, **Probintzia Batuak**, **Ekialdeko Afrika Britainiarra**, **Hego-mendebaldeko Afrika Alemana**; **Frantzia Berriko Erregeorderria**; **Kongo Belgikarra**, **Marokoko Protektoratu Frantsesa**, **Orangeko Estatu Librea**, **Gaztela Berria**, **Sudan Anglo-egiptoarra**, **Volta Garaia**.

2.3.1.6 Eremu geopolitikoak, geoturistikoak

Formalki entitate administratibo edo politikoak ez izan arren ezaugarri komun batzuk dituztela-eta eremu geopolitikotzat hartzen diren eskualde geografikoen izendapenak —askotan, estatu bat baino gehiago hartzen dituzten eremuak dira— letra larriz hasita idazten dira¹¹.

¹¹ Letra larriz hasita idatzi izan zen hirugarren mundua termino geoekonomikoa sortu zenean (Hirugarren Mundua); gaur egun, ordea, letra xehez idaztea da joera nagusia. Beste hainbeste harekin

Ekialde Hurbila, Ekialde Urruna, Erdialdeko Amerika, Mesoamerika, Hego Konoa (Argentina, Txile eta Uruguai), **Mendebaldea** (jatorrizko Europako mendebaldekoa den kultura duten herrialdeen multzoa —Europakoak eta beste kontinente batzuetakoak— adierazteko; adibidez, **Mendebaldeko zibilizazioa**), **Ekialdea** (**Mendebalde** eremu geopolitikoari kontrajarria), **Ekialdeko herrialdeak** (hala erabil daiteke eskualde geopolitikotzat hartzen bada, hala nola Europako bloke komunistako herrialdeak aipatzeko XX. mendeko Europan; bestela, Europako **ekialdeko herrialdeak** erabiltzen da esanahi geografiko hutsa, eta ez politikoa, adierazteko).

Adibidez, Nazio Batuen Erakundearen geoeskemak 22 azpieskualdetan banatu du mundua erabilera estatistikorako. Adiera horretan, letra larriz hasita idazten dira.

Iparraldeko Afrika, Mendebaldeko Afrika, Erdialdeko Afrika, Ekialdeko Afrika, Hegoaldeko Afrika, Erdialdeko Asia, Mendebaldeko Asia, Hegoaldeko Asia, Ekialdeko Asia, Hego-ekialdeko Asia, Mendebaldeko Europa, Iparraldeko Europa, Hegoaldeko Europa, Ekialdeko Europa...

Bestalde, gehienbat turismoari begira hautatutako edo asmatutako izenak, oro har, ez dira euskaratzen eta jatorrizko hizkuntzan uzten dira (letra larriz hasita idatzi ohi dira gaztelaniaz eta frantsesez).

Costa Brava, Costa del Sol, Côte d'Argent, Kosta Urdina / Côte d'Azur.

2.3.1.7 Irudizko leku-izenak, leku-izen literarioak eta erlijioei lotutako leku-izenak

Literaturan asmatutako leku-izenak ere letra larriz hasita idazten dira.

Atlantida, Macondo, Obaba, Mordor.

Erljioen, filosofien eta mitologiaren arloko leku-izen orokorrak letra xehez idazten dira.

infernua, paradisia, purgatorioa, zerua, linboa, Abrahamen altzoa.

2.3.1.8 Bestelako entitate administratiboak: eskualde militarrek eta erlijiosoak

batera erabiltzen diren lehen mundua, bigarren mundua eta laugarren mundua terminoen kasuan ere. Halaxe daude jasota guztiak *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n, letra xehez.

Generikoa letra xehez idazten da.

Gasteizko **elizbarrutia**, Burgosko **artxidiozesia**, Baionako **elizbarrutia**; Frantzian, Hego-mendebaldeko **defents(-)** eta **segurtasun(-)zonako** egoitza Bordele da; Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa VI. **eskualde militarren** barnean egon ziren.

2.3.1.9 Leku-izenen izendapen korreferenteak

Kontinenteen atalean ere adierazi den bezala, leku-izen batzuk izendatzeko baliatzen diren izendapen antonomasikoak letra larriz hasita idazten dira.

Mundu Berria (Amerika), **Argiaren Hiria** (Paris), **Hiri Eternala** edo **Hiri Betierekoa** (Erroma), **Sagar Handia** (New York), **Hexagonoa** (Frantziaren metropolia izendatzeko).

Dena dela, aposizio deskribatzaile hutsa denean, hau da, benetako izenarekin batera erabiltzen denean, ez da letra larriz hasita idazten.

Europa, **kontinente zaharra**; Paris, **argiaren hiria**.

2.3.1.10 Entitate geografikoak: elementu geografikoak

Entitate geografikoak naturalak —ibaiak, uharteak, lurmuturrak, mendikateak, itsasoak, ozeanoak, basoak, haranak, eskualde naturalak...— edo artifizialak izan daitezke —zubiak, kanalak, tunelak, urtegiak, portuak...—.

Era horretako leku-izenak atal espezifiko batez (Bidasoa) eta generiko batez (ibaia) osatuta egoten dira: Bidasoa ibaia.

Batzuetan, atal espezifikoak osagarriren bat izan dezake, izenondo bat edo izenlagun bat edo elementu zehaztaileren bat, eta elementu hori ere letra larriz hasita idazten da.

Tunguska **Harritsua** (ibaia), **Mendebaldeko Dvina** (ibaia), Antilla **Txikiak** (uharteak), **Hegoaldeko Karpatoak** (mendikatea).

Letra larrien erabilerari dagokionez, irizpide nagusia da atal espezifikoak letra larriz hasita idaztea beti eta atal generikoa, berriz, letra xehez idaztea.

OHARRA

Herrialde batzuek *Uharteak* izena dute beren izen ofizialean. Adibidez, Marshall **Uharteak**, Salomon **Uharteak**, Cook **Uharteak**. Kasu horretan, entitate politiko gisa —eta ez entitate fisiko gisa— aipatzen direnean, letra larriz hasita idatzi behar da *uharte* hitza. Adibidez:

Txinak eta Salomon **Uharteek** segurtasun(-)hitzarmen bat sinatu dute.

Askotan, atal generikoa bazterrean uzten da, ez da erabiltzen, eta aski da osagai espezifikoa. Hori gertatzen da leku-izen prototipikoetan: Mediterraneo (Mediterraneo itsasoa), Anboto (Anboto mendia), Amazonas (Amazonas ibaia), Alpeak (Alpe mendiak), Molukak (Moluka uharteak), Sizilia (Sizilia uhartea), Amazonia, Patagonia, Panpa, ... Beste batzuetan, ordea, atal generikoak nahitaez agertu behar du, ezinbestekoa baita: Bizkaiko **golkoa**, Oloroeko **uhaitza**, Suezko **kanala**, Ibai Horia, Erdialdeko **mendigunea**, Eduardo Printzearen **uhartea**. Leku-izen horietako atal generikoak kenduz gero (golkoa, uhaitza, kanala, ibaia, mendigunea, uhartea), ezinezkoa da leku-izena izendatzea.

Atal generikoa hautazkoa denean, letra xehez idazten da: Kanariak edo Kanaria **uharteak**, Txindoki edo Txindoki **mendia**, Himalaia edo Himalaia **mendikatea**.

Kanpoko leku-izen batzuetan, toponimoa izen batez eta adjektibo batez edo beste osagairen batez osatuta dago, eta adjektibo hori edo beste osagai hori ez da itzultzen. Orduan, letra larriz hasita idazten da adjektibo hori ere.

Mont **Blanc** / Mont **Blanc** mendia; Blanc edo Blanc mendia ez da esaten.

Monte **Perdido** (Monte **Perdido** mendia); Perdido edo Perdido mendia ere esaten da.

Monte **Rosa** (Monte **Rosa** mazizoa)

Sierra **Morena** (Sierra **Morena** mendikatea)

Pica d'**Estats** (Pica d'**Estats** mendia)

Sierra **Nevada** (Sierra **Nevada** mendikatea)

Mar **Menor** (Mar **Menor** aintzira)

Atal generikoa hautazkoa ez denean ere, letra xehez idazten da gehienetan. Zehazki, kasu hauetan:

a) Atal espezifikoa *-ko* postposizioaren bidez edo *-en* postposizioaren bidez (genitiboaren bidez) lotzen zaionean atal generikoari, letra xehez idazten da generikoa:

(*-ko* erlaziozko postposizioarekin)

Indiako **o**zeanoa, Bizkaiko **g**olkoa, Bilboko **p**ortua, Arberoako **e**rreka, Gasteizko **m**endiak, Arabako **l**autada, Atacamako **b**asamortua, Bohemiako **o**ihana, Girondako **e**stuarioa, Suezko **k**anala, Haizaldeko **u**hartek, Gibraltarko **i**tsasartea, Panamako **k**anala, Oloroeko **u**haitza, Omango **i**tsasoa, Errotazarko **i**turria, Indus-Gangesetako **l**autada, Konstantzako **a**intzira, Ardenetako **m**endigunea, Frisiako **u**hartek, Lau Kantonamenduetako **a**intzira, Panoniako **o**rdokia, Renaniako **e**skisto-mendigunea, Rybinsk-eko **u**rtegia, Midiko **k**anala, Toledoko **m**endiak, Uyuniko **g**atzaga, Esperantza Oneko **l**urmuturra, Hego Txinako **i**tsasoa.

OHARRA

Atal espezifikoa eta generikoa erakunde baten izenaren parte direnean, letra larriz hasita idazten dira guztiak. Adibidez:

Bilboko **p**ortua, baina Bilboko **P**ortuko Agintaritza.

Panamako **k**anala, baina Panamako **K**analeko Agintaritza.

(*-en* genitiboaren bidez)

Dardaneloen **i**tsasartea, Sargazoen **i**tsasoa, Almirantegoaren **u**hartea, Elur-oreinaren **a**intzira (edo Elur Oreinaren **a**intzira), Galesko Printzearen **m**uturra, Heriotzaren **h**arana, Ur-jauzien **m**endikatea (edo Ur Jauzien **m**endikatea), Niloren **d**elta, Pitzarren **l**autada, Amazonasen **a**rroa, Adelaida Erreginaren **a**rtxipelagoa.

OHARRA

Leku-izenaren egitura *izenlaguna + izena* denean, baldin eta izenlagunaren osagaia izen berezia izan beharrean lekuzko kokatzaile orokor bat bada (hegoaldeko, ipar-mendebaldeko, barnealdeko, erdialdeko...) eta haren ondotik dagoen izena (generikoa) izen arrunta bada, izenlaguna letra larriz hasita idazten da eta izena (generikoa) letra xehez:

Erdialdeko **m**endigunea, Ekialdeko **m**endikatea, Erdialdeko **m**endikatea, Erdialdeko **s**istema, Erdialdeko **h**arana, Barnealdeko **p**asaia, Ipar-mendebaldeko **p**asaia, Mendebaldeko **m**endikatea.

b) *-ko* edo *-en* postposizioen ordean espezifikoak eta generikoak izen-elkarte bat osatzen dutenean, letra xehez idazten da generikoa:

Koral **i**tsasoa, Metal **m**endiak, Ipar **l**urmuturra, Hego **u**hartea.

c) Atal espezifikoak *-(t)ar* atzizkia duenean eta generikoaren aurretik dagoenean, letra xehez idazten da generikoa:

Arabiar **p**enintsula, Anglo-normandiar **u**hartek, Britainiar **u**hartek, Iberiar **p**enintsula, Kantauriar **m**endikatea, Kaspiar **i**tsasoa, Persiar **g**olkoa, Tirreniar **i**tsasoa, Kanbriar **m**endiak.

Kasu hauetan, berriz, bi atalak letra larriz hasita idazten dira:

a) Leku-izenaren egitura *izena + izenondoa(k)* denean:

Ozeano Atlantikoa, **O**zeano **B**area / **O**zeano **P**azifikoa, **O**zeano **A**rtikoa, **O**zeano **A**ustrala, **I**bai **H**oria, **I**bai **G**orria, **I**tsaso **H**oria, **I**tsaso **A**driatikoa, **I**tsaso **B**altikoa, **I**tsaso **B**eltza, **I**tsaso **Z**eltikoa, **I**tsaso **J**onikoa, **M**endikate **P**enibetikoa, **M**endikate **B**anatzaille **H**andia, **A**intzira **G**azi **H**andia, **A**rtesiar **A**rro **H**andia, **R**ift **H**aran **H**andia, **M**endi **H**arritsuak, **E**zkutu **K**anadarra, **A**intzira **H**andiak, **O**rdoki **H**andiak.

OHARRA

Batzuetan, leku-izenaren ondoren izenondo bat ager daiteke leku-izenaren parte ez dena. Izenondo hori ez da letra larriz hasita idaztekoa noski.

Iparraldean, Nafarroa **m**enditsua dugu; hegoaldean, berriz, Nafarroa **l**aua.

Euskal Herri **k**ontinentala eta Euskal Herri **p**enintsularra.

Amerika **a**beratsa eta Amerika **t**xiroa.

b) Leku-izenaren egitura *izenlaguna + izena + izenondoa* denean, izena generikoa izanik, generikoa letra larriz hasita idazten da, bai eta izenondoa ere, batasun hautsezina osatzen dutelako generikoarekin. Adibidez, Elur-oreinaren **a**intzira leku-izenaren kasuan, aintzira generikoa letra xehez idazten da, baina Hartzaren **A**intzira Handia

leku-izenaren kasuan, aintzira generikoa letra larriz hasita idazten da, ondoren izenondo bat duelako. Adibideak:

Australiako **Badia Handia**, Esklaboen **Aintzira Handia**, Hungariako **Ordoki Handia**.

c) Leku-izenaren egitura *izenlaguna + izena* denean, izenlagunaren osagaia lekuzko kokatzaile orokor bat izanik (hegoaldeko, ipar-mendebaldeko, barnealdeko, erdialdeko...), haren ondotik dagoen izena izen berezia denean, izenlaguna ere letra larriz hasita idazten da:

Hegoaldeko Karpatoak, **Mendebaldeko Neisse**, **Ekialdeko Sierra Madre**, **Hegoaldeko Rio Grande**.

d) Generikoa benetan generikoa ez denean, hau da, denotatzen duena izendatzen ari den erreferentearen izaerarekin bat edo guztiz bat ez datorrenean, edo erreferentearen izaera modu metaforikoan denotatzen duenean, letra larriz hasita idazten da:

Hiru Erregeen **Mahaia** (*mahaia* ez da *mendi* hitzaren ohiko sinonimoa), Aiako **Harria** (*harria* ez da *mendi* hitzaren ohiko sinonimoa), Erraldoien **Galtzada** (*galtzada* ez da *itsaslabar* hitzaren ohiko sinonimoa), Afrikako **Adarra** (*adarra* ez da *penintsularen* ohiko sinonimoa), Burdinazko **Ateak** (arroila bat da), Adamen **Zubia** (arrezife-kate bat da), Errolanen **Arraila** (mendi-lepo bat da), Ilgora **Emankorra** (ilgora-formako eskualde bat da).

2.3.1.11 Parkeak, lorategiak eta espazio natural babestuak

Parkeak eta kidekoak gainerako toponimo geografikoak bezala idazten dira, generikoa letra xehez jarrita.

Florida **parkea** (Gasteiz), Antoniutti **parkea** (Iruñea), Casilda Iturrizar **parkea** (Bilbo), Aieteko **parkea** (Donostia); Agirre Lehendakariaren **parkea**, Albia **lorategiak** (Bilbo); Baionako **lorategi botanikoa** (Baiona), Bertizko **lorategi botanikoa** (Bertizarana), Boulogneko **basoa** (Paris), Ondarretako **lorategiak** (Donostia); Güell **parkea**, Montjuïc-eko **parkea** (Bartzelona).

Ofizialki izendatutako espazio natural babestuetan ere, nahikoa da atal espezifikoak bakarrik idaztea letra larriz hasita.

Aiako **H**arriko parke naturala, **U**rkiolako parke naturala, **U**rdaibai biosfera(-)erreserba, **Y**ellowstoneko parke nazionala, **P**irinioetako parke nazionala, **D**oñanako parke nazionala.

Hala ere, naturagune horiek izendapen ofiziala izaten dute; beraz, nolabaiteko izaera administratiboa dute. Horretaz gainera, batez ere parke nazionalen eta biosfera-erreserben kasuan, haiek kudeatzen dituzten erakundeen izena ere izaten da, eta, orduan, letra larriz hasita idazten da atal generikoa ere: **U**rdaibai **B**iosfera **E**rreserba, **D**oñanako **P**arke **N**azionala.

Leku hutsa adierazteko letra xehea erabiltzea eta entitatea adierazteko letra larria erabiltzea bereizketa teoriko argia bada ere, praktikan ez da oso erabilgarria, eta ohikoa da erakundeen izenetara asimilatzea eta hitz guztiak letra larriz hasita idaztea.

Bestalde, atal espezifikorik gabe erabiltzen denean, letra xehez idazten da beti.

Frantziako **p**arke **n**azionalak; **p**arke **n**azionala itxi dute suteagatik.

2.3.1.12 Kaleak edo karrikak, plazak eta bestelako bideak, herri eta hirien barnekoak zein hiriartekoak

Kale, plaza, bide, pasealeku, etorbide, errepide eta kidekoei *odonimo* deritze. Eskuarki, gainerako leku-izenek bezala, atal espezifikoa bat eta generikoa bat izan ohi dute. Zer bide-mota den edo zer espazio publiko den adierazten du generikoak (*kalea, plaza, aldapa, hiribidea...*); espezifikoa, berriz, bide edo espazio publikoa identifikatzen du, eta era askotakoa izan daiteke eta hitz batez edo gehiagoz osatua egon. Askotan, pertsona, leku edo erakunde baten izena izaten da.

Tolosa hiribidea, Europa kalea, Fleming kalea, Juana Gartzia Orkoien Doktore Andrearen plaza, San Frantzisko kalea, Santa Katalina bidea, Constant Colbert Medikuaren karrika, Barañaingo ingurabidea, Salbeko zubia, Amarako tunela, Bizkaia zubia, Donejakue bidea.

Dena dela, bestelakoa ere izan daiteke. Adibidez:

Musika plaza, Arrantzale kalea, Martxoaren Hirua plaza, Konstituzio kalea.

Eta atal espezifikoa eta generikoa bat eginik ere ager daitezke: Barrenkalea, Artekalea.

Atal generikoa letra xehez idazten da atal espezifikoaren ondoren dagoenean.

Oriamendi **p**asealekua, Floquet **p**laza, Elizako **k**arrika, Mendixka **k**arrika itsua, Antonio Epaltza **k**alea, Orkoiengo **e**rrepide zaharra, Beheitiko **k**arrika, Bolborategiko **b**idea.

Atal espezifikoa osatzen duten hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idazten dira, izen arruntak badira ere.

Fleming **M**edikuaren kalea, **E**lhuyar **A**naien kalea, **T**ernuako **A**rrantzaleen kalea, **M**aiatzaren **L**ehena etorbidea, **L**izarrako **M**arkesaren kalea, **B**iltzar **N**agusien kalea, **A**zaroaren **H**ogeita **B**osta pasealekua, **M**artxoaren **H**irua plaza, **A**lbert eta **E**mile **D**otézac karrika, **D**eba **I**baiaren kalea, **O**rhi **M**endiaren zeharkalea, **A**girre **L**ehendakariaren plaza.

OHARRA

Deba ibaia eta Orhi mendia leku-izenetan, ibaia eta mendi dira generikoak eta, horregatik, letra xehez idazten dira; beste hainbeste Agirre lehendakaria adibidearen kasuan: lehendakari hitza letra xehez idazten da. Deba Ibaiaren kalea, Orhi Mendiaren zeharkalea eta Agirre Lehendakariaren plaza leku-izenetan, berriz, kale, zeharkalea eta plaza dira generikoak, eta ibai, mendi eta lehendakari hitzak atal espezifikoaren parte dira; horregatik, letra larriz hasita idazten dira.

Atal generikoa atal espezifikoaren aurretik idazten denean, *izena + izenondoa* egiturarekin, bi atalak bereizezinak dira, eta letra larriz hasita idazten dira biak.

Kale Nagusia, **P**laza **B**iribila, **K**ale **L**aburra, **Z**eharkale **B**erria, **K**ale **T**xikerra.

Eta atal espezifikoa ordinal bat denean, atal generikoa ere letra larriz hasita idazten da.

Bosgarren **E**torbidea, **Z**azpigarren **E**torbidea (New Yorkekoak).

Herriarteko bide eta errepideetan ere, letra xehez idazten da generikoa.

Frantziako 618 **e**rrepide nazionala Atlantikotik Mediterraneora doa, eta Pirinioetako **e**rrepidea esaten zitzaion.

Mendabiako **i**ngurabidea, Txorierriko **k**orridorea, Leitzarango **a**utobia, AP-8 **a**utobidea, Kantauriko **a**utobidea, N-634 **e**rrepide nazionala, A63 **a**utobidea.

Kanpoko kale-izenak eta gainerako odonimoak euskaratzen ez direnean, jatorrizko hizkuntzan bezala idatzi behar dira letra larriak.

New Yorkeko Wall Street, Central Park eta Times Square, Madrilgo plaza Mayor, Londresko Downing Street eta Berlingo Alexanderplatz eta Friedrichstraße, Parisko rue du Chat Qui Pêche.

2.3.1.13 Merkataritza-bideak, bide historikoak, altxonbideak

Garrantzi historikoa edo kulturala izan duten eta ibilbide jakin bat duten bideen atal espezifikoak letra larriz hasita idazten da, atal hori osatzen duten izenak izen bereziak zein arruntak izan.

Donejakue bidea, Zetaren bidea, Gatzaren bidea, Anbararen bidea, Erronkariarren altxonbidea.

Erromatar Inperioaren garaiko galtzadak latinez izendatzen direnean, bi atalak letra larriz hasita idatzi ohi dira.

Antzinateko galtzada nagusietako bat zen **Via Appia**.

Via Aemilia, Via Julia Augusta, Via Augusta, Via Flavia.

2.3.1.14 Monumentuak eta eraikinak

Eraikuntza-lanak —monumentuak, eraikinak, eraikin-zatiak, ingeniari-tza-erakuntzak (aireportuak, geltokiak...)— eta, oro har, izaera monumentaleko arkitektura-multzoak eta elementuak beren izenez aipatzeko erabiltzen diren izendapenek bi atal izan ohi dituzte: generiko bat, izen arrunt bat izan ohi dena (*katedrala, antzokia, dorrea, jauregia, zubia, plaza...*), eta espezifiko bat, izen generiko hori bere espezieko gainerakoetatik bereizten duena.

Atal espezifiko hori zenbait motatakoa izan daiteke:

Gehienetan, izen berezi bat izaten da, hala nola leku-izen bat (Loiu, Londres, Florentzia...) pertsona-izen bat (Eiffel, Done Petri, Karakala...), erakunde-izen bat (Nazio Batuak, Petronas...) edo izen berezizat hartzekoa den izendapen bat (Jesusen Bihotza, Familia Santua...).

Atal espezifikoak letra larriz hasita eta atal generikoa letra xehez hasita idazten dira:

Loiuko aireportua, Londresko dorrea, Florentziako katedrala, Atenasko akropolia, Hadrianoren harresia, Alexandriako biblioteka, Abu Simbelgo tenpluak, Sevillako alkazarra, Kordobako meskita, Mont-Saint-Michelgo

abadia, Versaillesko jauregia, Laterango jauregia, Pisako dorrea, Louvreko kolomadia, Balmoral gaztelua, Schönbrunn jauregia, Sydneyko opera, Lehoien patioa, Natibitatearen basilika, Ixtarren atea, Keopsen piramidea.

Eiffel dorrea, Done Petri(ren) basilika, Karakalaren termak, Herkulesen dorrea, Konstantinoren arkua, Paris-Charles de Gaulle aireportua, Paris-Austerlitz geltokia, Barberini jauregia, Selimen meskita, San Joan(en) bataiotegia, San Karlos Borromeo(ren) eliza, Louvre jauregia.

Nazio Batuen egoitza, Petronas dorreak, Fagus fabrika, Chrysler eraikina, Parisko garaipen-arkua, Parisko Notre-Dame katedrala.

Jesusen Bihotzaren basilika, Familia Santuaren basilika.

Atal espezifikoak, batzuetan, badu adjektiboren bat izen berezia kalifikatzen duena.

Adjektibo hori ere letra larriz hasita idazten da:

San Apolinar Berriaren basilika, Done Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika, Andre Maria Nagusiaren basilika.

Ohartzekoa da atal espezifikoak izen generikoaz gainera adjektiboren bat duenean eraikuntzaren izendapen espezifiko bihurtzen dela, eta, horregatik, letra larriz hasita idazten dela: Kordobako meskita, baina Mekako Meskita Handia; Txinako Harresi Handia.

Zenbaitetan, atal espezifikoa izen arrunt bat da, baina izen horrek izen generikoa bere espezieko gainerakoetatik bereizteko balio duenez, izen bereziaren balioa hartzen du, eta letra larriz hasita idazten da:

Natibitatearen basilika, Arrokaaren kupula, Xaharen meskita, Dukearen jauregia, Aita Santuen jauregia, Zetaren lonja, Inozenteen ospitalea, Askatasunaren estatua, Erlojuaren dorrea, Lehoien patioa.

Kasu horietako batzuetan, atal espezifikoak, izenaz gainera, beste osagaien bat ere izaten du, hala nola adjektiboren bat edo zenbatzaileren bat. Osagai horiek ere letra larriz hasita idazten dira, atal espezifikoaren parte baitira:

Jerusalemgo Gurutze Santuaren basilika, Hilobi Santuaren eliza, Maisu Handiaren jauregia, Hamalau Santuen basilika, Apirilaren 25eko zubia / Apirilaren Hogeitabosteko zubia.

Eta atal espezifikoa atal generikoaren izen bera denean, generikoa desagertu ohi da (halakoetan, izen hori adjektibo batez lagunduta egoten da):

Meskita Urdina, Dorre Bikiak, Etxe Zuria (eta ez **Meskita Urdina meskita, Dorre Bikiak dorreak, Etxe Zuria etxea**), **Kapera Palatinoa, Biblioteka Laurentzianoa, (Txinako) Harresi Handia, Piramide Makurra.**

Zenbaitetan, eraikina erakunde baten egoitza da, eta, metonimiaz, izen bera erabiltzen da biak izendatzeko, eraikina eta erakundea. Halakoetan, generikoa ere letra larriz hasita idaztea da ohikoena.

Guggenheim Bilbao Museoa; Britainiar Museoa (edo **British Museum**); **Artium Museoa; Zumalakarregi Museoa; San Telmo Museoaren katalogoa; Armagintzaren Museoaren funtsak.**

Nolanahi ere, eraikina soilik adierazi nahi izanez gero, letra xehez hasita idatz daiteke.

Guggenheim **m**useoaren sarrera nagusia.

Arkitektura-lanaren izendapena itzultzen ez denean, ohikoa da jatorrizko izendapenaren hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idaztea:

Sevillako **Torre del Oro** dorrea; Erromako **San Carlo alle Quattro Fontane** eliza; Saint Louis hiriko **Gateway Arch** monumentua.

Erabilera antonomasikoan, desagertu egiten da atal espezifikoa eta generikoa besterik ez da erabiltzen. Orduan, generikoa letra larriz hasita idazten da. Adibidez, kapitolio hitz arruntaren erabilera antonomasikoan, Estatu Batuetako kapitolioa ulertzen da, Washingtonen dagoen hura, eta **Kapitolioa** bakarrik idazten da, letra larriz hasita, aurretik Estatu Batuetako jarri gabe. Edo, Erromako testuinguruan, Agriparen panteoia osorik adierazi beharrean, **Panteoia** idazten da.

Eraikinen barnean izen berezia duten egoitza eta guneen kasuan ere berdin jokatzen da; hau da, generikoa letra xehez hasita idazten da:

Arabiar **aretoa** (Bilboko udaletxean), Lehoien **patioa** (Alhambran), Ispiluen **galeria** (Versaillesko jauregian).

Egitura *izena + izenondoa* denean, biak letra larriz hasita idazten dira:

Bulego Obala (Etxe Zurian), **Kapera Sistinoa** (Vatikanoko jauregian), **Kapera Palatinoa** (Akisgrango katedralean).

2.3.1.15 Puntu kardinalak

Letra larriz hasita idazten dira puntu kardinalen eta interkardinalen izenak baldin eta leku-izen baten parte badira, hau da, eskualde bat, estatu edo lurralde bat, kontinente-zati bat edo Lurra planetaren zati bat, mendi, itsaso edo dena delako errealitate geografikoa adierazteaz gainera errealitate geopolitiko edo historiko jakin bat adierazten badute:

Hego Amerika, Ipar Amerika, Ipar Europa, Hego Europa, Ekialdeko Europa, Mendebaldeko Europa.

Ipar poloa, Hego hemisferioa.

Ipar Euskal Herria, Hego Euskal Herria, Hego Uribe eskualdea; Ekialde Handia (Frantziako eskualdea), **Ipar-mendebaldeko Lurraldeak** (Kanadako lurralde federal bat).

Ipar Irlanda, Mendebaldeko Samoa, Ipar Korea, Hego Sudan, Hego-mendebaldeko Afrika Alemana (toponimia historikoa), **Ipar Afrika Italiarra** (toponimia historikoa).

Ekialde Hurbila, Ekialde Urruna, Mendebaldeko zibilizazioa, Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko harremanak, Ipar-Hego elkarrizketa.

Ipar Atlantikoa, Hego Atlantikoa, Ipar Pazifikoa, Hego Pazifikoa, Hego Atlantikoko itsaslasterra, Ekialdeko Australiako itsaslasterra.

Ipar itsasoa, Ipar lurmuturra, Ipar uhartea, Hego Patagoniako izotz(-)zelaia, Hego Txinako itsasoa, Ekialdeko Sierra Madre, Mendebaldeko Erg Handia.

Leku-izen baten parte ez direnean edo esanahi politiko, sozial edo ekonomikoa ez dutenean, esanahi generikoa dute: orientazioa edo norabidea, iparrorratzaren posizioa edo posizio erlatibo bat adierazten dute, eta letra xehez idazten dira:

Non dago **ipar** geografikoa?

Uhartea **iparraldetik hegoaldera** zeharkatzen du galtzadak.

Leihoak **ekialdera** ematen du.

Mauletik 12 km **iparralderantz**.

Eurasiak **ekialde-mendebalde** ardatz bati jarraitzen dio.

Europako **hegoaldean** nabarmenagoa da lehortea **iparraldean** baino.

Bardea Nafarroako **hegoaldean** dago.

Eguzkia **mendebaldetik** sartzen da.

Gaur **hego(-)haizea** dabil.

Hiriaren **mendebaldean** gertatu zen ezbeharra.

Ebrotik **hegoaldera** dauden herriak

Zarauzko **hego-ekialdea** etxez betetzen ari da.

Europako **ekialdea**

AEBko **mendebaldeko** kostaldea.

Puntu kardinalen eta interkardinalen nazioarteko sinboloak letra larriz idazten dira beti:

N (iparra), S (hegoa), E (ekialdea), W (mendebaldea), NE (ipar-ekialdea),
NO (ipar-mendebaldea)...

2.3.1.16 Lurburu edo poloak eta hemisferioak

Lurraren eskualde geografikoak dira Ipar poloa edo Iparburua eta Hego poloa edo Hegoburua, hau da, leku-izenak dira, eta atal espezifikoa (**Ipar**, **Hego**) letra larriz hasita idazten da, eta generikoa (**p**oloa) letra xehez.

Beste hainbeste hemisferioei dagokienez. Ekuatoreak bereizten dituen lurbira-globoaren bi erdietako bakoitza leku-izen bat da, makrotoponimo bat. Atal espezifikoa (**Ipar**, **Hego**) letra larriz hasita idazten da, eta generikoa (**h**emisferioa) letra xehez: **Ipar hemisferioa**, **Hego hemisferioa**. Bestalde, Greenwich-eko meridioak bereizten dituen lurbira-globoaren bi erdietako bakoitza ere leku-izen bat da, eta haien atal espezifikoa ere letra larriz hasita idazten da: **Ekialdeko hemisferioa**, **Mendebaldeko hemisferioa**.

OHARRA

Batzuetan, *boreal* eta *austral* adjektiboak erabiltzen dira Ipar poloari edo haren ingurukoari dagokiona eta Hego poloari edo haren ingurukoari dagokiona

adierazteko, hurrenez hurren, eta, hedaduraz, hemisferioak kalifikatzeko. Adjektibo bidez osatzen diren izendapen sinonimoak letra xehez idazten dira:

Ipar hemisferioari hemisferio boreal edo hemisferio kontinental esaten zaio; Hego hemisferioari hemisferio austral edo hemisferio ozeanikoa esaten zaio.

2.3.1.17 Irudizko lerroak

Lurbirako zein zeru-esferako irudizko lerroen izenak letra xehez hasita idazten dira:

Planeta gehienek orbitak **ekliptikan** daude.

Zeru(-)esferako bi puntutan ebakitzen dute elkar **ekliptikak** eta zeru(-)ekuatoreak, eta bi puntu horiei ekinokzio deritze.

Greenwich-eko **meridianoa**.

Iparaldeko 38. **paraleloa** Koreako penintsularen erdialdetik igarotzen da.

Bost **paralelo** nagusi daude: **ekuatorea**, Kantzer **tropikoa**, Kaprikornio **tropikoa**, zirkulu **polar artikoa** eta zirkulu **polar antartikoa**.

OHARRA

Nahiz eta *zirkulu polar artiko* letra xehez idatzi, irudizko lerroa baita, zirkulu horretatik iparraldera dagoen eskualdearen izena **Artikoa** da, letra larriz hasita, leku-izena delako.

Leku-izen baten atal espezifikoaren parte denean, letra larriz hasita: Ekuatore Ginea.

2.3.1.18 Astroen izenak: planetak, sateliteak, izarrak, konstelazioak eta era guztietako astro-elkarteak¹²

Letra larriz hasita idazten dira zeruko gorputzen izenen atal espezifikoak.

Zein dago **Eguzkitik** gertuago, **Merkurio** ala **Artizarra**?

Bi satelite ditu **Martek**: **Deimos** eta **Fobos**. Satelite bakarra du **Lurrak**: **Ilargia**.

Zenbait satelite ditu **Pluton** planeta nanoak, baina ezagunena **Karon** da.

¹² Euskaltzaindiaren 173. arauak (*Astroen izenak*) astro-mota guztiak izendatzeko irizpideak eta astro nagusien zerrendak ematen ditu: planeta eta planeta nanoak, sateliteak, izarrak eta konstelazioak, nebulosak eta galaxiak, asteroideak, kometak, izar iheskorak eta eguzki-sistemako beste objektu-multzo batzuk.

Lurretik ikusita, **Sirius** da, **Eguzkiaren** ondoren, ortziko izarrik distiratsuenak. Bayer izendapenean, **Siriusen** izena **Alfa Canis Majoris** da.

Ipar hemisferioko konstelaziorik ezagunenak **Hartz Handia** eta **Hartz Txikia** dira.

Zodiakoko hamabi konstelazioetako bat **Taurus** edo **Zezena** da.

Hartz Txikia konstelazioko izarrik distiratsuenak **Iparrizarra** da; haren nazioarteko izena **Polaris** da.

Orion konstelazioko hiru izar distiratsuren lerroari **Orionen Gerrickoa** edo **Hiru Izarrak** deritzo.

Gure planeta dagoen galaxiari **Esne Bidea** deritzo.

Magallaesen Hodei Txikia, **Andromeda** galaxia, **Lauki Gorriaren** nebulosa.

Shoemaker-Levy 9 kometa eta **Halley** kometa.

Izar iheskorretan, ezagunenak **Pertseidak** eta **Leonidak** dira.

Neptunoz haraindiko objektuak dira **Kuiper** gerrickoa eta **Oort** hodeia.

Bestalde, *unibertso* eta *galaxia* hitzak eta *eguzki-sistema* terminoa letra xehez idazten dira. Uler liteke ezen, *galaxia*, *unibertso* eta *eguzki-sistema* aipatzen direnean gure galaxiari, gure unibertsoari eta gure eguzki-sistemari erreferentzia egiteko, errealitate bakar bat adierazten ari direla eta hasierako letra larriz idatz litezkeela beste galaxia, unibertso eta eguzki-sistemetatik bereizteko —modu antonomasikoan, nolabait—, baina bereizketa hori ez da ohikoa.

Eguzkia, **Ilargia** eta **Lurra** letra larriz hasita idazten dira astronomiako eta astrofisikako testuetan.

Lurraren inguruan biratzen da **Ilargia**.

Merkurio eta **Artizarra** **Eguzkitik** hurbilago daude **Lurra** baino.

Lur planetaren batez besteko dentsitatea $5,57 \text{ g/cm}^3$ da.

Testuinguru horretatik kanpo, letra xehez idazten dira, bai eta haiei lotutako fenomenoak adierazteko ere.

Goiz hartan, **eguzki** ederra zegoen.

Ez egon luze **eguzkitan**, erre egingo zara eta!

Gogotik jotzen du gaur **eguzkiak**.

Eta **ilargi berritik ilargi betera** doan 14 eguneko aldiari ilgora deritzo.

Etzi **ilargi berri** izango da.

Jupiterren **ilargiek** haren inguruan orbitatzen dute.

Hau da **ilbehera: ilargi betetik ilargi berrira** doan 14 eguneko aldia.

Bihar **ilargi(-)eklipsea** izango da, eta abenduan **eguzki(-)eklipse partziala**.

ilargi(-)urtea, ilargi(-)izpiak, ilargi(-)erdi, eguzki(-)urtea, eguzki(-)energia, ilargi(-)faseak.

Lur hitza, gainerako adieretan, letra xehez idazten da, jakina:

Gure arbasoen **lurra**. Oso **lur** emankorra. Hegazkinak hondartzan **lur** hartu zuen.

OHARRAK

1) **Zodiakoa**

Bada zero-esferan irudizko eskualde bat *zodiako* deritzona. Banda zirkular bat da, ekliptikarekiko paraleloa, hamabi konstelazio nagusiak barne hartzen dituen; haietatik igarotzen da Eguzkia, itxuraz, urtean zehar. Konstelazio horiek — konstelazio guztiak bezala— letra larriz hasita idazten dira, eta pentsa liteke haiek guztiak barne hartzen dituen zero-eskualdea ere hala idaztekoa dela. Alabaina, irudizko eskualdea denez gero, ez da beharrezkoa letra larriz hasita idaztea, eta, *ekliptika* irudizko lerroa bezala, letra xehez idazten da.

2) **Iparrizarra**

Astronomian, izar polarra da astro baten errotazio-ardatzarekin gutxi gorabehera lerrokatuta dagoen izar aski distiratsu bat. Izar polarra, beraz, gure hemisferioan, zeruko Ipar polotik gertuen dagoen izarrari deritzo. Gaur egun, eta azken mila urtean, gertuen dagoena Polaris da (Alfa Ursae Minoris); horregatik, *Iparrizarra* deritzo, eta letra larriz hasita idazten da. Hemendik mila eta bostehun urtera, gutxi gorabehera, izar hori jada ez da izar polarra izango, Lurraren ardatza ez baita finkoa, eta orduan ez da egokia izango hari *Iparrizarra* deitzea. Argudia liteke, beraz, *Iparrizarra* ez dela inongo izarren berariazko izena eta, horrenbestez, letra xehez idatzi behar

litzatekeela, baina gure denbora-eskalan logikoa da izen berezizat hartzea eta letra larriz hasita idaztea.

2.3.2 Pertsona-izenak

Pertsonen izen bereziei *antroponimo* deritze. Pertsonen izen osoak, gure kultura-ingurunean, bi osagai nagusi izaten ditu: *izena* eta *abizena* (edo abizenak). Bi horiek pertsonaren izen-abizenak edo izen-deiturak dira.

Izena —edo ponte-izena— familia bereko gainerako pertsonetatik bereizteko baliatzen da, eta abizenaren aurretik erabiltzen da gure kultura-ingurunean. Letra larriz hasita idazten da beti.

Ane, Ander, Saroi, Blanca, Roberto, Céline, Jon, Idoia, Karmele, Jakes.

Izenak bakunak (Ane, Aitor, Miren, Joan, Manuela) edo konposatuak izan daitezke (bikunak dira gehienetan, baina osagai gehiago ere izan ditzakete: Miren Agurne, José Antonio, Ane Miren, Jean-Baptiste, Marie-Andrée, Ann-Margret, John Maynard; Elizabeth Alexandra Mary, Juan Carlos Alfonso Víctor María) eta izenaren osagai guztiak letra larriz hasita idazten dira.

Abizena —edo deitura— familia-izena da. Abizenak letra larriz hasita idazten dira.

Agirre, Zurututza, Pérez, Puyol, Casenave, Thatcher, Schwarzenegger.

Baita bi osagai izanda marratxoz lotuta idazten direnak ere:

Hiriart-Urruti, Aldekoa-Otalora, Uribe-Etxebarria.

OHARRA

Bi osagai dituzten abizen batzuek bi aldaera dituzte: marratxoz idatziak edo loturik idatziak. Loturik idazten direnean, lehen letra bakarrik idazten da larriz. Adibidez, Uribe-Etxebarria edo Uribeetxebearria, Aldekoa-Otalora edo Aldekoaotalora.

Beraz, pertsonen izenak zein abizenak letra larriz hasita idazten dira beti.

Dolores Ibarruri, Koldo Mitxelena, Rafaela Ibarra, Albert Einstein, Katalina Erauso, Marie Skłodowska, Barack Obama, Justin Pierre James Trudeau.

Pertsonak izendatzeko, esanahi lexikoa duten osagaiak (izen arruntak eta adjektiboak) erabiltzen dira beste kultura eta hizkuntza batzuetan. Antroponimo horiek, itzultzen

direnean, letra larriz hasita idazten dira. Halakoak dira amerindiar izen batzuk. Adibidez, Ipar Amerikako tribuetako buruzagien izenak:

Hodei Gorri (jatorrizko izena: Maḥpíya Lúta)

Zaldi Ero (jatorrizko izena: Tḥašúŋke Witkó)

Zezen Eseri (jatorrizko izena: Tḥaṭḥáŋka Íyotake)

2.3.2.1 Erdal abizen konposatuak

Abizen konposatuetan, *de* preposizioa letra xehez idazten da.

Martínez de Madina, González de Viñaspre, Ortiz de Urbina, López de Zubiria.

2.3.2.2 Preposizio batez hasten diren erdal abizenak

Erdal deituretako preposizioak letra xehez idatzi ohi dira zenbait hizkuntzatan abizena izenaren ondoren idazten denean (adibidez, gaztelaniazko *de, del*, frantsesezko *de, d'*, portugesezko *do, da, dos, das* edo katalanezko *de, d'*; bai eta alemanezko *von* eta *zur*, nederlandezko *van* eta haien aurrean doan *der* artikulua ere); beste batzuetan, berriz, ez (adibidez, italierazko *De, D', Da, Della*). Euskarazko testuetan txertatzean, jatorrizko idazmoldeari eutsi behar zaio.

Iñaki de la Fuente, Andrés del Castillo, Juan Ponce de León, Cristina de Miguel, Bartolomé de las Casas, Juan de los Santos; Simone de Beauvoir, Jean d'Alembert, Louis de Broglie, Charles de Gaulle, Pierre de Coubertin; Eugeni d'Ors, Salvador de Brocà; José Maria Eça de Queirós, Luiz Inácio Lula da Silva, Edson Arantes do Nascimento, Mauro dos Santos; Otto von Bismarck, Ursula von der Leyen, Wernher von Braun, Otto zur Linde, Karl von der Groeben, Ludwig van Beethoven, Anna Maria van Schurman; Vincent van Gogh, Jan van Eyck; Gabriele D'Annunzio, Manuela Di Centa, Vittorio De Sica, Luca Della Robbia.

Abizena bakarrik erabiltzen denean, aurrean izena ez duela, preposizioak letra larriz hasita idazten dira hizkuntza batzuetan (adibidez, gaztelaniaz, frantsesez, alemanez, nederlandez), baina ez guztietan (katalanez, adibidez, ez). Euskarazko testuetan txertatzean, jatorrizko idazmolde horri eutsi behar zaio.

De Gaulle jenerala (Charles de Gaulle), D'Alembert frantses matematikaria (Jean d'Alembert), De Broglie frantses fisikaria (Louis de Broglie); De Miguel

espainiar pintorea (Jesús de Miguel), De la Iglesia zinemagilea (Álex de la Iglesia), Van Gogh margolaria (Vincent van Gogh), Von Braun ingeniaria (Wernher von Braun), Van Schurman nederlandar idazlea (Anna Maria van Schurman), Van Eyck flandriar margolaria (Jan van Eyck); d'Ors idazle eta filosofo katalana (Eugeni d'Ors i Rovira).

OHARRA

Dena dela, deitura batzuetan letra larriak beste era batera erabiltzen dira, deituraren jatorria edozein dela ere, baldin eta deitura beste herrialde batekoa bada. Estatu Batuetan, adibidez, ohikoa da *de* horiek letra larriz hasita idaztea beti, bai eta, zenbaitetan, loturik idaztea ere:

Gerhard Louis De Geer, Augustus De Morgan, Robert De Niro, Leonardo DiCaprio, Danny DeVito, Brian De Palma.

Gaztelaniaz, deitura batzuek duten artikulua letra larriz hasita idazten da aurrean *de* ez badu (Andrés La Plana, La Orden andrea). Frantsesez, berriz, abizenak artikulua badu, letra larriz hasita idazten da beti, baita aurrean *de* duenean ere, aurrean izena izan zein ez izan (Jean de La Fontaine, Marine Le Pen, Jean-Bernard Le Blanc, Jean-Marie Robert de La Mennais, Marie La Borde).

Gaztelaniaz (batez ere, lehen deitura ponte-izenarekin nahasteko arriskua dagoenean) eta katalanez (deitura hori duen pertsonaren borondatearen arabera), lehen eta bigarren deituraren artean *y* (gaztelaniaz) edo *i* (katalanez) idazten da batzuetan, letra xehez beti:

Ramon Aramon i Serra, Francesc Ferrer i Guàrdia, Pau Riba i Romeva, Santiago Ramón y Cajal, José María Gabriel y Galán, Francisco Tomás y Valiente.

Kanpoko pertsonen deituren grafia egokitzen ez denean —eta hori da ohiko kasua—, letra larrien erabileran ere jatorrizko grafia baliatuko da euskaraz.

2.3.2.3 Hipokoristikoak

Hipokoristikoak izenaren aldaerak dira, txikigarriak (Bakartxo, Kaxiano, Malentxo, Perutxo, Bixenta, Annette) edo forma laburtuak (Arantzazu → Arantxa; Frantzisko → Patxi; Estibaliz → Estitxu; Antonio → Antton; Joanes → Manex;

Sophie → Fifi; José → Pepe; Théophile/Théodore → Théo; Dorothy → Dot; Enrique → Quique; Robert → Bob; Edward → Eddy; Victory → Vicky), eta izenaren ordeaz erabiltzen dira txerazko edo lagunarteko izendapen gisa. Letra larriz hasita idazten dira.

2.3.2.4 Izengoitiak, izenordeak, izen artistikoak eta kidekoak

Norbait izendatzeko ponte- eta familia-izenen ordeaz erabiltzen den izendapena da izengoitia. Beste norbaitek jarria izaten da ia beti, ez nork bere buruari jarria. Deskribatzailea izan ohi da, pertsonaren edo familiaren ezaugarriaren edo gorabeheraren batean oinarritua. Izenordea, berriz, idazlan bat edo artelan bat izenpetzean egileak bere egiazko izena ezkutatzeko erabiltzen duen izena da (adibidez, Bernardo Atxaga izena Jose Irazu euskal idazlearen izenordea da, eta George Eliot izena Mary Ann Evans ingeles idazlearen izenordea zen). Izen artistikoa, bestalde, izenorde-mota bat da, artistek —batez ere, kantari, musikari eta aktoreek— erabiltzen dutena beren benetako izena gordetzearren, ideia bat adieraztearren edo iradokitzearren, edo uste dutelako beren benetako izena ez dela erakargarria (adibidez, Anari da Ana Rita Alberdi euskal kantariaren izen artistikoa, Cantinflas zen Mario Moreno mexikar aktorearena eta Marilyn Monroe zen Norma Jeane Mortenson estatubatuar aktoreak baliatu zuena). Klandestinitaterako edo gerra edo iraultzarako ere erabiltzen dira izenordeak (Pepita Etxano zen Bittori Etxeberria nafar antifrankistaren izenordea, Carlos zen Ilich Ramírez Sánchezen venezuelar gerrillariarena edo Leon Trotski zen Lev Davidovitx Bronstein errusiar iraultzaile komunistarena).

Izengoitiak benetako izenarekin batera erabil daitezke, hari atxikiak (*Mari Pipermin*, *Jose Txiki*, *Simon Beltza*); gehienetan, ordeaz, benetako izenaren ordeaz erabiltzen dira. Izenordeak, berriz, benetako izenaren ordeaz erabiltzen dira ia beti, hori baita haien zeregina. Izengoitiak zein izenordeak letra larriz hasita idazten dira hitz nagusi guztietan.

Izengoiti eta izenordeak izen-deiturekin batera erabiltzen direnean, letra etzanez —edo komatxo artean— idazten dira, benetako izenaren parte ez direla agerian uztearren.

Adibideak:

Jose Manuel Lujanbio *Txirritaren* bertsoak [edo «Txirrita»ren]

Dolores Ibarruri *Pasionaria* politikari eta ekintzailea [edo «Pasionaria»]

Ignazia Zabalo *Nornai* marrazkilaria [edo «Nornai»]

Jose Manuel Ibar *Urtainek* irabazitako apustua [edo «Urtain»ek]

Indalezio Bizkarrondo *Bilintx* bertsolaria [edo «Bilintx»]

Kaio Zesar Augusto Germaniko *Kaligula* erromatar enperadorea [edo «Kaligula»]

Mario Moreno *Cantinflas* filmak [edo «Cantinflas»en]

Margaret Thatcher *Burdinazko Damaren* agintaldia [edo «Burdinazko Dama»ren]

Pedro Jose Elizegi *Pello Errota* bertsolaria [edo «Pello Errota»]

Benetako izenaren ondoren eta koma artean idazten denean ere letra larriz hasita idazten da (orduan ez da beharrezkoa letra etzana, garbi baitago zer den benetako izena eta zer ez).

Margaret Thatcher, Burdinazko Dama

José Gabriel Condorcanqui, Túpac Amaru

Dolores Ibarruri, Pasionaria

Joana Arc-ekoa, Orléansko Dontzeila

Pedro Jose Elizegi, Pello Errota

Ignazia Zabalo, Nornai

Migel Joakin Eleizegi, Alzoko Handia

Eduardo Woodstock-ekoa, Printze Beltza

Bakarrik erabiltzen direnean ere, benetako izenik gabe, letra larriz hasita idazten dira, benetako izena ordeztan ari baitira.

Pello Errotaren bertsoak

Burdinazko Damaren gizarte(-)politika

Bilintxen antologia

Printze Beltzaren ezpata

Bada epiteto-mota bat ia beti benetako ponte-izenari lotua erabiltzen dena, benetako izena ordeztzen ez duena, kalifikatzailea baita. Epiteto hori ere letra larriz hasita idazten da, letra arruntez.

Katalina Handia, Antso Azkarra, Elisabet Katolikoa, Frederiko Bizargorria, Henrike Txori-ehiztaria, Joan Beldurgabea, Joana Eroa, Rikardo Lehoibihotza, Joan Ebanjelaria.

Errege-erregina Katolikoak (Gaztelako Elisabet I.a eta Aragoiko Fernando II.a)

Eguzki Erregea (Frantziako Luis XIV.a)

Izenordeak, izen artistikoak eta kidekoak ere letra larriz hasita idazten dira.

Bernardo Atxaga (jatorrizko izena: Jose Irazu)

Rubén Darío (jatorrizko izena: Félix Rubén García Sarmiento)

Alcofribas Nasier (jatorrizko izena: François Rabelais)

Ellis Bell (jatorrizko izena: Emily Jane Brontë)

Leon Trotski (jatorrizko izena: Lev Davidovitx Bronstein)

Marilyn Monroe (jatorrizko izena: Norma Jeane Mortenson)

Cary Grant (jatorrizko izena: Archibald Alexander Leach)

Lady Gaga (jatorrizko izena: Stefani Joanne Angelina Germanotta)

2.3.2.5 Pertsona-izenak dituzten zientzia eta teknologiako terminoak

Zientzia eta teknologiako terminoen barnean dauden pertsona-izenak letra larriz hasita idazten dira.

Arkimedesen printzipioa, Bohr-en¹³ eredua, Carnoten zikloa, Crohnen gaixotasuna, Coriolis azelerazioa, Downen sindromea, Drakeren ekuazioa, Gay-Lussacen legea, Joule efektua, Ohmen legea, Pitagorasen teorema, Van der Waalsen indarrak.

¹³ Ikus marratxoaren erabilerari buruzko azalpena ortografia-marken atalean.

Pertsonen izenetatik eratorritako mineralak, partikulak edo bestelako elementuak ez dira letra larriz hasita idazten, izen arruntak baitira.

abramovita, bunsenita, mendelevioa, rutherfordioa, bosioa, fermioia.

Neurri-unitateen izen askoren jatorria zientzialarien izen bereziak dira, baina neurri-unitateak izen arruntak dira; beraz, letra xehez hasita idazten dira.

Indarraren unitateari *newton* deritza Isaac Newton fisikariaren omenez, eta potentziaren unitateari *watt* deritza James Watt asmatzailearen omenez.

OHARRA

Pertsona-izenetatik eratorritako unitateen nazioarteko sinboloak, berriz, letra larriz hasita idazten dira.

newtona (sinboloa: N), watta (sinboloa: W), pascala (Pa)

Sindrome edo gaixotasun baten izendapenaren parte diren izen bereziak letra larriz hasita idazten dira:

Alzheimerren gaixotasuna

Parkinsonen gaixotasuna

Aspergerren sindromea

Alabaina, izen berezi horiek, beste ezer gabe, gaixotasuna edo sindromea izendatzeko erabiltzen direnean, lexikalizatutzat hartzen dira. Orduan, letra xehez idazten dira, gainerako gaixotasunak bezala:

Plagizidek eragindako parkinsona nekazaritzako gaixotasun profesionaltzat hartzen da.

Zer gertatzen da alzhemerra duen pertsona baten garunean?

Ez da erraza azaltzea zer den aspergerra izatea.

2.3.2.6 Artistaren izena artelana izendatzeko erabiltzea

Ohikoa eta zuzena da, artelan bat izendatzeko, artistaren izena (ia beti abizena) erabiltzea. Hau da, egilearen izenaren bidez adierazten dira, modu aski generikoan, haren obrak. Obrak objektuak dira, izen arruntak; hala ere, kasu horietan letra larriz hasita idatzi ohi da.

Museoan zeuden Monet guztiak kendu dituzte.

Soinean Balenciaga gorri bat zeramala sartu zen ate nagusitik.

Alkatearen bulegoan Renoir bat zegoen.

Museoko gela nagusian daude Picassoak eta aldamenekoan Kandinskyak.

2.3.3 Erlijio, mitologia eta fikzioaren arloetako izaki eta gizakien izen bereziak

2.3.3.1 *Jainko* hitza

a) Noiz da izen berezia *jainko* hitza?

Erlijio monoteistetan —eta, hedaduraz, erlijio monoteistak nagusi diren edo izan diren herrialde eta hizkuntzetan—, izaki gorena adierazteko erabiltzen da *jainko* hitza, modu antonomasikoan. Horregatik, letra larriz hasita idazten da, jainko jakin bat adierazten baitu.

Sei egunean sortu zuen Jainkoak mundua.

Gure Jainkoak begiratuko du guregatik.

Hobendun zara Jainkoaren aitzinean.

Hona Jainkoaren bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena.

Islamak irakasten du *Jainkoa* errukitsua, ahalguztiduna eta bakarra dela.

Islamaren arabera, Jesus profeta izan zen, Jainkoaren mezularietako bat.

Beste hainbeste jatorri horretatik sortutako esamoldeetan (adibideetan azpimarraturik ageri da esamoldea):

O, ene Jainkoa!

Zaude isilik, Jainkoagatik!

Ez, Jainkoarren, ez horrelakorik!

Zorion betean bizi izan ziren, Jainkoak daki zenbat urtez.

Gertaera zoriontsu hau, Jainkoa lagun, urriaren 15ean izango da.

Ez dira gutxi, Jainkoari eskerrak, horretan ari direnak.

b) Noiz da izen arrunta *jainko* hitza?

Modu generikoan erabiltzen denean:

Ala da jainko bakarra.

Juduen eta kristauen jainkoa bera al da?

Infernuetako jainkoa.

Gerraren jainkoa.

Cánovas zen orduko jainko txikia.

Zeus jainkoa eta Venus jainkosa.

Hire jainko horrek ez din indar handirik.

Erlijio politeistetan, teogoniak jainkoen jaiotza eta jatorria azaltzen du.

Urrezko, harrizko edo zurezko jainkoak zituzten adoratzeko.

Herri anitzetan adoratzeko zuten sua jainkotzat.

2.3.3.2 Jainko-jainkosak, erlijioen arloko izenak eta izen mitologikoak

Erlijio monoteisten zein politeisten arloko jainko-jainkosak eta pertsonaia sakratuak eta mitologiaren arloko jainko-jainkosak, heroiak eta naturaz gaindiko izakiak izendatzeko baliaitzen diren izen bereziak hasierako letra larriz idazten dira.

Ala edo Allah, Buda, Jesu Kristo, Jahveh, Luzifer, Mahoma edo Mahomet, Venus, Zeus, Antigona, Satan, Beeltzebul, Odin, Baal, Anubis, Huitzilopochtli, Manitu, Xiva, Vixnu, Malik, Iblis.

Jainkoaren eta pertsonaia sakratuen adierazpen sinonimoak ere letra larriz hasita idazten dira. Adierazpen antonomasikoak dira, eta *Jainko* hitza ordeztzeko baliaitzen dira:

Ahaguztiduna, Espiritu Santua, Mesias, Aita, Jainko Aita, Jainko Jauna, Jainkoaren Semea, Kristo, Gorena, Jauna, Jaungoikoa, Ama, Probidentzia, Profeta¹⁴.

Hirutasun Santua: Aita, Semea eta Espiritu Santua.

Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Goiz, arrats eta eguerdietan, Ama, goresten zaitugu.

Betikoa den Ahaguztidunak berekin izan ditzala.

Joan Bataiatzaileak Mesiasen egintzen berri izan zuen.

¹⁴ *Profeta* hitzak Mahoma/Mahomet adierazten duenean.

Jaunaren aitzingidari, Gorenaren profeta.

Igandea, Jaunaren eguna.

Agur, Maria, graziaz betea, Jauna da zurekin.

Ikusi dut Jaungoikoa aurpegiz aurpegi.

Oraintxe da Probidentziaren orena.

OHARRA

Jainkoaren adierazpen antonomasiko den *Aita* hitza erabiltzen da kristau-erlijioan gurutzearen seinalea egitean *Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean* esapidean, eta, hortik, *aitaren* lexikalizatu da, eta *aitaren, aitaren batean, aitaren egin, aitarenka* hitz eta esapide arruntak sortu dira, letra xehez idatziak.

OHARRA

Jesus eta *Kristo* hitzak beste adiera batekin lexikalizatu dira, eta, esanahi hori dutenean, letra xehez idazten dira.

Zatozte, eta jesus batean jarriko dizuet gosari goxo bat.

Non kristo ikusten duzu arazoa?

Ematen du kristorena egin duzula, baina gero oso gauza xumea da.

Kontu hau amaitzean, kristorenak entzun beharko dituzue.

Estropezu egin eta ia kristorena hartu nuen.

OHARRA

Erljio-testuetan, begirunea adierazteko, letra larriz hasita idatzi izan dira tradizioan Jainkoari edo Ama Birjinari erreferentzia egiten dioten izenordainak (*Bera, Zu, Hura*), baina izenordainak letra xehez idaztekoak dira, eta kasu horietan ere gaur egun ez lirateke letra larriz hasita idatzi beharko (adibideetan, azpimarraturik ageri dira era horretako izenordainak).

Agur, Maria, graziaz betea, Jauna da zurekin.

Elbarriak ekarri zizkieten, eta berak sendatu zituen.

Jainkoa enekin duk eta haren laguntzarekin garaituko haut.

Jaunaren mendean bizi gara, beraren nahia egin nahi genukeela.

So egin nien besteei, eta izatea zuri zor dizudala ikusi nuen.

Santu izan bedi zure izena. Etor bedi zure erreinua. Egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Pertsonaia sakratu edo mitologikoen irudikapen jakinak direnean, letra larriz hasita idazten dira; adibidez, artelanetan, artelanaren subjektua direnean.

Tizianoren Kristo bat

Afrodita Knidokoa

Venus Milokoa

Objektu generiko bat adierazten dutenean, letra xehez idazten dira:

XI. mendeko ama birjina erromaniko bat.

Brontzezko buda bat erosi zuen.

Adituta daukat Eibarren armagintzaren aurretik kristoak egiten zirela.
(kristoa = gurutzefika)

Afganistanen bi buda erraldoi zartatu zituzten talibanek.

2.3.3.3 Santuei eta Ama Birjinari deitzeko izenak

Jesu Kristoren ama aipatzeko, *Ama Birjina* eta *Ama* erabiltzen dira, letra larriz hasita. Eta *Andre*, *Andra*, *Andredena* eta *Andre Dona* izendapenak ere letra larriz hasita idazten dira.

Ama Birjina, Arantzazuko Ama, Fatimako Ama Birjina, Ama Birjina Arrosariokoa.

Andre Maria, Begoñako Andra Maria, Andredena Maria, Andre Dona Maria.

Santuen izenetan, izen bereziaren aurretik erabiltzen diren *San*, *Santa*, *Santi*, *Done*, *Jaun Done*, *Jondoni*, *Jondane* eta *Dona* letra larriz hasita idazten dira.

Santa Elisabet, Santa Katalina, San Simon, San Frantzisko, San Tomas, San Domingo, Santa Aines; Done Bartolome, Dona Garazi, Done Mikel, Jaun Done Petri, Jondoni Paulo, Jondane Eztebe.

Pertsona-izenaren aurretik ez daudenean, *santu*, *santa* eta *done* izen arruntak dira (*santu* eta *done* badira adjektibo ere), eta letra xehez idazten dira.

Oso santu handia izan zen Frantzisko Xabierkoa; santa horren mirariak kontatzen ditu liburuak; Katalina santua oso aipatua izan zen; emakume done hura.

Salbuespenak: Familia Santua, Espiritu Santua, Hirutasun Santua.

Santu-santen izenetatik eratorritako herri eta hirietako jaien izenetan, *santu*, *santa*, *andre* eta *andra* letra xehez eta ondoko pertsona-izenari loturik idazten dira.

sanferminak, santakatalinak, sanprudentzioak, andremariak, andramariak, santanak, sanblasak, sanjoanak, sanrokeak.

Orobat santu-santen izenak erabiltzen direnean erlijioaren arlokoak ez diren izen arruntetan. Halakoetan ere, pertsona-izenari lotuak idazten dira.

sanbernardo txakurra, sanjose loreak, sanjoan lorea.

2.3.3.4 Izaki mitologiko kolektiboak

Izaki mitologiko batzuek talde mugatu bat osatzen dute, eta haiek izendatzeko izena pluralez erabiltzen da. Talde hori txikia denean (gehienetan, hirukoteak izaten dira), talde osoa izendatu nahi delarik, ohikoa da letra larriz hasita idaztea.

Dioskuroak (bikotea); Eriniak edo Eumenideak, Furiak, Graziak, Horak, Kariteak, Moirak, Parkak (hirukoteak dira guztiak), Pleiadeak (zazpikotea).

Artelan askotan agertzen dira Hiru Graziak.

Mitologia grekoan Moirak direnak Parkak dira erromatarren mitologian.

Denak batera aipatzen ez badira, berriz, ez da letra larririk behar: furia bat, dioskuro bat.

Beste izaki mitologiko batzuk, berriz, kopuru handia (*nereidak*, adibidez, 50 dira; *titanak* 12 dira) edo mugagabea dira eta kategoria osoak eratzen dituzte; hau da, izaki-klase bat izendatzen dute. Horrenbestez, izen arruntak dira, singularrean zein pluralean, eta letra xehez idazten dira:

lamina bat, ozeanideak, fauno bat, ninfak, sirena bat, ziklopeak, walkiria bat, zentauroak, amazona bat, argonautak, aingeruak, nereidak, naiadeak,

intxixuak, trollak, musak, basandere bat, adarbakoitza, grifoak, elfoak, gnomoak.

2.3.3.5 Fikzio-pertsonaien eta animalia antropomorfoen izenak

Literaturan (eleberri eta antzerki-obretan), herri-tradizioetan, komikietan edo fikzio-sorkuntzako gainerako produktuetan (marraski bizidunak, filmak, bideojokoak) asmatutako pertsonen izen bereziak edo pertsona gisa jokatzeko duten animalien eta gauzen izenak izen berezizat hartzen dira, baita izen arruntak badira ere, baldin izen berezi gisa baliatzen badira (adibidez, Katu Botaduna). Beraz, letra larriz hasita idazten dira.

Ziripot, Miel Otxin, Petiri Sanz, Peru Abarka, On Kixote, Mary Poppins, Phileas Fogg, Lara Croft, Sherlock Holmes, Pippi Kaltzaluze, James Bond, Lisbeth Salander, Harry Potter, Asterix, Minnie Mouse, Superman, Mateo Txistu, Txanogorritxo, Errauskine, Peter Pan, Mafalda, Donald (ahatea), Bambi, Wonder Woman, Itzalik Gabeko Gizona.

2.3.3.6 Familiak, leinuak, dinastiak eta pertsonen izenetatik eratorritako izenak

Eponimo edo jatorri-izen berezi batetik —abizen batetik edo ponte-izen batetik— abiatuta *-ar/-tar/-dar* atzizkiaren bidez lortzen diren familia, dinastia eta jarraitzaileen izenak letra xehez hasita idazten dira, eratoritze-prozedura bera baliatuz leku-izen batetik abiatuta leku horretako herritar-izenak lortzen diren bezala (*Erroma* leku-izenetik *erromatarrak*, *Bizkaia* leku-izenetik *bizkaitarrak*).

Adibidez, Akemenes, Ptolomeo eta Sasan pertsona-izenetatik akemenestarrak, ptolomeotarrak eta sasandarrak dinastia-izenak eratortzen dira.

Dinastiak izendatzeko beste modu bat izen berezia erabiltzea da (letra larriz hasita, izen berezia baita) eta hari, aposizioan, *dinastia* hitza eranstea: Valois dinastia, Habsburgo dinastia, Ming dinastia.

Dinastia bat edo leinu bat osatzen duten pertsonen multzoa izendatzeko, Europako Erdi Aroko eta geroagoko dinastien kasuan batez ere, *etxe* hitza ere erabiltzen da. Kasu horietan, ohikoa da izenlagun batekin erabiltzea, batez ere dinastiaren jatorria leku-izen bat denean: Valoisko etxea, Habsburgoko etxea. Dena dela, aposizioan ere erabil

daiteke, batez ere dinastiaren jatorrian leku-izenik ez badago: Tudor etxea. Dinastiako kideak aipatzeko, berriz, ohikoa da *-tar/-dar* atzikia erabiltzea: valoistarrak, tudortarrak, habsburgotarrak.

Dinastia-izen batzuk, dena dela, zuzenean mailegutzen dira, eta, gainerakoak bezala, letra xehez idazten. Adibidez, lagidak, nazariak, borboiak, karolingioak, alaiak, haxemiak, merovingioak.

Laburbilduz: izen eratorriak erabiltzen direnean, letra xehez idazten dira; aposizioak baliatzen direnean, berriz, izen berezia letra larriz hasita idazten da. Adibideak:

agirretarrak edo Agirre familia

Kennedy familia edo kennedytarrak

Borgia familia edo borgiatarrak

beaumontarrak edo Beaumonteko etxea

banukasitarrak edo banukasitarren dinastia

seleukotarrak edo seleukotar dinastia

mauryatarrak edo mauryatar dinastia edo Maurya dinastia

antoninotarrak edo antoninotar dinastia

komnenotarrak edo komnenotar dinastia edo Komneno familia

anjoutarrak edo Anjouko etxea

bonapartetarrak edo Bonaparte dinastia edo Bonaparte etxea

Borboiko etxea edo borboiak

estuardotarrak edo Estuardo dinastia

karolingioak edo dinastia karolingioa

Plantagenet dinastia edo plantagenetarrak

Familia, leinu eta dinastien izenetan bezala, gizarte- eta erlijio-taldeen jarraitzaileen izenen jatorrian ere, pertsona-izen bat izaten da askotan. Kasu horietan ere, letra xehez idazten dira. Adibidez:

sabindarrak, frantziskotarrak, epikurotarrak, ismaeldarrak, isabeldarrak, nestoriotarrak.

Halaber *-ar* atzikia baliatu beharrean zuzenean mailegutzen direnean ere. Adibidez:

frankista, karlista, ismailia, jansenista, luterano, kalbinista, marxista.

Badira pertsona-izenetatik eratortzen diren adjektibo gutxi batzuk *-dar/-tar* atzikiaren *-iar/-tiar* aldaeraren bidez sortuak (*arestiar, bonapartetiar, drakoniar, freudiar, hertziar, kafkiar, kantiar, kartesiar, teresiar*), izen horien jatorrian dagoen pertsonaren edo haren obraren edo doktrinaren aldekoa, jarraitzailea, edo haren obraren girokoa, edo haren doktrinari dagokiona adierazten dutenak. Haiek ere, gainerakoak bezala, letra xehez hasita idazten dira, hitz arruntak baitira.

2.3.3.7 Herritar-izenak eta etnien eta herrien izenak

Jatorria edo herritartasuna adierazteko izenak eta adjektiboak eta herrien, etnien eta gizataldeenak letra xehez hasita idazten dira.

Euskal Herritik kanpo bizi diren euskal herritarrak.

Kanpinean, frantsesak eta alemanak ziren gehienak.

Hego Amerikan kolonia handiak fundatu zituzten espainolek eta portugeseak.

Aitor dut baionarren himnoa ozendu zelarik ikaratu nintzela.

Ruandako genozidioaren jatorria hutuen eta tutsien arteko gatazka izan zen.

2.3.3.8 Pertsonen trataerak, tituluak, karguak eta lanbideak

a) Izen bereziekin batera erabiltzen direnak

Pertsonak izendatzen direnean, batzuetan, pertsonaren izen bereziarekin batera beste izen generiko batzuk erabiltzen dira aposizioan. Izen horiek definitu egiten dute pertsona, hari buruzko zerbait eranstean dute; pertsonaren nobleziako edo bestelako titulua edo duintasuna (*erregina, kondea, lehendakaria, dohatsua, aita santua...*),

lanbidea edo kargua, hierarkia, gradu militarra edo maila akademikoa (*irakaslea, pilotaria, ministroa, zuzendaria, idazlea, marinela, almirantea/amirala, errektorea, doktorea...*) edo nortasunaren alderdiren bat zehazten dute, edo, besterik gabe, adeitasunezkoak edo begirunezkoak dira (*andrea, jauna, maisua...*). Aposizioan baliatzen diren izen generiko horietariko batzuk izen bereziaren aurrean ezartzen dira, eta beste batzuk ondoan.

Izendapen generiko horiek letra xehez idazten dira dagokien izenaren ondoren jartzen direnean, baita laburdura direnean ere. Adibideak:

Antso Azkarra erregea, Uxue Barkos lehendakaria, Joan XXIII.a aita santua, Lazkao Txiki bertsolaria, Trajano enperadorea, Joane Somarriba txirrindularia, Etxenike irakaslea, Miren Legarda ingeniaria, Elkano nabigatzailea, Virginia Woolf idazlea, González jauna / González jn., Arantxa Urretabizkaia andrea / Arantxa Urretabizkaia and., Inozentzio V.a dohatsua, De Gaulle jenerala, Élisabeth Borne Frantziako Errepublikako lehen ministroa, Andres Urrutia euskaltzainburua, Ursula von der Leyen Europako Batzordeko presidentea, Ana Zubiaga Biologian doktore eta Genetikako katedraduna...

Izenaren aurrean jar daitezkeenean ere, letra xehez idazten dira.

Karlos erregea / errege Karlos; erregina Joana / Joana erregina.

maisua Nikolas / Nikolas maisua, osaba Pio, amona Lorentxa, andereño Ane.

Trataera guztiak berdin idaztekoak dira, letra xehez hasita, izen arruntak direnez gero. Badira, guztiarekin ere, tradizioan gehienbat letra larriz hasita idatzi diren trataera batzuk, gaur egun gutxi erabiliak: izenaren aurrean erabiltzen diren *On*, *Musde*, *Murde* eta *Mosen*. Baldin eta *errege Karlos* idazten bada, *errege* hitza letra xehez jarrita, logikoa da *on Jose Maria Arizmendiarieta* idaztea, *on* letra xehez hasita. Nolanahi ere, onargarria da zahar-kutsuko testuetan edo testuinguru historikoetan letra larriz hasita idaztea modu markatu gisa, ezinbestekoa ez bada ere:

On Manuel Lekuona, On Kixote, Murde Etxepare, Musde Haritxabalet, Mosen Bernat Etxepare.

Kristau-erlijioa *ama*, *aita*, *anaia*, *ahizpa*, *arriba*, *frai* tituluak ere letra xehez hasita idaztekoak dira gaur egun, izen arruntak baitira, *andre* edo *maisua* diren bezala, gure

inguruko hizkuntzen gisa berean, nahiz eta garai batean, erlijio-testuetan batez ere, gehienbat letra larriz hasita idazten ziren.

aita Patxi Altuna, ama Teresa, anaia Frantzisko, arreba/ahizpa Klara, frai Luis Villasante.

Erdaretako tituluak eta trataerak idaztean ere, ez da beharrezkoa jatorrizko hizkuntza bakoitzaren erabilerari jarraitzea (adibidez, ingelesezkoak eta alemanezkoak letra larriz hasita idazten dira, eta gaztelaniazkoak eta frantsesezkoak letra xehez), eta gainerakoak bezala idatz daitezke, letra xehez hasita.

sir Winston Churchill, lady Diana Spencer, lord Byron, sor Luisa, don Pedro, doña Elvira, madame Lefebvre, frau Schmitz, herr Müller.

b) Izen berezirik gabe baina pertsona jakin bat aipatzeko erabiltzen direnak

Pertsonen titulu, lanbide eta karguen berri ematen duten izen generikoak pertsonaren izen bereziarekin batera erabiltzen dira, baina, askotan, izen generiko horiek gailendu egiten zaizkio laguntzen duten izen bereziari; hau da, izen berezia desagertu egiten da eta izen generikoak ordezkatzeko izen bereziak eta izen generikoak osatutako unitatea. Testua arintzeko prozedura hutsa izaten da batzuetan izen berezia bakarrik erabiltzea eta beste batzuetan titulua bakarrik erabiltzea, edo biak txandakatzea.

Imanol Pradales EAEko lehendakariak berdintasunaren alde lan egiten jarraitzeko deia egin du. [...] Horregatik, EAEko lehendakariak adierazi du [...]. Arrazoi horiek guztiak eman ditu lehendakariak bere proposamena azaltzean.

Izen berezia ordezkatzeko denean, titulua edo kargua edo lanbidea erreferentziakidea da, eta, letra larriz idazten den izen berezi bat ordezkatzeko badu ere, letra xehez idazten da.

Anari abeslariak kontzertua eskainiko du bihar [...]. Bere azken albuma aurkeztuko du abeslariak bihar.

Beraz, tituluak, kargua eta lanbideak adierazten dituzten izen guztiak, diren mailakoak direla, letra xehez idazten dira, izen arruntak baitira, hala erabilera generikoan nola pertsona jakin bat adierazten dutenean.

Etiopiara joango da aita santua datorren urtean.

Bakearen Nobel saria eman zioten dalai-lamari 1989an.

Senatuko presidentea euskaltzainburuarekin elkartuko da.

Robert Badinter Frantziako Justiziako ministroak heriotza(-)zigorraren aurka egin zuen.

Frantziako Errepublikako lehendakariaren egoitza.

Debako alkatearen eskutik jasoko dute saria.

Espainiako erregeak MCCren instalazio berriak inauguratu zituen.

Parte-hartzaileak: Lucía Ceballos (Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua, Kantabriako Gobernu), Andrés Rubio (kazetaria), Antonio Bocanegra (Laredoko Udaleko Ondareko zinegotzia), Igone Revilla (Repuebla proiektuko zuzendaria), Pedro Rasines (historialaria eta arkeologoa).

Zenbaitetan, begirunea-edo adierazteko edo garrantzia nabarmentzeko, hasierako letra larriz idatzi ohi dira instituzio edo erakundeen goi-mailako karguen izenak, batez ere testu formaletan, baina ez da beharrezkoa, eta jokabide klasista gaitzesgarria litzateke erakunde bateko goi-mailako karguen izenak letra larriz hasita idaztea eta behe-mailakoenak, berriz, letra xehez.

Ohorezko trataeretan edo protokolo-trataeretan, hala nola gonbidapen-txarteletan edo eskutitzen goiburuetan, letra larriz hasita idatzi izan dira batzuetan kargu-izenak, bai bakarrik daudenean, bai izen bereziarekin batera daudenean. Ez dago hala jokatzeko beharrik; horregatik, letra xehez hasita idaztekoak dira.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektore jaun txit gorena

Pierre-André Durand jauna, Baionako suprefeta, Marc Cabane jaun prefetaren ordezkaria

Basauriko alkate andre txit argia

Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakari Rafaela Romero Pozo andre txit prestua

Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko burua

Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburua

Imanol Pradales Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

Hezkuntza eta Zientziako ministro andre agurgarriari

OHARRA

Karguaren izena eta erakundearen izena bat datozenean, hasierako letra larriz idatziko da erakundea adierazteko eta letra xehez, berriz, kargua adierazteko.

Nafarroako Foru Komunitateko **Arartekoaren** antolaketa eta funtzionamendua onestea

María Jesús Aranda Nafarroako **arartekoak** herritarrek zerbitzuak euskaraz izateko duten eskubidea bermatzeko eskatu dio Iruñeko Udalari.

Arratsaldean, **arartekoa** elkarrizketatuko dute Euskadi Irratian.

Badira, azkenik, modu antonomasikoan pertsona jakin bana izendatzen duten hiru titulu-izen, eta, erabilera antonomasiko horretan, letra larriz hasita idatzi ohi dira.

Denok dakigun bezala, **Caudilloa** ohean hil zen (Caudilloa = Franco)

Italiako **Ducearen** ametsa Erromatar Inperioa zen (Ducea = Mussolini)

Antisemitismoa zen **Führer-aren** doktrina politikoaren ezaugarrietako bat (Führerra = Hitler).

c) Modu generikoan, pertsona jakin bat aipatu gabe, erabiltzen direnak

Modu guztiz generikoan erabiltzen direnean, hau da, pertsona jakin bat adierazten ez dutenean, gainerako izen arruntak bezala idazten dira, letra xehez.

Errepublikako **lehendakaria** hautatzeko hauteskundeak

Nork izendatzen du **aita santua**?

Konstituzioan zehazten dira **erregearen** edo **erreginaren** eginkizunak.

2.3.3.9 Ohorezko titulu eta protokolozko trataerak

Izen bereziki batera erabiltzen direnean, letra xehez hasita, gainerako trataera guztiak bezala.

Filipe II.a **maiestate** katolikoaren ordezkari nagusia Nafarroako Erresuman.

Izen berezirik gabe erabiltzen direnean, letra larriz hasita idatz daitezke erreberentziazko trataera nabarmentzearen, ezinbestekoa ez bada ere.

Musikaz mantsotuko dut, **Maiestatea**, Orfeok piztiekin egin zuen bezala.

Eta berorren **G**orentasunak hala nahi badu.

2.3.4 Animalia- eta landare-izenak

Animalien eta landareen izen bereziak, errealak izan zein fikziozkoak izan, letra larriz hasita idazten dira.

Dolly (ardia), Laika, Milu, Pluto, Pintto, Argi, Rin Tin Tin (txakurrak), Camille, Yogi (hartzak), Buzefalo, Rozinante (zaldiak), Moby Dick (balea), Donald (ahatea); Micetto (katua); Malato, Telperion (zuhaitzak).

2.3.4.1 Animalien eta landareen izen zientifikoak

Zoologian eta botanikan, animaliak eta landareak izendatzeko (espezieak eta subespezieak) baliatzen den nazioarteko nomenklaturan, lehen osagaiak generoa adierazten du, eta letra larriz hasita idazten da; bigarren osagaiak espeziea bereizten du genero berekoen artean, eta letra xehez hasita idazten da. Subespezieek hirugarren osagai bat dute, subespeziearen bereizgarria, eta letra xehez hasita idazten da. Eta letra etzanez idazten dira hiru osagaiak.

Hau da sugandila buztangorriaren izen zientifikoa: *Acanthodactylus erythrurus*.

Hau da tundrako otsoaren izen zientifikoa: *Canis lupus albus*.

Hau da gari bigunaren izen zientifikoa: *Triticum aestivum*.

Generotik gorako taxonak letra larriz hasita, letra arruntez (ez letra etzanez) eta latinez idazten dira nazioarteko nomenklaturan.

Hominidae familia, Primates ordena, Chordata filuma.

Izen arrunt moduan erabiltzen direnean, berriz, taxonak letra xehez hasita idazten dira, lexiko arrunteko hitzak baitira.

hominidoak, primateak, kordatuak; intsektu koleopteroa; lepidopteroa; gramineoa.

2.3.4.2 Animalia-arrazak

Animalien arrazak izendatzen dituzten izenak letra xehez hasita idazten dira, grafia egokitua izan zein jatorrizko grafia izan.

kanixea, katu persiarra, boxerra, bull terrierra, chow-chowa, rottweilerra, euskal artzain(-)txakurra.

Arrazaren izendapenak hitz bat baino gehiago baditu eta hitz horietako bat izen berezia bada, izen berezi hori letra larriz hasita idazten da.

Lacaune ardia, Karrantzako ardia, Enkarterriko astoa, Flandriako behia, Aurizko zaldia.

Batzuetan, arrazaren jatorrian zegoen izen berezia lexikalizatu egiten da. Orduan, letra xehez idazten da.

chihuahua [txakur(-)arraza], labradorra [txakur(-)arraza], limusina [behi(-)arraza], sanbernardo [txakur(-)arraza].

2.3.5 Erakunde, elkarte eta kidekoen izenak

Erakunde eta kidekoen izena osatzen duten hitz nagusi edo adierazgarri guztiak letra larriz hasita idazten dira. Erakunde eta kidekoak dira, adibidez, tokiko zein nazioarteko instituzioak, era guztietako enpresa publiko zein pribatuak, sozietateak, elkargoak, administrazioen barneko sailak edo departamentuak, eskola eta unibertsitateak, alderdi politiko eta sindikatuak, elkarte eta fundazioak, kultura-, antzerki-, musika-, aisia- eta kirol-taldeak, unitate militarrek eta justizia-organoak.

Europako Kontseilua, Munduko Bankua, Nazioarteko Olinpiar Batzordea, Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundea, Gurutze Gorria.

San Filipe Nerikoaren Oratorioko Kongregazioa, Opus Dei.

Eusko Legebiltzarra, Laborantza Ganbera, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Saila, Arabako Foru Aldundia, Euskararen Erakunde Publikoa, Laudioko Udala, Kanpo Arazoetako Ministerioa, Auzitegi Nagusiko Fiskaltza, *Nafarroako Lurraldearen Antolamendu Batzordea*, Pasaiako Itsas Kapitaintza, Guardia Zibila, Arabako Unibertsitate Ospitalea, Baionako Suprefetura.

Jerusalemgo Hilobi Santuko Zaldunen Ordena, Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainia, Ekialdeko Indietako Konpainia Ingelesa, Mondragon Korporazioa, Anaiak SA, Goizper Group, Bilboko Portuko Agintaritzza, Hidrogenoaren Euskal Korridorearen Elkarte.

Euskal Herriko Unibertsitatea, Udako Euskal Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, EHUko Enpresa eta Ekonomia Fakultatea, Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritza Eskola; Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionala, Cambridgeko Unibertsitatea, Pasteur Institutua.

Baionako Euskal Museoa, Eusko Ikaskuntza, Elhuyar Fundazioa, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea, Albaola Itsas Kultur Faktoria.

Euskal Herriko Laborarien Batasuna, Euskadiko Alderdi Sozialista, Euzko Alderdi Jeltzalea, Batasun Nazionala, Palestina Askatzeko Erakundea, Al-Qaeda, Alderdi Errepublikanoa.

Aviron Bayonnais, Athletic Club, Saski Baskonia, Isuntza Arraun Elkarte; Aire Ahizpak, Lin Ton Taun, Negu Gorriak, Iruñeko Orfeoia.

OHARRA

Hitz nagusiak hauek dira: izenak, adjektiboak (izenlagunak eta izenondoak), izenordainak, erakusleak, zenbatzaileak, aditzak (aditz-izen eta partizipioak) eta adberbioak. Aldiz, juntagailuak, lokailuak, postposizioak, adizkiak eta beste partikula batzuk (*ote, al...*) ez dira nagusizat hartzen, semantikoki; horregatik, ez da beharrezkoa erakunde eta kidekoen izenetan agertzen direnean letra larriz idaztea. Adibidez (letra lodiz nabarmenduta daude letra xehez hasita dauden hitzak):

Jerusalemgo San Joan, Rodas **eta** Maltako Ordena Subirano Militar **eta** Ospitalarioa, Palestina Askatzeko Erakundea, Euskadi **eta** Askatasuna, Klima Aldaketari **buruzko** Gobernuarteko Taldea.

Izendapenean garrantzi semantiko nabarmena dutenean, berriz, letra larriz hasita idazten dira. Adibidez:

Mugarik **Gabeko** Medikuek, Euskal Kosta **Ez** Nuklearra, Euskal Herriko Bakearen **Aldeko** Koordinakundea.

OHARRA

Erakunde eta kidekoen izenen ohiko egitura gramatikala izen-sintagma da, baina badira perpausak edo perpaus-zatiak edo bestelako egiturak dituztenak ere. Era horretako egiturak direnean ere, hitz nagusi guztiak idazten dira letra larriz hasita. Adibidez:

Benetako Demokrazia Orain, Ez Dok Amairu, Gure Esku, Ahal Dugu.

OHARRA

Erakundeak pluralean erabiltzen direnean edo esanahi generikoa dutenean, letra xehez hasita idazten dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko diputazioak

Probintzia bakoitzak bere diputazioa du.

Euskal Herrian ditugun unibertsitateak

Zangozako merindadeko udalak

2.3.5.1 Enpresa eta bestelako establezimenduen izenak

Enpresa, elkarte eta, batez ere, merkataritza-saltoki eta kidekoen izendapenetan, izen generikoa izen erregistratuaren parte izaten da batzuetan eta beste batzuetan ez, eta, askotan, idazten duenak ez daki generikoa izendapen ofizialaren parte den edo ez. Izan ere, beti ez dira berdinak izendapen ofiziala eta izendapen arrunta. Normalean, izendapen arrunta erabiltzen da, eta generikoa letra xehez hasita idazten da. Adibidez, izen erregistratua Barandiaran Jatetxea Sozietate Mugatua balitz ere, Barandiaran jatetxea da izendapen arrunta, alde batera utzita *jatetxe* hitza establezimendu horren izen ofizialaren parte den edo ez.

2.3.5.2 Erakunde, elkarte eta kidekoen izen laburtuen erabilera: izenaren parte espezifikoa erabiltzea

Testu batean erakunde bat behin baino gehiagotan aipatu behar denean, izen osoaren ordez erakundearen izena modu laburtuan erabiltzen da maiz lehenengo agerraldiaz geroztik, izendapen osoaren osagai batzuk kenduta¹⁵. Izendapenaren parte adierazgarriena, espezifikoa, erabili ohi da batzuetan modu laburtuan aipatzen denean (ez da anbiguotasunik izaten, lehenengo aldiz aipatzen denean osorik agertu ohi baita edo testuinguruak argitu ohi baitu). Halakoetan ere, erabiltzen den izendapenaren zatia letra larriz hasita idazten da.

¹⁵ Zenbat eta luzeagoa izan izen ofiziala, hainbat ohikoagoa da laburtua erabiltzea, batez ere behin baino gehiagotan idatzi behar izanez gero testu berean. Adibidez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila osorik idatzi beharrean, Justizia Saila bakarrik idaztea.

Adibideak¹⁶ (hitza azpimarratuz nabarmendu da adibideotan modu laburtuan idatzia dagoen erakundearen izena):

2015. urtean, Etxepareren eskutik, euskal kulturaren ordezkariak izan dira Bruselan. [Etxepare Euskal Institutua adierazteko]

Aurten nire haurra Etxeparen da. [Baionako Bernat Etxepare Lizeoa adierazteko]

Administrazio Publikoaren Valentziako Eskolari dagokio, Generalitateko enplegatu publikoei dagokienez, neurri horiek hartzea. [Valentziako Generalitatea adierazteko]

Jaurlaritzako eta Generalitateko hezkuntza-ordezkariak batu dira Bartzelonan bi sistemen arteko harremanak sendotzeko. [Kataluniako Generalitatea adierazteko]

Atal horretako istorio berri batzuk beste bilduma batean biltzea erabaki du Elhuyarrek. [Elhuyar Fundazioa adierazteko]

Udalak iaz erosi zuen eraikina, baina Hezkuntzak oraindik ez du esleitu erreforma-proiektuaren erredakzioa. [Hezkuntza Saila adierazteko]

2.3.5.3 Erakunde, elkarte eta kidekoen izen laburtuen erabilera: izen arruntak erabiltzea

Testuan, ahozko diskurtsoan bezala, erakunde baten izena erabili ondoren berriro aipatu behar bada edo zer erakunde aipatzen ari den jakina bada, ohikoa da, osorik aipatu beharrean, erakunde horren izendapenaren parte generikoa den izena bakarrik erabiltzea, testua ez astuntzearen, batez ere erakundearen edo elkartearen izena luzea denean. Kasu horretan, erakunde edo elkarte izendatzeko erabiltzen den izena beste elementuren batez lagunduta badago, hala nola erakusleren batez (*erakunde hau*), adjektiboren batez (*erakunde gorena/ezaguna/zaharra...*), posesiboren batez (*gure*

¹⁶ Izen laburtua erabiltzea da, era berean, *Jaurlaritza* idaztea izen osoa —*Eusko Jaurlaritza*— idatzi beharrean. Kasu hori, dena dela, berezia da, *jaurlaritza* izena, gaur egun, *Eusko Jaurlaritza* erakundearen izenean baino ez baita erabiltzen. Berez, *jaurlaritza* erakundearen izenaren parte generikoa da: *jaurlaritza* = *gobernu*. Ber gauza gertatzen da *generalitate* hitzarekin.

erakundea) edo *delako*, *aipaturiko*, *adierazitako*... gisako elementuren batez, letra xehez hasita idazten da erakunde edo elkartearen izena. Adibidez:

Donostiako Udalak turismo(-)zerga ezarri nahi du. [...] Aski ezaguna da udal horrek duen asmoa.

Adibide horretako bigarren perpauseko *udal* hitzaren bidez *Donostiako Udala* adierazten da, hau da, *udal* hitzak ordezkatu egiten du lehenago aipatutako *Donostiako Udala*, haren erreferentziakide da. Argudia daiteke izenaren laburpen hutsa denez hasierako letra larria behar lukeela (*Donostiako Udala* → **Udala** eta ez *udala*). Hala ere, aipamen-modu anaforiko horretan egokiagoa da izen arruntzat hartzea, erakusleak, izenordainak edo beste elementu batzuk har ditzakeelako, izen bereziek nekez hartzen dituztenak:

Donostiako Udalak turismo(-)zerga ezarri nahi du. Aski ezaguna da udal horrek duen asmoa.

[ezohikoa: Aski ezaguna da Donostiako Udal horrek duen asmoa.]

Donostiako Udalak laguntza emango die, herritar horien ekimenak gure udalaren babes osoa baitu.

[ezohikoa: Herritar horien ekimenak gure Donostiako Udalaren babes osoa du.]

Zerbitzu berriak emango ditu Donostiako Udalak. [...] Aipatutako udalaren bi sailen bidez emango dira zerbitzu horiek.

[ezohikoa: Aipatutako Donostiako Udalaren bi sailen bidez emango dira zerbitzu horiek.]

Beste adibide batzuk:

Obra horiek sustatzeko **udal honek** ematen dituen dirulaguntzak arautzea da ordenantza honen xedea.

Eta onartezina da **gure aldundia** sektore horien interesen defendatzaile sutsu izatea.

Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren baimena izatea, mutuaren estatutuak aldez aurretik onartuta, eta **esandako ministerioaren** mendeko administrazio(-)erregistroan inskribatzea.

Ekonomia eta Ogasun Sailaren 2021. urterako dirulaguntzen Plan Estrategikoa. Plan hau **sail honen** politika antolatzeko tresna gisa sortu da.

Horrela, **gure sailaren** jardute(-)eremuan eraginkortasuna eta efizientzia indartzea, eta gardentasuna sendotzea bermatuko dugu.

Beraz, **aipatutako udalari** egin beharreko atxikipenen guztirako zenbatekoa kontuan edukita, jaso beharreko kopuru likidoa 6.659,47 euro da.

Azken **ministerio horri** beste izen bat eman diote, eta aurrerantzean Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda izango da.

Aitzitik, erakunde edo elkarte izendatzeko erabiltzen den izen arrunt hori beste elementuren baten laguntzarik ez badu eta erakunde edo elkarte jakin bat izendatzeko erabiltzen bada testuinguruak argi eta garbi identifikatzen duelako edo aurrez izen osoarekin aipatu delako, bi aukera daude: letra larriz hasita idaztea edo letra xehez idaztea¹⁷. Adibideak:

Oraingoan, **udalak/Udalak** hartu behar du erabakia, hori ez baita **diputazioaren/Diputazioaren** eskumena.

[udal eta diputazio hitzak ez dira generikoak esaldi horretan, eta lehenago aipatu diren eta horrenbestez jada ezagunak diren udal jakin bat eta diputazio jakin bat ordezkatzen dute.]

Eva Ferreira errektoreak **unibertsitatearen/Unibertsitatearen** ikasketa(-)plan berria aurkeztuko du bihar.

[unibertsitate hitzak Euskal Herriko Unibertsitatea ordezkatzen du hor.]

Bere jatorria Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikerketa(-)jardueran izatea. Ikerketa(-)jarduera dela ulertuko da **unibertsitatean/Unibertsitatean** bere azpiegitura eta baliabideak erabiliz sortutako sorkuntza eta ezagutza.

[unibertsitate hitzak Nafarroako Unibertsitate Publikoa ordezkatzen du hor.]

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren plan hori **sailaren/Sailaren** politika antolatzeko tresna da.

¹⁷ Erabaki konbentzionala da, eta orain arteko erabileran ez da ageri batasunik. Ez dago puntu horretan joera bateraturik gure inguruko hizkuntzetan ere, eta inguruko hizkuntza horietan ikusten da estilo-kontua dela neurri batean.

[sail hitzak aurretik aipatutako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila ordezkaten du.]

Frantziako Hezkuntza Ministerioak arautu du murgiltze(-)irakaskuntza. Frantziako Konstituzio Kontseiluaren ekaineko erabakitik espero zen zirkularra publikatu du **ministerioak/Ministerioak**.

[ministerio hitzak aurretik aipatutako Frantziako Hezkuntza Ministerioa ordezkaten du.]

Lan boluntarioa eta profesionala uztartuta plazaratu berri dute Getariako **Salbatore Abesbatzaren** ehun urteko ibilbidea jasotzen duen liburu mardula. Aurkezpenean, **abesbatzako/Abesbatzako** kideak nahiz zenbait ordezkari politiko izan ziren. Besteak beste, Emeterio Urresti **abesbatzako/Abesbatzako** partaide eta proiektuaren sustatzaileak hartu zuen hitza.

Cristóbal Balenciaga Museoko Patronatuak Javier González de Durana Artiumeko zuzendari ohia izendatu du **museoko/Museoko** zuzendari.

Lesakako **Tantirumairu Ikastolak** bertze 25 urtez erabili ahal izanen du Otxogorrienea. Cornelia Lekuona Fundazioak 1990eko azaroaren 26an sinatu zuen **Ikastolarekin/ikastolarekin** Otxogorrienea eta inguruko lurak uzteko hitzarmena.

Zumarragako Ospitalearen EFQM memoria (2005). [...] Enplegu(-)eskaintza publikoa zein lekualdatze(-)lehiaketak Osakidetzaren mende daude, eta **Ospitaleak/ospitaleak** ez du horretarako autonomiarik.

Ispasterko Udal Liburutegiaren arautegiaren 23. artikulua dio arauak betetzen ez duten bazkideei **Liburutegiak/liburutegiak** mailegu(-)zerbitzuaren erabilera aldi baterako edo betirako mugatu diezaiekeela.

OHARRA

Izen arrunt bera erakunde baten baino gehiagoren parte izanik erakunde horiek batera aipatzen direnean, izen generiko arrunt hori pluralean erabiltzen da eta letra xehez hasita idazten.

Gaur aurkeztuko dute Hezkuntza **Sailaren** eta Kultura **Sailaren** arteko elkarlanaren emaitza.

Gaur aurkeztuko dute Hezkuntza eta Kultura **sailen** arteko elkarlanaren emaitza.

2.3.5.4 Erakunde, elkarte eta kidekoen izenaren ordeztu beste bat erabiltzea

Testuan erakunde baten izen ofiziala osorik edo modu laburtuan behin eta berriro ez erabiltzearen, hari erreferentzia egiten dion beste izendapen bat, erreferentziakide edo sinonimo gisa, erabiltzen da batzuetan. Erreferentziakide hori letra xehez hasita idazten da (adibideetan, azpimarraturik adierazi da).

Arartekoa oso mugatuta dago. Uste dut erakunde horretan aldaketa sakonak egin behar direla.

[zer erakunde den jakina da, Arartekoa, lehenago aipatu delako.]

Ikea horren zain zegoen; izan ere, sistema hori bera baliatu nahi du enpresak ere.

[zer enpresa den jakina da, Ikea, lehenago aipatu delako.]

Partida hasi eta berehala, 1-0 aurreratu zen markagailuan talde babazorroa.

[Deportivo Alavés futbol-taldea adierazteko.]

OHARRA

Salbuespen gisa, izen ofiziala ez bada ere, *Euskaltzaindia* hitzaren sinonimotzat erabiltzen da *Akademia* hitza, eta letra larriz hasita idazten.

Euskaltzaindia, *Ekin eta Jarrai* liburua sarean jarri du Euskaltzaindiak, eta **Akademiaren** webgunean kontsultatu daiteke.

Joseba Sarrionandiak euskaltzain urgazlearen diploma jaso du, **Akademiak** izendatu eta 31 urtera.

Bi saio praktiko antolatu dira Euskaltzaindiaren hiztegi berria ondo erabiltzeko. Lehena, Donostian Euskaltzaindiak duen ordezkartzan, eta, bigarrena, **Akademiak** Bilbon duen egoitzan.

Dena dela, beste elementuren batekin erabiltzen bada, izendapen deskribatzaile huts bihurtzen da, eta letra xehez idazten da.

Euskaltzaindiak EHUK banatzen duen Urrezko Domina jaso zuen atzo. Unibertsitateak euskararen **akademia** saritzea erabaki du.

2.3.5.5 Izendapen bereziak: zenbait instituzio

Badira zenbait izen goren mailako instituzioak adierazteko erabiltzen direnak, adiera generikoa izateaz gainera. Izen horiek instituzioak adierazteko baliatzen direnean letra larriz hasita idatzi behar diren ala ez zalantza egin ohi da. Hauek dira ohikoenak:

a) armada

Estatu bateko indar armatuen multzoa, instituzio gisa, adierazteko, ez da beharrezkoa hasierako letra larriz idaztea, ez baitago armada izeneko erakunde bat (armadarekin zerikusia duten erakundeak, berriz, letra larriz hasita idazten dira. Adibidez, Defentsako Estatu Nagusia erakundea Espainian, edo Europar Batasuneko Estatu Nagusia).

Frantziako armadak hiru eraikin erosi ditu hirian.

Frantziako armadaren ordezkari batzuk Senegalen dira bisita ofizialean.

India eta Txina beren armadak modernizatzen ari dira.

Munduko edozein herrialdetan, estatuak bere armada dauka.

Armadaren parte bat, militar-talde bat, adierazten duenean ere, letra xehez idazten da.

Gobernuak armada bidali zuen matxinada zapaltzera.

Espainiako armadaren maniobrak Araban eta Nafarroan.

Estatu Batuetako armadaren erasoak izan zen larriena.

aireko armada, itsas armada, lehorreko armada, erreseerbako armada, armada erregularra.

Adjektibo kalifikatzailearen batez lagunduta dagoenean, izen berezi gisa jokatzeko du, eta hala izena nola adjektiboa letra larriz hasita idazten dira.

Armada Gorria, Napoleonen Armada Handia.

OHARRA

Armadaren barneko unitateen izen bereziak ere letra larriz hasita idazten dira, hala nola Dibisio Urdina, Afrikakorps, Kondor Legioa, Atzerritar Legioa.

Bestalde, indar armatuen unitateen izen arruntak letra xehez idazten dira:

infanteriako 2. erregimentua, 3. armada(-)gorputza, 6. batailoia, 101. dibisio aerogarraiata, 3. dibisio blindatua, Frantziaren 5. armada.

Armada hitzak sinonimo bat du: *indar armatuak*. Hala ere, indar armatuak terminoaren adiera armadarena baino zabalagoa izan daiteke: estatu batean defentsara bideratzen diren erakunde eta baliabide militarren multzoa da, eta, armadaz gainera, miliziak, mertzenarioak, paramilitarrak eta, lurralde okupatu baten kasuan, partianoak ere hartzen ditu. Letra xehez idazten da.

Espainiako indar armatuen webgunetik deskargatu daitezke ziurtagiriak.

Bost lagun hil dira PKK eta Turkiako indar armatuen arteko tiroketetan.

Armada hitza erakunde baten izenaren parte denean, letra larriz hasita idazten da.

Askapen Nazionaleko Armada Zapatista

Nazioa Askatzeko Armada (ELN)

Irlandako Armada Errepublikanoa (IRA)

Erresuma Batuko Aire Armada (RAF)

OHARRA

Armada batzuek izen berezia dute, eta letra larriz hasita idazten dira.

Eurocops (azkar erantzuteko armada nazioartekoa, Europar Batasunaren NATOren zerbitzukoa)

Tsahal (Israelgo indar armatuen izen generikoa)

b) administrazioa

Administrazio hitza erabiltzen da gobernu-erakundeen multzo bat adierazteko; hau da, botere-antolamendu baten (dela estatua, dela autonomia-erkidegoa, dela probintzia edo departamendua...) edo haren mendeko zerbitzu publikoen multzoa adierazteko, baina ez da, berez, erakunde jakin baten izena. Organismo-multzo orohartzailearen sinonimo den aldetik, testu administratiboetan letra larriz hasita idatzi ohi da, baina ez da nahitaezkoa. Haren zehaztaile eta sektoreei dagokienez, berdin: ez da beharrezkoa letra larriz hasita idaztea, baina estilo-kontua da: *administrazio publikoa*, *administrazio orokorra*, *toki-administrazioa*, *osasun-administrazioa* eta abar.

Autonomia-erkidego horretako **administrazioak/Administrazioak** dituen politikak ezagutu behar ditugu.

Bai, **administrazioan/Administrazioan** lan egiten du, baina ez da funtzionarioa.

Ebazpenean, **hezkuntza(-)administrazioaren/Hezkuntza Administrazioaren** mendeko ikastetxeak dauden udal(-)jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa argitaratu zen.

Oraindik ez dakigu zer iritzi duen **administrazioak/Administrazioak**.

Ustelkeria errotuta dago Irango **administrazioan/Administrazioan**.

EAEko **administrazioaren/Administrazioaren** ordezkaria, edo eskuordetzen duen pertsona, izango da batzordeburua.

Ekimen hori **udal(-)administrazioaren/Udal administrazioaren** eta herriko kirol(-)talde nagusien artean antolatu dute elkarlanean.

2023ko lehiaketa arruntaren deialdia, gaikuntza nazionala duten **toki(-)administrazioko/Toki-administrazioko** funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko.

Ogasunaren eta **justizia(-)administrazioaren/Justizia Administrazioaren** organoen arteko harremanak.

Osasuneko kontseilariak izendatutako **osasun(-)administrazioaren/Osasun Administrazioaren** ordezkariak.

Derrigorrezkoa zen **administrazio militarren/Administrazio militarren** zerbitzuan ari ziren albaitariak elkargoko kideak izatea.

Herri(-)elkargoa, Frantziako **administrazioan/Administrazioan**, udalerrriak elkartzeko egitura bat da.

Administrazio hitza erakunde baten edo erakunde-atal baten izenaren parte denean, letra larriz hasita idazten da.

Administrazio Elektronikoaren Araubide Juridikoaren Bulegoak izena aldatuko du; izen berria Administrazio Elektronikoari Laguntzeko Bulegoa izanen da.

Sektore publikoaren parte denez, Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzailletza Nagusiak auditoretza egiten dio urtero.

Nafarroako Administrazio Publikoko Funtzionarioen Elkartea (AFAPNA)

Administrazio Aferetarako Bulegoa

Administrazio Jasangarriaren Bulegoa

Administrazio Publikoaren Institutu Nazionala (INAP)

Modu generikoan edo pluralean erabiltzen denean, letra xehez hasita idazten da.

EUDELeke Batzorde Eragileak zenbait gogoeta egin ditu udaletan administrazioa arrazionalizatzeko.

Aurrerapausoak administrazioetako euskararen erabilera-planetan.

Orobat hitz-elkarte batean ezkerrean dagoenean ere, mugatzaile, hitz-elkartea izen arrunta baldin bada.

Eskubidea duzue administrazio(-)egintzen aurkako errekurtsioa aurkezteko.

Nafarroako Gobernuak administrazio(-)espedientea ireki die 34 saltokiri.

Ebazpen horiek ez diote amaiera ematen administrazio-bideari.

Eta letra xehez hasita administrazio hitzaren gainerako adieretan; hau da, erakundea ez baizik administratzea edo lurralde baten gobernu gauzatzea adierazten duenean.

Gure enpresaren administrazioaz arduratzen da.

Frantzia, departamenduen administrazioa prefetei dagokie.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileran oinarritzen da administrazio elektronikoa.

Estatu batzuetan, presidentearen agindupean dagoen gobernu-taldea adierazteko erabiltzen da *administrazio* hitza. Kasu horretan, letra xehez idazten da:

Carterrek Obamaren administrazioaren kanpo(-)politika defendatu du.

Donald Trumpen administrazioak atzerriko inportazioak zigortzeko lehen erabakiak iragarri ditu.

c) eliza

Eliza hitza letra larriz hasita idazten da sinestun kristauen bilkura adierazten duenean edo instituzioa adierazten duenean.

Konkordatua Eliza katolikoaren eta estatu baten arteko hitzarmena da.

Armeniako Eliza apostolikoa, Eliza ortodoxo grekoa, Eliza anglikanoa.

Grekoak Erromako Elizatik bereizi ziren.

Noiz sortu zen Eliza protestantea?

Baita pluralean erabiltzen direnean ere.

Ekialdeko Eliza katolikoak (Armeniako Eliza katolikoa, Eritreako Eliza katolikoa, Bulgariako Eliza greko-katolikoa eta abar) aita santuaren agintea onartzen duten ekialdeko tradizioko Elizak dira.

Hitz-elkarte batean ezkerrean —mugatzaile— dagoenean, baldin eta hitz-elkartea izen arrunta bada, letra xehez idazten da.

eliz kantak, eliz probintzia, eliz gurasoak (baina Elizako gurasoak), eliz musika, eliza(-)araubidea.

Tenplua, eraikina, adierazten duenean, letra xehez hasita idazten da.

Santa Maria eliza; eliza nagusia; Azpeitiko parrokia(-)eliza; eliza erortzen ari da.

Kale horretan eliza katoliko bat dago ezkerrean, eta eliza baptista bat eskuinean, aurreraxeago.

d) estatua

Estatu hitzak adiera bat baino gehiago du, eta erabilera-testuinguru ugari ditu. Oro har, *estatu* hitzak herrialde subirano jakin baten gobernu-organoen multzoa edo herrialde jakin hori osatzen duen batasun politikoa eta botere beregaina duena adierazten duenean, instituzioa adierazten du, instituzio gorena. Beraz, Baionako Herriko Etxea, Donostiako Udala edo Bizkaiko Foru Aldundia erakundeak letra larriz hasita idazten badira, halaber idazten dira letra larriz hasita Frantziako Estatua edo Espainiako Estatua gisakoak, izen ofizialak ez izan arren, toki horietako instituzio gorenak direnez.

Fincantieri enpresako akziodun nagusia Italiako Estatua da.

Espainiako Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dizkion zerbitzuengatik jasotzen duen ekarpena da kupoa.

Frantziako Estatuaren parte hartzea zenbatekoa izanen den ere zehaztu du: 11,4 milioi euro jarriko ditu eraikina berritzeko.

Testuan berriro aipatzen denean edo zer estatu den jakina denean, beste elementu batez lagunduta erabiltzen bada, hala nola erakusleren batez (estatu hau), adjektiboren batez (estatu zaharra), posesiboren batez (gure estatua) edo delako, aipaturiko, adierazitako... gisako elementuren batez, letra xehez idatzi behar da.

Ukraina da herrialde hautagaietako bat, eta, iazko azaroan, **estatu hori** eta Moldavia EBko kide bihurtzeko negoziazioak hasteko gomendatu zuten.

Bigarren aipamen moduan *estatu* hitza bakarrik aipatzen delarik, erreferentea jakina izanik, letra larriz edo letra xehez hasita idatz daiteke, erakundeen kasuan bezala (ikus 2.3.5.3 puntua).

Espanian, Felipe VI.a izango da, hil arte edo abdikatu arte, **estatuaren/Estatuaren** burua.

Generalitatearen eta **estatuaren/Estatuaren** arteko harremanak.

Presidenteak esan du baliabideak mugatuak direla, Frantzia ez dela munduko estaturik aberatsena; alegia, **estatua/Estatua** ez dela ahalguztiduna.

Gaur hasi dira Madrilen **estatuko/Estatuko** aurrekontu orokorreari buruzko lehen elkarrizketak.

Politikariak zehaztu zuen **estatuaren/Estatuaren** instituzioen ustetan badirela baliabideak osasuna finantzatzeko.

OHARRA

Espaniako administrazioan, Estatuko Abokaturza Orokorra organoko abokatuei *Estatuko abokatu* deritze, eta *estatu* hitza, hor, letra larriz hasita idazten da.

Fiskaltza eta **Estatuaren abokatu**a polizia txostenetan oinarriritu dira.

Antolaketa federala duten estatuetan, estatu federalak aipatzean ez da hasierako letra larria erabiltzen (beste estatuetako batzuetako autonomia-erkidegoak edo eskualdeen antzekoak dira).

Floridan, Ron DeSantis estatuko gobernadoreak larrialdi(-)egoera ezarri du, aurreikuspenek okerrera egin dutela ikusita.

Oaxaca Mexikoko hegoaldeko estatuetako bat da, eta Oaxaca de Juárez da estatuko hiriburua.

Suteak direla eta, Kalifornia estatuko gobernadoreak larrialdi(-)egoera ezarri du zazpi konderritan.

Baldin eta *estatu* hitza estatuaren izen ofizialaren parte bada, letra larriz hasita idazten da (ikus 2.3.1.2 puntua).

Israel izeneko estatuaren izen ofiziala Israelgo Estatua da.

Boliviaren, Eritrearen eta Mexikoren izen ofizialak hauek dira, hurrenez hurren: Boliviako Estatu Plurinazionala, Eritreako Estatua, Mexikoko Estatu Batuak.

Lurraldea besterik adierazten ez duenean, letra xehez hasita idazten da, ez da beharrezkoa letra larriz hasita idaztea.

Surinamgo iparraldean lurra landuta dago, baina estatuko hegoaldean oihan tropikala da nagusi.

Mitinak ematen ibili ziren frantses politikariak estatuaren bazter batetik bestera hauteskunde(-)kanpainan.

Modu generikoan aipatzen denean, erreferentea estatu jakin bat ez dela, letra xehez hasita idazten da.

Europako estaturik gabeko nazioak.

Europako estatuaren arteko mugak irekiak dira.

Pasaporteaz gainera, bisa ere behar da estatu batzuetan sartzeko.

Europar Batasuneko estatu kideak.

Beste hainbeste estatuaren ezaugarriak kalifikatzean.

hiri-estatu, estatu zentralista, estatu laikoa, estatu konfesionala, estatu teokratikoa.

Jokoan dagoena zuzenbide(-)estatu da.

Eta letra xehez hasita, orobat, hitz-elkarte batean ezkerrean dagoenean ere, mugatzaile, hitz-elkartea izen arrunta baldin bada.

estatu(-)idazkaria, estatu(-)kolpea, estatu(-)arrazoia, estatu(-)erlijioa, estatuburua, estatu(-)terrorismoa.

Hitzaren gainerako adieretan, letra xehez hasita idazten da, instituzio baten izenaren parte denean izan ezik.

1795ean antolatu zen lehen aldiz estatu nagusia Frantziako armadan.

Iraultzaren lehen urtean, hirugarren estatuko kideek kontrola hartu zuten.

Baina erakundea edo erakunde baten atala denean, larriz hasita:

Europar Batasuneko Estatu Nagusia; 5. armadaren Estatu Nagusia.

Filipe Ederrak sortu zituen Frantziako Estatu Jeneralak 1302an.

e) gobernu

Gobernu hitzak estatu edo lurralde bat gobernatzen duen agintea, instituzioa eta instituzio hori osatzen duten pertsonen multzoa (adibidez, ministroen taldea) adierazten duenean, letra larriz hasita idazten da.

Gaur hasi dira Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren arteko elkarrizketak.

Larrialdi(-)egoera ezartzea aztertzen ari da Frantziako Gobernu.

Nor izango da Nafarroako Gobernuko lehendakaria?

Zer instituzio den garbi dagoenean (lehenago aipatu delako edo testuinguruak argitzen duelako) osorik aipatu beharrean nongoa den adierazi gabe gobernu hitza bakarrik erabiltzen bada baina beste elementuren batez lagunduta, hala nola erakusleren batez (gobernu hau), adjektiboren batez (lehengo gobernu), posesiboren batez (gure gobernu) edo delako, aipaturiko, adierazitako... gisako elementuren batez, letra xehez idatzi behar da.

Kontuan hartu behar da, gainera, lehengo gobernu finantza berriro orekatzeko plan batean sartuta zegoela.

Lehen aldia da gure gobernuak plangintza bat duela arlo honetan.

Gure enpresa esportatzaileak indartzea eta handitzea izan da gobernu honen lehentasunetako bat.

Bigarren aipamen moduan *gobernu* hitza bakarrik aipatzen delarik, erreferentea jakina izanik, letra larriz edo letra xehez hasita idatz daiteke, erakundeen kasuan bezala (ikus 2.3.5.3 puntua).

Asteazkenean bilduko da **gobernua/Gobernua** konponbide bat proposatzeko.

Oposizioak gogor kritikatu zuen **gobernua/Gobernua**.

Afera horretan **gobernuak/Gobernuak** izan zuen jokaera erakusten da dokumentalean.

Iruñeko **gobernuaren/Gobernuaren** arabera, Madrilen neurriek ez diete erantzuten abeltzainen premiei.

Greziak Londresko **gobernuari/Gobernuari** eskatu dio itzul dezala Partenoiko frisoa.

Jarrera horrek agerian jartzen ditu **gobernu/Gobernu** sozialistak dituen barne(-)arazoak.

Gobernu jakin bat izendatzen ez badu, modu generikoan edo hitzaren beste adieran (gobernatzea) erabiltzen bada edo hitz-elkarte batean ezkerreko osagaia bada, letra xehez hasita idazten da.

Estatu kideetako gobernuen ordezkariak lantalde bat osatuko dute.

gobernu(-)ituna, gobernu(-)koalizioa, gobernu(-)programa,
gobernu(-)sistema.

Herri baten gobernu zuzenerako ezarritako legeak.

Gerraren ondoren, gobernu iraultzaile batek ordezkatu zuen gobernu konstituzionala.

Iraken batasun(-)governua eratuko da aurki.

Parisen elkartuko dira bi gobernuburuak.

Baina erakunde baten izenaren parte denean, letra larriz hasita.

Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldeak apirilaren 4an kaleratu zuen azken txostena.

Jasangarritasunaren Aldeko Tokiko Gobernuen Nazioarteko Sarea.

Presidentearen agindupean dagoen gobernu-taldea adierazteko erabiltzen denean, presidentearen deiturarekin batera, letra xehez idazten da:

Kataluniako inbertsioa handitzea proposatu du Sánchezen gobernuak.

Macronen gobernuak bi zentsura-moziori aurre egin behar izan zion pentsioen erreforma zela eta.

Urkulluren gobernuak jarrera zuzentzeko borondatea du.

f) parlamentua eta legebiltzarra

Parlamentu eta *legebiltzar* hitzak letra larriz hasita idazten dira instituzioa adierazten dutenean.

Nafarroako Parlamentua, Europako Parlamentua, Eusko Legebiltzarra.

Lege-proiektua eztabaidatzen ari dira gaur Parlamentuan.

Ukrainako Parlamentuak bi ganbera ditu.

Alemaniko Parlamentuak Greziaren hirugarren erreskatea negoziatzea onartu du.

Zer instituzio den garbi dagoenean —lehenago aipatu delako edo testuinguruak argitzen duelako— osorik aipatu beharrenean parte generikoa bakarrik erabiltzen bada baina beste elementuren batez lagunduta, hala nola erakusleren batez (parlamentu hau), adjektiboren batez (parlamentu berria), posesiboren batez (gure parlamentua) edo delako, aipaturiko, adierazitako... gisako elementuren batez, letra xehez idatzi behar da.

Harro nago gure parlamentua errespetuaren eredu izan delako.

Maiatzaren 6ko bozetatik sortutako parlamentu berria ere osatu dute Grezian.

Noiz arte emanen diozue bizkarra legebiltzar honen gehiengoaren borondateari?

Gainerako kasuetan, letra larriz edo letra xehez hasita idatz daiteke, erakundeen kasuan bezala (ikus 2.3.5.3 *puntua*).

Abortuaren lege proposamen berria atzera bota du Irlandan **legebiltzarrak/Legebiltzarrak**.

Lehen ministroak berriro eskatuko dio **parlamentuari/Parlamentuari** hauteskundeak aurreratzeko

Zeelanda Berrian abortua legez kontrakoa izatea urte luzez izan da gatazka(-)iturri. Bada, aldaketarako azken urratsa egin zuen atzo **parlamentuak/Parlamentuak**.

Adiera generikoan edo pluralean erabiltzen denean, letra xehez hasita idazten da.

Auzitegiak parlamentuen gainetik jarri izana salatu dute.

AEBko, Mexikoko eta Kanadako parlamentuen oniritzia lotu behar da orain.

Frankismoan, ganbera bakarreko gorte organiko batzuk ezarri ziren, baina benetako *parlamentu baten* ezaugarririk gabe.

g) polizia

Polizia hitza letra larriz hasita idazten da instituzioaren izenaren parte denean eta izen osoa idazten denean (*Ertzaintza, Udaltzaingoa, Foruzaingoa* hitzak ere bai).

Aste Santuetako opor(-)egunetan errepideetako kontrolak indartuko dituzte Hego Euskal Herrian Ertzaintzak, Polizia Nazionalak eta Guardia Zibilak.

Frantziako Polizia Nazionalak manifestariak eta protestariak barreiatzeko darabilen granada mota bati buruz ari zen hizketan.

Tuteran gertaturiko sexu(-)eraso bat ikertzen ari da Nafarroako Foruzaingoa.

Zer instituzio den garbi dagoenean —lehenago aipatu delako edo testuinguruak argitzen duelako— osorik aipatu beharrean parte generikoa bakarrik erabiltzen bada baina beste elementuren batez lagunduta, hala nola erakusleren batez (polizia hau), adjektiboren batez (polizia berria), posesiboren batez (gure polizia) edo delako, aipaturiko, adierazitako... gisako elementuren batez, letra xehez idatzi behar da.

Aste honetan bertan, Iskandariako Irakeko polizia berriaren egoitza eta Armada berrirako soldaduak biltzeko zentroa atentatuen jomuga izan dira.

Ez dut onartuko gure poliziaren aurkako irain eta gezurrik.

Pinocheten diktadurako polizia sekretuaren izena Dina zen.

Gainerako kasuetan, letra larriz edo letra xehez hasita idatz daiteke, erakundeen kasuan bezala (ikus 2.3.5.3 puntua).

Bere burua entregatu du **poliziarenean/Poliziarenean**.

2006tik 2008ra **Poliziaren/poliziaren** zuzendaria izandako Joan Mesquida Balear Uharteetako hirigintza(-)sektorearekin loturiko enpresa bateko presidentea da.

1936an Alemaniako **Polizia/polizia** Himmlerren esku geratu zen.

Jerusalemen, manifestariei oldartu zitzaien **Polizia/polizia** atzo.

Polizia-taldea (poliziak) adierazteko, letra larriz hasita idazten da poliziakidea adieratik bereiztearren. Adibide hauetan, *Polizia* hitzak ez du adierazten poliziakide bat, pertsona bakar bat, baizik eta polizia batzuk:

Joan den astean, haren etxea miatu zuen Poliziak.

Gogor ekin zion Poliziak manifestarien aurka.

Kazetari bat atxilotu zuen Poliziak.

Eta poliziakideak adierazteko, edo hitz arrunt diren hitz-elkarteen parte denean, letra xehez.

polizia(-)indarrak, polizia(-)aparatura, polizia(-)txakurra, polizia(-)jarduna.

Pistola eskuan zeukala sartu zen polizia bat banketxean.

Tiro egin zion poliziari eta larri zauritu zuen.

Berehala iritsi ziren polizia gehiago.

2.3.6 Era guztietako erakunde, instituzio eta entitateen barneko kudeaketa-organo, sail, atal, arlo, zerbitzu eta batzordeen izenak

Erakunde eta instituzioen barnean formalki eratuta dauden eta erakundeen organigrama ofizialen parte diren unitate funtzionalen izendapenak letra larriz hasita idazten dira.

Euskaltzaindiaren Zuzendaritza, Euskaltzaindiaren Jagon Saila, Euskaltzaindiaren Onomastika Zerbitzua, Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea, Euskara Batuaren Eskuliburua Batzordea, Morfosintaxiaren Estandarizazioa Batzorde Ahaldundua, Eusko Jaurlaritzako Kontseilua, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Zuzendaritza Batzordea, *Arabako Toki Administrazioa eta Finantzetako Lurralde Kontseilua*, Euskararen Aholku Batzordea, Terminologia Batzordea, Alergologia Zerbitzua, Basaburuko Udalaren Hirigintza Batzordea, EHUko Klaustroa, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Europako Inbertsio Bankuaren Administrazio Kontseilua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentua, Cideteceko Polimeroen eta Konpositeen Unitatea, Elhuyar Fundazioaren Patronatua, Osasun Zerbitzuen Plangintza, Antolamendu eta Kontratazio Atala, Nafarroako Ospitaleguneko Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorraren Zerbitzua, Larrialdietako

Kirurgiaren Unitate Klinikoa, Agintaritza eta Kontrol Zentro Nagusiaren Unitatea, Kontsultetarako eta Proba Osagarrietarako Zitazio Unitatea, EAEko Izatezko Bikoteen Erregistroa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Arlo Zibil eta Penaleko Sala, Arrigorriaga Institutuko Matematika Departamentua, Elgoibarko Euskara Mintegia, Eskualdeetako Lantaldea, Ikerketaren Arloko Errektoreordetza, IZOko Hizkuntza Irizpideen Lantaldea, Hizkuntza Kalitateko Lantaldea.

Modu generikoan erabiltzen direnean, letra xehez hasita idazten dira:

Zein dira hirigintza(-)batzordeen funtzioak udaletan?

Laster harrera(-)zerbitzu bat antolatu beharko dugu herritarrei harrera egokia egiteko.

OHARRA

Osoko Bilkura letra larriz hasita idazten da erakunde baten kudeaketa-organo bat adierazten duenean, eta letra xehez —*osoko bilkura*— bilera adierazten duenean.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Osoko Bilkuraren erabakia

Dokumentua Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurak onetsi du.

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Osoko Bilkurari proposatu dio puntu horiek hurrengo osoko bilkuretan garatzea eta, horretarako, alde aurretik behar diren txostenak egitea.

Heldu den hilean, Euskaltzaindiak osoko bilkura eta ageriko bilkura eginen ditu Iruñeko udaletxean.

Busturiko Udalaren hurrengo osoko bilkura datorren ostiralean izango da.

Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak, bilkuraldi honetako azken saioan, hiru lege onetsi ditu.

Modu generikoan erabiltzen denean, letra xehez.

Udaletan, alkateak eta zinegotziek osatzen dute osoko bilkura.

2.3.7 Sinboloak

Neurri-unitateen eta haien aurrizkien sinboloak nazioartekoak dira, eta berdin idazten dira hizkuntza guztietan (metroa m; amperea A; kilogramoa, kg; megawatt, MW). Sinbolo eta aurrizki batzuk letra larriz idazten dira eta beste batzuk ez, hala arautuak nazioarteko hitzarmenez (ikus *Euskara Batuaren Ortotipografiako* sinboloen atala).

2.3.8 Fenomeno meteorologikoak

Fenomeno meteorologikoen izen bereziak, hala nola tifoï, urakan, zikloi eta ekaitzenak, letra larriz hasita eta letra etzanez idazten dira.

Katrina eta *Sandy* izan dira Estatu Batuetan orain arte kalterik handienak eragin dituzten urakanak.

Zer urtetan izan zen *Mitch* urakana?

2021eko urtarrilean, *Filomena* elur(-)ekaitzak astindu zuen Espainia.

Aurtengo *El Niño* fenomenoak.

2.3.9 Biologia: animalien eta landareen izen zientifikoak

Biologian, generoaren eta generotik gorako taxonak adierazteko, izen latinizatuak erabiltzen dira eta letra larriz hasita idazten dira (ikus 2.3.4.1 puntua).

2.3.10 Denbora-erreferentziak: aldiak geologian eta historian, ospakizunak eta jaiak

2.3.10.1 Aldi geologikoak

Geologian eta paleontologian, denbora-tarteak adierazteko erabiltzen diren unitate geokronologikoen (eon, era, periodo, epoka eta aroa) eta unitate estratigrafikoen izenak (eontema, eratema, sistema, serie eta estaia) letra larriz hasita idazten dira.

Kretazeoa, Kanbriarra, Kanbriarraurrea, Jurasikoa, Paleogenoa, Mesozoikoa, Sekundarioa, Devoniarra, Arkearra, Holozenoa, Antropozenoa.

Haietako bakoitzaren barneko aldiak izendatzen dituzten izenak ere letra larriz hasita idazten dira.

Goi Triasikoa, Erdi Jurasikoa, Goi Kretazeoa.

Izen horiek adjektibo gisa erabiltzen direnean, letra xehez idazten dira.

erliebe jurasikoa, hareharri devoniarrek, arroka kretazeoak, metakin triasikoak.

2.3.10.2 Historiaren eta historiaurrearen aldiak

Gizateriaren aldiak izendatzeko erabiltzen diren historiaurreko zein historiako aroen izenak letra larriz hasita idazten dira.

Neolitoa, Brontze Aroa, Burdin Aroa, Metal Aroa, Paleolitoa.

Antzinaroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa, Aro Garaikidea.

Haien barneko aldiak izendatzen dituzten izenak ere letra larriz hasita idazten dira.

Behe Paleolitoa, Erdi Paleolitoa, Goi Paleolitoa, Behe Brontze Aroa.

Behe Erdi Aroa, Goi Erdi Aroa.

Kultura arkeologikoen aldiak izendatzen dituzten izen bereziak letra larriz hasita idazten dira.

Madeleine aldia, Aurignac aldia, Solutre aldia, Acheul aldia.

2.3.10.3 Erregimenen izenen bidez edo izen arruntez adierazitako aldi historikoak

Aroez gainera, aldi historiko berezi eta jakin batzuk aipatzeko, izen arruntez edo izenez eta beste zenbait osagaiz osatutako izendapenak erabiltzen dira modu antonomasikoan historiografian, eta letra larriz hasita idazten (batzuetan, erregimen-motaren izena baliatzen da izendapen antonomasikoa eratzeko: *errepublika, inperioa...*)

Antzinatea (gehienbat Erroma eta Grezia klasikoaren garaia adierazteko), Antzinako Erregimena (Aro Modernoa izendatzeko), Errenazimentua, Hirurteko Konstituzionala, Argien Mendea, Pizkundea, Errestaurazioa (erregimen politiko jakin baten berrezartzearen iraunaldia adierazteko), Gerra Hotza.

Behe Inperioa, Bigarren Errepublika, Weimarko Errepublika, V. Errepublika, Lehen Inperioa, Bigarren Inperioa, Hirugarren Reicha.

2.3.10.4 Jaiegunak, ospakizunak eta festak

2.3.10.4.1 Jai erlijioso eta kidekoen izenak

Jai erlijiosoen eta kidekoen izendapena osatzen duten izen eta adjektiboak letra larriz hasita idazten dira.

Bestaberri, Bisitazio, Corpus, Domu Santu, Domu Santuru, Eguberri, Epifania, Erramu, Gabon, Garbikunde, Gorpuzti, Hausterre, Igokunde,

Jasokunde, Kandelario, Larunbat Santu, Mendekoste, Olentzero, Omiasaindu, Ostegun Santu, Ostiral Santu, Pazko, Pazko Garizumako, Pazko Loratu, Pazko Maiatzeko, Salbatore, Urtats, Urteberri, Urtezahar [*Urtezahar* ez da, berez, jai erlijiosoa, baina *Urteberri* jaiaren analogiaz sortua da].

Jaiaren izenarekin batera *egun* hitza erabiltzen denean, letra xehez idazten da eguna izendapenaren nahitaezko parte ez denean.

Mendekoste **eguna**, Erramu **eguna**.

(*egun* hitza gabe ere erabiltzen dira: Mendekoste aitzineko astea, Erramu goiz batean.)

Letra larriz hasita idazten da, berriz, izendapenaren parte bereizezina denean.

Arimen **Eguna**, Santu Guztien **Eguna**.

Santuen izendegiko egunetan, *egun* hitza letra xehez idazten da.

Uztailaren 31n San Ignazio **eguna** da, eta 26an Santa Ana **eguna**.

OHARRA

Jaiegunaren izenaren ondoren denbora-erreferentzia duen izen bat (*bezpera, biharamuna, gaua, astea...*) jaiaren izenarekin batera jartzen denean, izen hori letra xehez idazten da.

Domu Santu biharamuna, Eguberri arratsa, Eguberri gaua, Eguberri bezpera, Erramu arratsaldeko elizkizuna, Errege bezpera, Pazko astea, Pazko astelehena, Pazko bezpera, Pazko garaia, Santa Ana biharamuna.

2.3.10.4.2 Jaiaren inguruko aldiaren izenak

Zenbaitetan, jaiegun jakin bati dagokion izena, hedaturaz, jai horri dagokion aldia —hau da, egun-tarte jakin bat— adierazteko erabiltzen da, bai eta harekin erlazionatuta edo haren inguruan izaten diren ospakizunak adierazteko ere. Adiera-zabaltze hori gertatzen denean, jaiaren izena pluralean erabiltzen da.

Jaiaren jatorrian santu edo santa baten izena dagoenean, santu, santa, andre eta andra letra xehez eta ondoko izenari loturik idazten dira santuaren izenetik eratorritako herri eta hirietako jaien izenetan.

sanferminak, santakatalinak, sanprudentzioak, andremariak, andramariak, santanak, sanblasak, sanjoanak, sanrokeak.

Jatorrian santu-izenik ez izanda ere jaiegun batetik eratorrita aldi bat adierazten duten eta pluralez erabiltzen diren gainerako izenak ere berdin idazten dira.

eguberriak, gabonak, mendekosteak.

Oso eguraldi epela izan dugu eguberri hauetan. Herrira joan da, gabonak aitona-amonekin igarotzeko.

OHARRA

Santu-izenik ez duten jaien kasuan jaiegunaren izena letra larriz hasita idazten bada, jaiegunaren inguruko aldia ere, analogiaz, letra larriz hasita idazteak ere badu logika, eta ez dago gaitzesterik. Alegia, Eguberri eta Eguberriak, Eguberrietan...; Gabon eta Gabonak, Gabonetan, Gabonetako...; Mendekoste eta Mendekosteak.

OHARRA

Jaiaren izena ezkerretik hitz bati lotzen zaionean mendekotasunezko hitz-elkarte bat (*behi(-)esne* moduko izen elkartu bat) sortzeko, mugakizuna (hitz-elkartean eskuinean dagoen hitza) hitz arrunta da; beraz, hitz-elkartea ere sail bereko hitz arrunta da. Horrenbestez, hasierako letra xehea dagokio, bai lexikalizatuta dagoelako loturik idaztekoa denean (*gabonsari*), bai marratxoz zein bereiz idaztekoa denean (*gabon kanta, gabon-kanta*)¹⁸. Hitz-elkartea osatzen ez badute, bakoitzak dagokion idazkera du: Eguberriko kantak baina eguberri-kantak.

domusanturu(-)lili, eguberri(-)udare, gabon(-)afari, gabon(-)su, gabon eske, gabon(-)subil, mendekoste(-)gerezi, olentzero(-)afari, omiasaindu(-)lore, pazko(-)argi, pazko(-)bildots, pazko(-)gaubeila, pazko(-)lili, pazko(-)lore, pazko(-)mokots, pazko(-)opil, pazko(-)zuzi.

2.3.10.4.3 Aldi erlijioso edo liturgikoak

Aldi erlijioso, liturgiko eta kidekoen izendapena osatzen duten izen eta adjektiboak letra larriz hasita idazten dira.

¹⁸ Gauza bera gertatzen da letra larriz hasita idazten diren beste batzuekin ere. Adibidez, *Biblia* baina *biblia(-)paper*, *San Joan* baina *sanjoan(-)lore*.

Abendua, Garizuma, Aste Santua, Ramadana.

OHARRA

Abendu hitzak hilabetea adierazten duenean, abendua idazten da, letra xehez. Ramadan hitzak egutegi musulmaneko hilabetea adierazten duenean, letra xehez erabiltzen da, ramadana. Adiera hertsian, aldi erlijioso hutsa adierazi nahi denean soilik idazten da letra larriz hasita. Adiera-desberdintasuna oso ñabardura fina da, dena dela.

2.3.10.4.4 Jaiaren ondorengo egun seinalatuak

Jai baten hurrengo eguna edo egun batzuk jaiari erreferentzia eginez izendatu ohi dira. Halakoetan, ordinala (bigarren, hirugarren...) erabili ohi da izenondo gisa, hau da, jaiaren izenaren ondoren. Bestalde, jaia izan zenetik astebete igaro dela adierazteko, zahar adjektiboa erabiltzen da kasu batzuetan. Halakoetan, izenondo gisa erabiltzen diren hitz horiek letra xehez idaztekoak dira.

Eguberri bigarreanean, Eguberri laugarrena, Errege bigarrena, Salbatore bigarrena, San Fermin bigarrena, Gabon gau bigarreanean, Gabon zaharreen, Mendekoste zaharra, Pazko bigarrena, Pazko hirugarrena, Pazko zaharra.

2.3.10.4.5 Zerbait ospatzeko ordua, eguna, astea, hilabetea edo urtea: jai zibilak

Zerbait ospatzeko, gogora ekartzeko edo erreibindikatzeko izendatzen diren egunak (gehienetan, egunak dira, baina ordua, astea, hilabetea edo urtea ere izan daitezke) izendapen deskribatzaile baten bidez adierazten dira, eta *egun* (edo *ordu*, *aste*, *hilabete*, *urte*) hitza izendapen horren berezko parte da. Halakoetan, denbora adierazten duen hitza ere (eguna, astea...) letra larriz hasita idazten da, jaiaren izenaren parte baita.

Planetaren Ordua, Eskerrak Emateko Eguna, Emakumeen Nazioarteko Eguna, Liburuaren Nazioarteko Eguna, Armistizioaren Eguna, Kantuaren Eguna, Euskararen Eguna, Elkanoren Eguna, Sagardoaren Eguna, Arrantzalearen Eguna, Berdelaren Eguna, Bertsoaren Eguna, Artzainaren Eguna, Xalbadorren Eguna, Nafarroaren Eguna, Langileen Nazioarteko Eguna, Ingurumenaren Mundu Eguna, Hiesaren Mundu Eguna, Giza Eskubideen Urtea, Zientziaren eta Bakearen Nazioarteko Astea, Aste Nagusia, Euskal Kostaldeko Museoen Hilabetea.

Ostegun Gizena, Lerdo Eguna, Ostiral Mehea, Zaldunita; Gau Beltza [urriaren hogeita hamaika]; Ostiral Beltza [Black Friday].

Gertaera historiko bat data baten bidez adierazten denean, gertaera historiko horri dagokion jaieguna letra larriz hasita idazten da:

Dendak itxita egongo dira Maiatzaren Lehenean.

Urte hartan, frantsesek handikiro ospatu zuten Uztailaren Hamalaua.

Katalan guztiak elkartu ziren Irailaren Hamaika (Kataluniako Diada) ospatzeko.

Europako lurralde askotan ospatzen da Azaroaren Hamaika, hau da, Armistizioaren Eguna.

2.3.11 Gertaera historikoak (gerrak, guduak, iraultzak, itunak...)

Gertaera historiko nagusi asko historiako aldi jakinak izendatzeko erabiltzen dira. Gehienetan, bi izen baliatzen dira gertaera izendatzeko, espezifikoa bat eta generikoa bat: espezifikoa izen berezia izan ohi da (askotan, leku-izen bat izaten da, gertaeraren lekua adierazten duena), eta generikoa sailkatzaile bat izaten da, zer gertaera-mota den adierazten duen izen arrunt bat. Hala osatutako izendapenak gertaera modu argian adierazten duenean, ez da beharrezkoa generikoa letra larriz hasita idaztea: atal espezifikoa letra larriz hasita idazten da, eta atal generikoa letra xehez. Egitura **A-ko b** edo **A-ren b** izaten da, **A** izen espezifikoa eta **b** izen generikoa izanik.

Hori da gerra eta gudu gehienek kasua.

Malvinetako gerra, Vietnamgo gerra, Golkoko gerra, Troiako gerra; Kubako independentzia(-)gerra, Estatu Batuetako sezesio(-)gerra, Espainiako ondorengotza(-)gerra, Suediako askapen(-)gerra; Iran-Irak gerra (edo Iranen eta Iraken arteko gerra); Austria-Prusia gerra (edo Austriaren eta Prusiaren arteko gerra); 1936ko gerra; Ehun Urteko gerra, Sei Eguneko gerra; Bi Arrosen gerra, Aliantza Hirukoitzaren gerra, Opioren gerra; Noaingo gudua, Lepantoko gudua, Borodinoko gudua, Ardenetako gudua, Termopiletako gudua, Ingalaterrako gudua.

Gerra hitzaren laguntzarik gabe gerra jakin bat adierazten duten *karlistaldi* eta *gurutzada* hitzen kasuan ere, letra xehea erabiltzen da.

lehen karlistaldia, laugarren gurutzada.

Era horretara eratzen dira bestelako gertaera historiko ugari ere:

Tuterako setioa, Vienako setioa, Normandiako lehorreratzea, Saigonen erorialdia, Erromatar Inperioaren erorialdia, Bastillaren hartzea, Espainiako trantsizioa, Montrealen kapitulazioa, Japoniaren errenditzea, Katilinaren konspirazioa, Bolboraren konspirazioa, Gatzaren matxinada, Boxerren matxinada, Inbestiduren auzia.

Zenbaitetan, ordea, izendapenak ez du aurreko kasuetan bezain modu gardenean islatzen izendatzen ari den gertaera, edo erabilera antonomasikoa du (onartu beharra dago, dena dela, hori ez dagoela beti begien bistan eta ez dela beti-beti erraza objektibatzea). Orduan, erabiltzen den izendapena izen berezi bihurtzen da, eta letra larriz hasita idazten. Adibidez, *San Bartolome Gaua* ez da San Bartolome egunaren gaua, baizik eta 1572an San Bartolome egunaren gauean Parisen abiatu zen higanoten hilketa masiboa, eta *Erreforma* ez da edozein erreforma, baizik eta XVI. mendean Martin Lutero Europar abian jarri zuen mugimendu erlijiosoa.

Pragako Udaberria, Zisma Handia, Mendebaldeko Zisma, San Bartolome Gaua, Holokaustoa, Erreforma, Kontrarreforma, Martxa Luzea; Kristal Hautsien Gaua, Labana Luzeen Gaua; Gerra Hotza.

Letra larriz hasita idazten dira bi mundu-gerrak ere, izendapen erabat gardenak izan arren, beren izaera eta muntagatik: Lehen Mundu Gerra, Bigarren Mundu Gerra.

Izendapen antonomasikoak dira hauek ere:

Gerra Zibila (gerra zibil jakin bat adierazteko erabiltzen denean; adibidez, Espainiako gerra zibila adierazteko), Ondorengotza Gerra (adibidez, Portugalgo ondorengotza-gerra), Sezesio Gerra (Estatu Batuetako gerra zibila), Gerra Handia (Lehen Mundu Gerra), Trantsizioa (Espainiako erregimen frankistaren ondorengo trantsizio politikoa), Berrezarkuntza (adibidez, Frantzia 1814an gertatu zena), Aste Tragikoa (Katalunian 1909an gertatu zena), Ehun Egunak (gerra napoleonikoei amaia eman zien aldia), (19)68ko Maiatza (Frantzia, Parisen gehienbat, 1968ko maiatzean izan ziren protestak), Maiatzaren Bia (Madrilen 1808ko maiatzaren 2an izan zen altxamendua), Abuztuaren Lauko Gaua (1789ko

abuztuaren 4ko gauean Frantziako Biltzar Konstituziogileak sistema feudala abolitu zuen Frantzian), Errekonkista (Iberiar penintsulako historiaren aldi bat), Risorgimentoa (Italiako Estatuaren historiaren aldi bat, XIX. mendeko bigarren erdian gertatu zena), Entente Hirukoitza (Frantziak, Erresuma Batuak eta Errusiak 1907an egindako ituna).

Iraultzak ere gertaera historikoak dira, eta zenbait kasu bereizi behar dira letra larria edo xehea erabiltzeari dagokionez.

LETRA LARRIZ HASITA

Gertaera historiko nabarmen bat adierazten duenean, leku jakin bateko bakarra izan bada edo modu autonomasikoan erabiltzen bada, letra larriz hasita idazten da *iraultza* hitza, bai eta harekin batera erabiltzen diren adjektiboak ere.

Frantziako Iraultza edo Iraultza Handia

[modu autonomasikoan adierazita dago; Frantzian iraultza bat baino gehiago izan dira —1789an, 1830ean, 1848an—, baina, ezer zehazten ez denean, *Frantziako Iraultza* izendapenak Frantzian 1789an izan zen iraultza adierazten du.]

Industria Iraultza

[autonomasikoa: XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera Erresuma Batuan hasi zena. Industria-iraultza gehiago izan dira gerora: bigarren industria-iraultza XIX. mendearen bukaeran; hirugarren industria-iraultza XXI. mendearen hasieran abiatua.]

Errusiako Iraultza edo Sobietar Iraultza

[autonomasikoa: 1917ko iraultza adierazten du, ez 1905ekoa.]

Kubako Iraultza

[bakarra da Kuban, 1953-1958 bitartean gertatua.]

Mexikoko Iraultza

[bakarra da Mexikon, eta 1910-1920 bitarteko gertaerak adierazten ditu.]

Izendapena gardena ez denean, letra larriz hasita idazten da *iraultza* hitza, bai eta berarekin batera dauden izenlagun eta izenondoak ere.

Urriko Iraultza [Errusiako 1917ko urriko iraultza], Otsaileko Iraultza [Errusiako 1917ko otsaileko iraultza], Krabelinen Iraultza edo Apirileko Iraultza [Portugalgo 1974ko iraultza], Iraultza Laranja [Ukrainako 2004-2005 bitartekoa], Langileriaren Iraultza Kulturala edo Txinako Iraultza Kulturala [Txinan 1966-1976 bitartean gertatua], Iraultza Loriatsua [Espainiako 1868ko iraultza], Iraultza Konstituzionalista [Mexikoko 1913ko iraultza], Azaroko Iraultza [Alemaniako 1919ko iraultza].

LETRA XEHEZ HASITA

Data (urtea) adierazten denean, berriz, adierazpen garbia da, eta ez da letra larririk behar.

Errusiako 1905eko iraultza, Errusiako 1917ko iraultza, Frantziako 1798ko iraultza, Frantziako 1848ko iraultza.

Izendapena gardena eta deskribatzaile hutsa denean, ez da letra larririk behar.

iraultza berdea, lehenengo industria(-)iraultza, bigarren industria(-)iraultza.

Gerrak, iraultzak eta kidekoak modu generikoan edo multzo gisa izendatzen direnean, izendapen deskribatzaile gisa, letra xehez.

erlijio(-)gerrak, iraultza(-)gerrak, gerra napoleonikoak, gurutzadak, karlistaldiak; gerra punikoak¹⁹, gerra medikoak²⁰.

Nanoteknologia XXI. mendeko industria-iraultza izango dela uste dute adituek.

Zentzugabekeria galanta litzateke erdal hitzen aurkako gurutzada berriro piztea.

Izendapen berezi batez bataiatutako auzi, afera, operazio, kanpaina eta kidekoen generikoa letra arruntez idazten da, aposizioan doanean.

¹⁹ Erromaren eta Kartagoren arteko gerrak, K.a. III. eta II. mendeetan. *Puniko* adjektiboaren jatorria latinezko *punicus* da, kartagotarrak izendatzeko izena, eta hortik eratorri da adjektiboa.

²⁰ Greziako hiri-estatuen eta Persiaren arteko gerrak, K.a. V. mendean. *Mediko* adjektiboaren jatorria latinezko *medicus* da, jatorria *Media* leku-izenean duen adjektiboa.

Torch operazioa, Dreyfus afera, Bofors afera, Watergate auzia, Urralburu auzia, Ostadar operazioa, Basamortuko Ekaitza operazioa, Malaspina espedizioa.

Itun, bake, aliantza, kongresu eta kidekoen izenetan, izen generikoa ere letra larriz hasita idazten dira.

Bergarako Hitzarmena, Westfaliako Bakea, Aliantza Hirukoitza, Vienako Konbentzioa, Nantesko Ediktua, Berlingo Kongresua, Potsdamgo Konferentzia, Aieteko Konferentzia, Lizarrako Ituna, Santoñako Ituna, Maastrichteko Tratatuak, Arma Nuklearrak Ez Ugaltzeko Ituna.

2.3.11.1 Historiako erresumen, inperioen eta kidekoen izenak

Entitate politikoaren izenetan, generikoa letra larriz hasita idazten da (ikus, halaber, 2.3.1.5 puntua).

Nafarroako Erresuma, Akitaniako Dukerria, Peruko Erregeorderrria, Erromatar Inperioa, Bizantziar Inperioa, Germaniako Erromatar Inperio Santua, Britainiar Inperioa, Otomandar Inperioa, Austro-hungariar Inperioa.

Pluralean edo modu generikoan aipatzen direnean, letra xehez hasita²¹.

erresuma kristauak, Granadako erresuma musulmana, hititen inperioa, inken erresuma, taifa(-)erresumak.

2.3.12 Hezkuntza-, politika-, zientzia- eta gizarte-jarduerak

2.3.12.1 Hezkuntza arautuaren barneko hezkuntza-zikloak, irakasgaiak eta jakintza-alorrak

Hezkuntzako ikasketa-zikloen edo aldien izenak ez dira, berez, izendapen bereziak, eta letra xehez idazten dira adiera orokorrean.

Bere herri txikian ez zuen aukerarik goi(-)mailako hezkuntza jasotzeko.

Italian jaso zuen lehen hezkuntza.

²¹ Inperioak modu formalean izendatzen ez direnean, ez da beharrezkoa letra larriz hasita idaztea. Adibidez, Britainiar Inperioa izendapen formalaren aldean, britainiarren inperioa adierazpen ez-formala dago, edo Espainiako eta Indietako Erresuma izendapen formalaren aldean, espainolen inperioa.

Informazioa eskuratu behar da zer batxilergo(-)mota egin aukeratu baino lehen.

Hego Euskal Herrian, izen berezizat hartzen dira hezkuntza arautuaren sistemako zikloak. Horregatik, letra larriz hasita idazten dira hezkuntza arautuaren barneko maila ofizialen izendapenen osagai nagusi guztiak.

Oinarrizko Hezkuntza Orokorra, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa, Batxilergoa, Lanbide Heziketa.

Espanian, bigarren hezkuntzaren barnean bi ziklo hauek daude: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.

Hezkuntza arautuko irakasgai ofizialen izendapena osatzen duten izenak eta adjektiboak letra larriz hasita idazten dira. Beste hainbeste heziketa-zikloen, lanbide-arloen eta programen eta gradu-ikasketen izenen kasuan.

Zein da, aurtun, Konstituzio Zuzenbidea IIIko irakaslea?

Datorren ikasturtean, Adimen Artifizialeko gradua ikasten hasiko da Ane.

EHUn, Soziologiako graduan, hiru espezializazio(-)ibilbide daude: Gizarte Arazoen Analisia eta Kudeaketa; Gizarte Ongizatea; eta Gizarte Erakundeak, Sareak eta Prozesuak.

Asko kostata, Zirkuituen Teoria gainditzea lortu nuen.

Gaur, Adierazpen Grafikoko azterketa daukat; bihar, Kalkulukoa.

EHUko doktorego(-)programak bost sailetan banatuta daude: Zientzia Esperimentalak, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Giza Zientziak eta Irakaskuntza Teknikoak.

Masterraren izenburua: Eraikitako Ondarearen eta Eraikinen Birgaitze, Zaharberitze eta Kudeaketa.

Diziplinarteko Estrategia Zientifikoak Ondarean eta Paisaian doktorego(-)programa.

Dena dela, masterren, Lanbide Heziketako moduluen eta lantegien edo irakasgaien izenburuak luzeak direnean, izenburuko lehenengo hitzaren lehen letra bakarrik idazten da larriz.

Irudia eta Soinua lanbide(-)arloan, goi(-)mailako heziketa(-)zikloen artean, modulu hau dago: Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen administrazioa eta sustapena.

Lanbide(-)moduluaren izena: Osasunaren sustapena eta pazientearentzako laguntza psikologikoa.

Hezkuntza arautuaren eremutik kanpo, esanahi generikoa dutenean, letra xehez idazten dira arteen, zientzien eta diziplinen izenak.

Teknikari egokiak lortuko badira, arretaz zaindu behar da lanbide(-)heziketa edozein herrialdetan.

Zientziaren aurrerapenik handienak genetikatik etorriko dira.

Beti izan ditu gustuko geografia eta historia.

Gure ama Matematikan lizentziaduna da, baina ez du inoiz lan egin matematikaren arloan.

Hiztegi honetan, traumatologiaren arloko terminologia bildu da.

Hizlaria Traumatologiako katedraduna da, eta traumatologiaren etorkizunaz mintzatuko da.

OHARRA

Askotan, irakasgaiaren izena eta diziplinaren izena bat datoz. Orduan, zenbaitetan bietara idatz liteke:

Oso ondo egin zuen matematikako azterketa (matematikaren arlokoa).

Oso ondo egin zuen Matematikako azterketa (Matematika irakasgaikoa).

2.3.12.2 Ikastaroak, mintegiak eta tailerrak, arautuak zein ez-arautuak

Gai jakin bati buruzko eskola- eta jarduera-sorten izenak letra larriz hasita idazten dira.

Ikastaroaren izena: Baratzea nire balkoian.

Laburrak direnean, irakasgaiak bezala idatz daitezke, hitz nagusi guztiak letra larriz hasita, baina, luzeak badira, lehen hitza bakarrik idazten da larriz.

EHUren Udako Ikastaroen iazko edizioan, Teknologia berritzaileak arkitektura jasangarriaren garapenerako ikastaroan izan nintzen.

Testu baten barnean gertatzen direnean, eta letra larriz lehenengo hitza baino ez dagoenean, komatxo artean idatz daitezke testutik bereizi behar izanez gero.

EHUren Udako Ikastaroen iazko edizioan, “Teknologia berritzaileak arkitektura jasangarriaren garapenerako” ikastaroan izan nintzen.

Bihar hasiko da “Oinarrizko ornitologia: hegaztiak identifikatzen” ikastaroa.

2.3.13 Azokak, kongresuak, erakusketak, jaialdiak eta kideko jendaurreko ikuskizunak

Letra larriz hasita idazten dira erakunde publiko zein pribatuek edo gizarteko edozein talde edo elkartek antolatutako izaera formaleko bileren izendapenen hitz nagusi guztiak. Halakoak dira zientzia eta teknologiaren, enpresa eta merkataritzaren, artearen edo kulturaren arloko biltzarrak, kongresuak, jardunaldiak, topaketak, mahai-inguruak, erakusketak, lehiaketak, azokak, erakustazokak, sinposioak, konbentzioak eta abar.

Gasteizko Jazz Jaialdia, Bigarren Euskal Mundu Biltzarra, Nazioarteko Terminologia Biltzarra, Urari buruzko Nazioarteko Konferentzia, Parisko 1889ko Erakusketa Unibertsala, Komunikazio Digitalaren eta Ziberkazaritzaren Nazioarteko Kongresua, Ondarearen Europako Jardunaldiak, Durangoko Azoka, Bartzelonako Nazioarteko Komiki Azoka, Arte Digitalaren Nazioarteko Erakusketa, Donostiako Su Festen Nazioarteko Lehiaketa, Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa, Ekonomia Zirkularrari buruzko Nazioarteko Topaketa, Makina-erremintaren Biurtekoa, Euskadi-Katalunia II. Mintegia, Alderdi Errepublikanoaren Konbentzio Nazionala, Vatikanoko II. Kontzilioa, Donostiako Nazioarteko Zinemaldia.

Bileraren izendapenak, batzuetan, berariazko izenburua du, eta izenburu horren ondoren jartzen da gero izen generikoa, aposizio-egitura bat osatuz. Kasu horietan, generiko hori ez da izendapenaren parte, eta letra xehez idazten da. Adibide hauetan, *solasaldi*, *jaialdi* eta *kongresu* hitzak letra xehez idaztekoak dira:

Hamaika Gara *solasaldiak*

[*Hamaika Gara* izeneko solasaldiak dira.]

Oilo Pop *jaialdia* gaur Bermeon

[*Oilo Pop* izeneko jaialdia da.]

Unibertsitateko Prestakuntza Duala Europako Unibertsitate Eremuan
kongresua

[*Unibertsitateko Prestakuntza Duala Europako Unibertsitate Eremuan* izeneko kongresua da.]

Kasu horietan, izen generikoa ez da izendapenaren parte; horregatik, ez da nahitaez hari atxikia eta ondotik idatzi behar, adibide hauetan ikusten den bezala:

Hamaika Gara oso solasaldi arrakastatsuak izan dira aurtan.

Eskerrik asko Oilo Popen elkartu zineten lagun guztiei.

Eta hau izango da datorren asteko kongresua: Unibertsitateko Prestakuntza Duala Europako Unibertsitate Eremuan.

Aldiz, Komunikazio Digitalaren eta Ziberkazaritzaren Nazioarteko Kongresua, Nazioarteko Terminologia Biltzarra edo Makina-erremintaren Biurtekoa moduko izendapenetan, *Kongresua*, *Biltzarra* eta *Biurtekoa* hitzak izendapenaren parte nahitaezko dira, Komunikazio Digitalaren eta Ziberkazaritzaren Nazioarteko edo Nazioarteko Terminologia edo Makina-erremintaren ezin baitira izendapen izan, ezin baitira generikorik gabe erabili.

Izena luzea denean, letra larriz lehenengo hitza bakarrik jar daiteke eta komatxo artean idatzi.

“Euskadi munduan. Hiru lehendakariren gogoeta” konferentzia(-)zikloa

"Elikaduraren sektorean lan(-)testuinguru lehiakor berriak sortzeko aukerak" jardunaldia

"Bioetika eta zaintzak pandemia garaian" kongresua

2.3.14 Kirol-probak, torneoak, txapelketak eta kideko kirol-ikuskizunak

Txapelketa eta torneoen izen ofizialen hitz nagusiak letra larriz hasita idazten dira.

Tokioko Olinpiar Jokoak, Kontxako Bandera, Davis Kopa, Donostiako Urrezko Kopa, 14. Munduko Igeriketa Txapelketa, Txapeldunen Liga, UEFAren Nazioen Liga, Europa Liga, ACB Liga, Iberdrola Liga, Eusko Label Liga, Euskotren Liga, Erreginaren Kopa, Euskal Bizikleta, Urrezko Aizkolariak, Italiako Giroa, Espainiako Vuelta, Frantziako Tourra, Euskal Herriko Itzulia, Bigarren Mailako Buruz Buruzko Txapelketa, Txinako Sari Nagusia.

Izen ofizialak ez badira, izendapen deskribatzaile hutsak badira, letra xehez.

Datorren astean hasiko da saskibaloi(-)liga.

Europako herrialde gehienetan jokatzen dira dira liga eta kopa.

Lau urtez behin antolatzen dira olinpiar jokoak.

Non izango dira aurtengo olinpiar jokoak?

2.3.15 Sariak eta kidekoak

Sari, golardo, domina eta era guztietako kondekorazioen izendapenen osagai nagusiak letra larriz hasita idazten dira. Batzuetan, sariaren berezko izenari *sari* hitza aposizioan lotzen zaio. Kasu horietan, *sari* hitza letra xehez idazten da, ez baita sariaren izenaren berezko atala.

Nobel sariak, BBK Gutun Zuria Bilbao saria, CAF-Elhuyar sariak, Euskadi sariak, Oscar sariak, Femina saria, Donostia Hiria saria, Asturiasko Printzesa sariak, BBVA Fundazioaren Jakintzaren Mugak sariak, Grammy sariak, Goya sariak, Cesar sariak, Urrezko Maskorra saria, Cannesko Urrezko Palma saria, Zilarrezko Palma saria, Urrezko Hartza saria; Fields domina, Urrezko Galburua, Urrezko Baloia.

Sariaren izena deskriptiboa denean, *sari* hitza sariaren izendapenaren parte da, eta letra larriz hasita idazten da. Adibidez, Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria izendapenaren kasuan, Berdintasunaren aldeko Emakunde atala ez dago osorik, Berdintasunaren aldeko izenlagunak sari izena behar baitu osatzeko, edo, Literaturako Sari Nazionala izendapenaren kasuan, sari hitza izendapenaren osagai nahitaezkoa da.

Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria, Europako Kontseiluaren Paisaiaren Saria, Publikoaren eta Kritikarien Saria, Espainiako Gastronomia Akademiaren Gastronomiako Sari Nazionala, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren 33. Asteko Ikusleen Saria, Letra Katalanen Ohorezko Saria, Euskal Herritar Unibertsalaren Ohorezko Saria, Euskal Letren Merezimenduzko Saria; Lanaren Domina, Jendarmeria Nazionalaren Ohorezko Domina, Kanadako Royal Societyren Errege Domina, Nafarroako Urrezko Domina, Hiritar Merezimenduaren Domina, Frantziako Legioaren Ohorezko Domina, Erresistentziaren Domina.

Sarien kategoria edo atal nagusiak letra larriz hasita idazten dira, kategorien izenak diziplina-izenak edo kidekoak direnean.

Toni Morrison-ek Literaturako Nobel saria irabazi zuen 1993an.

Aurtengo Bakearen Nobel sarirako 342 hautagai aurkeztu ziren.

Gurutze Gorriari Nazioarteko Lankidetzako Asturiasko Printzesa saria eman zioten 2012an.

Musikaren, antzerkiaren, telebistaren, zinemaren eta kideko arloen sarietan, berriz, kategorien izenak letra xehez idazten dira.

Jane Campionek zuzendari onenaren Oscar saria irabazi du *Power of dog* lanarekin.

*Moonlight*ek irabazi zuen film onenaren Oscarra.

Taylor Swift kantariak hiru urtez jarraian jaso du urteko diskoaren saria Grammyetan.

Izarok eraman zuen aurreko edizioko Gaztea sarietan abestirik onenaren saria.

Kepa Junkeraren *Hiri* kantak euskarazko abestirik onenaren saria eraman zuen 2007ko Musikaren Sarietan.

Olinpiar jokoetan eta gainerako lehiaketetan irabazleei ematen zaizkien dominak letra xehez idazten dira, ez baitira izendapen bereziak.

urrezko domina, zilarrezko domina, brontzezko domina

Modu generikoan aipatzen direnean ere, letra xehez idazten dira.

ohorezko aipamenak, ohorezko medailak

Zein da kirol(-)merituaren zilarrezko dominak eta ohorezko aipamenak emateko prozedura?

Lehiaketaren irabazleei oroigarri ematen zaien gauzakia —eskulturatxoa, bustoa, kopa...— izendatzen duen hitza letra xehez idazten da.

Telmo Irureta aktorea goya eskuan zeramala sartu zen etxera.

1949an oscar bakoitzari serie(-)zenbaki bat jartzen hasi ziren. Horrela, ezin ziren faltsifikatu.

2000. urtean oscar guztiak lapurtu zituzten. Astebete geroago azaldu ziren. Urte horretatik aurrera, oscar gehiago egiten dituzte banatu behar direnak baino.

OHARRA

Saria jaso duten pertsonak aipatzeko, sariaren izena laburra denean, *-dun* atzizkia erabil daiteke, atzizki hori duen hitza letra xehez idatzita. Bestela, modu garatua erabiltzen da, baina *saridun* hitza letra xehez idazten da beti.

Telmo Irureta *goyadunari elkarrizketa egin dio Berria* egunkariak.

Telmo Irureta *Goya saridunari elkarrizketa egin dio Berria* egunkariak.

New Yorkeko ospitale batean hil da Toni Morrison nobelduna.

New Yorkeko ospitale batean hil da Toni Morrison Nobel sariduna.

2.3.16 Goiburuak, esloganak, leloak

Helburutzat edo eredutzat hartzen diren esaldiak edo esaldi gisakoak dira goiburuak, eta izaera politikokoak izan daitezke, edo erakunde baten ideala biltzekoak edo helburu komertziala edo publizitatekoa izan dezakete. Goiburuaren lehen hitza letra larriz hasita idazten da, eta, goiburua testu batean txertatzen denean, komatxo artean idazten da.

Hona hemen bi goiburu ospetsu: “Ekin eta jarrai” da Euskaltzaindiaren goiburua, eta “Asmoz eta jakitez”, berriz, Eusko Ikaskuntzarena.

Anarkistek “Ez jainkorik, ez nagusirik” leloa erabiltzen zuten.

Espainiako Erresumaren armarrian “Plus ultra” leloa ageri da.

Guztiok ezagutzen dugu “Liberté, égalité, fraternité” Frantziako Errepublikaren goiburu ospetsua.

2000. urtean hautatu zuten Europar Batasunaren goiburua: “In varietate concordia”.

EAJk “Euzkadik behar zaitu” leloa erabili zuen 1977an.

OHARRA

Testutik kanpo, armari eta kidekoetan, txanponetan edo banderetan jartzen denean (idazkunak), batzuetan hitz guztiak osorik letra larriz idatzita ageri ohi dira goiburuak.

2.3.17 Sorkuntza-obren izenburuak

Sorkuntza-obrak dira idatzizko lanak, komikiak, margolanak, eskulturak, argazkiak, musika-obrak, komunikabideetako programak, bideojokoak, blogak eta kidekoak. Oro har, haien izenburuak letra etzanez idazten dira testu batean txertatzen direnean

(liburu-azaletan edo iragarkietan agertzen direnean, testutik kanpo, ez da beharrezkoa arau ortotipografikoak betetzea, estiloak eta diseinuak agintzen baitute), eta lehen hitzeko lehen letra idazten da larriz; gainerako hitzak, berriz, letra xehez —salbu eta izen bereziak eta beren izaeragatik letra larriz hasita idatzi behar direnak—. Irizpide orokorra hori bada ere, badira salbuespenak, sailez sail aztertu beharrekoak.

2.3.17.1 Liburuak eta kideko argitalpenak

Liburuen izenburuak (eleberriak, poemak, ipuinak, saiakerak, komikiak, zientzia eta teknologiako liburuak...) letra etzanez eta lehen hitza letra larriz idazten dira.

Dante-ren *Jainkotiar komedia*.

Miren Agur Meaberen *Nola gorde errautsa golkoan* lana.

Arestiren poemarik ezagunena *Nire aitaren etxea defendituko dut* izango da, nik uste.

Arantxa Urretabizkaiak 1979an argitaratu zuen *Zergatik panpox* eleberria.

2019an Simone de Beauvoir-en *Bigarren sexua* saiakera itzuli zuen Irene Arraratsek.

Baldin eta izenburuko elementuen artean konparazioa, kontrastea edo simetria nabarmena ageri bada eta lehen elementua izenburuko lehen hitza delako letra larriz hasita idaztekoa bada, oposizioan edo erlazioan dagoen beste elementua ere letra larriz hasita idatz daiteke.

Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* liburua.

Nork idatzi zuen *Ederra eta Piztia* ipuina?

Gorria eta Beltza da Stendhalen eleberririk ezagunena.

OHARRA

Beste hizkuntza bateko izenburuak, ahal delarik, dagokion hizkuntzaren arau ortotipografikoei jarraituz idazten dira.

Pierre Choderlos de Laclos idazlearen *Les Liaisons dangereuses*.

William Shakespeareren *As You Like It* obra.

Gabriel García Márquez idazlearen *Cien años de soledad* eleberriak *Cent Ans de solitude* izenburua du frantsesez.

Hiztegi eta entziklopedien eta gramatika-liburuen eta kidekoen izenburuak deskribatzaile hutsak direnean, hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idazten dira (dena dela, izenburuak letra etzanez idazten direnez, ongi zedarrituta gelditzen da izenburua testuaren barnean, eta ez da ezinbestekoa, beraz, hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idaztea).

Noiz argitaratu zen *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* lehen bertsioa?

2021ean argitaratu zen *Euskararen Gramatika*.

*Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a 11 liburukiz osatuta dago.

Orotariko Euskal Hiztegiaren azken liburukia 2005ean argitaratu zen.

Energiaren Euskal Erakundearen *Energiaren Hiztegi Entziklopedikoa*.

Ikasliburuen izenburuek irakasgaiaren izen bera edo jakintza-alorraren izen bera izaten dute maiz. Eta irakaskuntza arautuko irakasgaien eta jakintza-alorren izenak letra larriz hasita idazten direnez, hala idatz daitezke haien izena duten ikasliburuak ere.

Naturaren Zientziak (DBH 1); *Euskara eta Literatura* (DBH 3); *Fisika eta Kimika* (DBH 4); *Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak* (Batxilergoa 2).

2.3.17.2 Liburuen eta bestelako dokumentuen atalen izenak eta liburuen barneko artikuluen izenak

Liburu edo obra baten barnean argitaratzen diren lan autonomoen izenetan, hala nola artikuluen edo ipuinen izenetan, lehen hitzeko lehen letra bakarrik idazten da larriz (beren izaeragatik letra larriz hasita idatzi behar direnez gainera), eta, testuan txertatzen direnean, komatxo artean idazten dira.

“Orga idien aitzinean, baina zelako idien aitzinean?” artikulua idatzi zuen Kepa Altonagak *Jakin* aldizkarian 2002an.

Gabriel Arestiren “Nire aitaren etxea defendituko dut” poema ezaguna *Harri eta Herri* liburuan argitaratu zen.

“Munduko hizkuntzen izenak euskaraz” artikulua argitaratu zen *Uztaro* aldizkariaren 54. zenbakian.

Beste hainbeste liburuen barneko kapituluak eta bestelako atalen izenetan.

Fisika orokorra liburuen “Lana eta energia” kapituluak aurkituko duzu azalpena.

EHUk argitaratutako *Kartografiako elementuak* liburuko 2. atalak “Lurraren eta mapen arteko erlazioak” du izena; haren barneko azken kapituluak hau da: “Eskalak, erreferentziak eta koordenatu-sistemak”.

2.3.17.3 Liburu sakratuak eta haien atalak

Liburu sakratuen izenen eta liburu horien osagai diren liburukien izenen hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idazten dira, eta ez dira letra etzanez idazten.

Biblia, Korana, Talmuda, Tora, Vedak.

Itun Berria edo Testamentu Berria edo Lege Berria; Itun Zaharra edo Testamentu Zaharra edo Lege Zaharra; Apostoluen Eginak, Apokalipsia, Deuteronomioa, Genesisia edo Hasiera, Pentateukoa, Kantarik Ederrena, Siraken Jakinduria, Esaera Zaharrak, Erromatarrei Gutuna.

Bibliaren izendapen antonomasikoak diren Eskritura(k) eta Eskritura Santua(k) ere letra larriz hasita idazten dira.

2.3.17.4 Egunkariak, aldizkariak eta bildumak

Egunkari, aldizkari, buletin eta, oro har, argitalpen periodikoen izenburua osatzen duten hitz nagusi guztiak letra larriz hasita eta letra etzanez idazten dira testuan aipatzen direnean.

Berria, The New York Times, Le Monde, El País, El Diario Vasco, Diario de Noticias de Navarra, Sud Ouest, El Correo.

Herria, Jakin, Argia, Nafarroako Aldizkari Ofiziala, Elhuyar Zientzia eta Teknika, Euskal Etnalea, Revista Internacional de los Estudios Vascos (RIEV), Fontes Linguae Vasconum (FLV).

Egunkarien eta aldizkarien barneko atal finkoen izenak komatxo artean eta letra larriz hasita idazten dira testuan txertatu behar direnean.

Berria egunkariko “Iritzia” sailera bidali du idazkia.

Elhuyar aldizkariko “Berriak labor” sailean irakurri dut berri hori.

Liburu-bildumen izenetan ere hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idazten dira, baina letra etzanik gabe.

EIZIEk Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailarekin lankidetzan kudeatzen du Literatura Unibertsala bilduma 1989az geroztik.

Susa argitaletxearen Ganbila bilduma; EHUren Zientzia Irakurle Ororentzat bilduma.

2.3.17.5 Sorkuntza-obra digitalak

Bideojokoen, multimedia-produktuen, aldizkari eta egunkari digitalen, blogen, atarien eta wikien eta, oro har, hiztegi, entziklopedia edo glosarioen izenetan edo nabarmenki aldizkari edo liburutzat har daitezkeen webgune eta atarien izenetan, lehen hitzeko lehen letra bakarrik idazten da larriz, eta letra etzanez idazten dira.

Zut aldizkari digitala

Hona hemen euskarazko hiru blog: *Sustatu*, *ZuZeu* eta *31 eskutik*.

Zientzia.net ataria

Wiktionary wikiak ia zazpi milioi sarrera ditu.

Bertsoen mundua CD-ROMa 1997an argitaratu zen.

Durangoko Azokan, *Barraka* euskarazko abentura-bideojokoak irabazi zuen sormen(-)beka.

Datu-bankuen edo bilatzaileen izenak edo baliabide-bilduma hutsen webguneak edo aplikazio informatikoen izenak ez dira letra etzanez idazten, eta letra larriz hasita idazten dira haien hitz nagusiak.

Google eta Bing dira bilatzaileak erabilienak.

Euskalterm datu(-)banku publikoa; Euskaltzaindiaren Lexikoaren Behatokia corpora; EHUren Ereduzko Prosa Gaur corpora.

2.3.17.6 Ikus-entzunezko komunikabideen saioak

Irrati eta telebisten programazioko saioen izenak letra etzanez idazten dira testu batean txertatzen direnean, eta izenburuko lehen letra larriz idazten da.

Maite Artolak Euskadi Irratiko *Faktoria* saioa zuzendu zuen 2013tik 2020ra.

ETBko *Teknopolis* programa 1999an jaio zen.

ETB1eko *Gaur egun* albistegia.

Vascos por el mundo ETB2ko telebista-programa.

Saioen barneko atal finkoen izenak komatxo artean jartzen dira testuan, eta lehen hitzeko lehen letra larriz idazten da.

Gaur egun albistegiko “Kiroiak” atala.

ETB1eko *Gure kasa* telebista(-)saioaren barnean, “Kutxa beltza” izeneko atala zegoen.

Euskadi Irratiko *Amarauna* saioan “Zortzigarren probintzia” atala egin zuen Joxe Arantzabalek Arantza Kaltzadarekin batera.

2.3.17.7 Antzezlanak, filmak, musika-obrak eta era guztietako artelanak

Lehen hitza letra larriz hasita idazten da antzezlanen, filmen, kanten, musika-obren, margolanen, argazkien, eskulturen, arte-instalazioen, performanceen eta kidekoen izenburuetan. Eta letra etzanez idazten dira testu baten barnean aipatzen direnean.

Oraindik ez dut ikusi *Blade Runner* filma, ezta *Potemkin korazatua* ere.

1980an kaleratu zuen Ruper Ordorikak lehen diskoa: *Hautsi da anphora*.

Frantziako ereserkia *La Marseillaise* da.

Bertolt Brecht idazlearen *Galileoren bizitza* antzezlan.

Amaitzeko, *Txoria txori* eta *Gernikako arbola* kantak abestu zituzten.

Auguste Rodinen eskulturarik ezagunena *Pentsalaria* da.

Picassoren *Gernika*, Johannes Vermeer-en *Neska perladuna* eta Sandro Botticelliren *Venusen jaiotza* margolanak.

Chris Burden-en *Shoot* eta Vito Acconci-ren *Seedbed* izan ziren 1971ko eta 1972ko performancerik sonatuenak.

Eskubideen gunea arte(-)instalazioa inauguratu dute Donostian.

Intxaur-hauskailua balleta.

Mozarten *Figaroren ezteiak* opera.

1893an konposatu zuen Dvořák-ek *Mundu Berriko sinfonia*, bere sinfoniarik ezagunena.

Beste obra handiago baten parte diren lanak ere letra etzanez eta hasierako letra larriz idazten dira bakarrik erabiltzen direnean. Obra nagusiarekin batera izendatzen direnean, komatxo artean idazten dira.

Verdiren *Nabucco* operaren pasarterik ezagunena “Va, pensiero” korua da.

Hertzainak taldearen “Aitormena” kanta ospetsua *Amets prefabrikatuak* diskoan kaleratu zen.

Belliniaren *Norma* operaren ariarik ezagunena “Casta Diva” da.

OHARRA

Historiaurreko eta Antzinaroko eskulturetan eta arkeologiako gauzakietan obraren edo objektuaren jatorrizko izena (baldin eta jatorrizko izenik inoiz izan bazuen) ezezaguna da. Horregatik, modu deskribatzailean izendatzen dira, leku-izen bati lotuak askotan. Halakoetan, izendapenaren osagaiak letra larriz hasita idazten dira, eta letra etzanik gabe, baldin eta generikoak adierazten duena eskulturak irudikatzen duenarekin bat badator.

Irulegiko Eskua, Elx-eko Dama, Delfosko Auriga, Osunako Zezena, Venus Milokoa.

Adibide horietan guztietan, izena ez da jatorrizkoa, ez da egileak emandakoa, eta eskulturak zer irudikatzen duen adierazten du generikoak: Irulegiko Eskua esku baten eskultura da; Elx-eko Dama dama baten eskultura da; Delfosko Auriga auriga baten eskultura da; Osunako Zezena zezen baten eskultura da...

Beste batzuetan, generikoak ez du deskribatzen zer irudikatzen duen eskulturak, baizik eta objektu-mota. Halakoetan, letra xehez hasita idazten dira generikoak.

Saien estela, Partenoiko frisoa, Elginen marmolak, Rodasko kolosoa, Belvedereko tortsoa, Nefertitiren bustoa.

Izendapen horietan, *estela*, *friso*, *marmol*, *koloso*, *tortso* eta *busto* izenek eskultura-mota —objektu-mota, alegia— deskribatzen dute; alde horretatik, ez dira aurreko saileko *dama*, *auriga* eta *zezen* izenen gisakoak (adibidez, *dama* ez da eskultura-mota bat, baina *busto* bai).

2.3.17.8 Hitzaldiak, mahai-inguruak eta kidekoak

Lehen hitzeko lehen letra bakarrik larriz hasita idazten dira hitzaldien, diskurtsoen, mahai-inguruen eta aurkezpenen izenburuak (beren izaeragatik letra larriz hasita idatzi behar direnez gainera), eta, testuan txertatzen direnean, komatxo artean jartzen dira.

Mikel Zalbidek “Maileguzko hitzen zenbait muga-arazo” txostena irakurri zuen Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean.

"Belarriak soinu" izeneko hitzaldi musikatua eman zuen Joseba Tapia musikariak astelehenean, Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako campusean.

Zinegotziak “Bilboren eraldaketa” izeneko aurkezpena egin zuen.

2.3.17.9 Adierazpenak, programak, planak, proiektuak, agiriak eta kidekoak

Adierazpen, programa, plan, proiektu, akordio, protokolo, agiri eta kidekoen izenburuetan, hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idazten dira.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala; Baionako Adierazpena; Europako Agiri Bakuna; Kyotoko Protokoloa; Nazio Batuen Gutuna; Uraren Liburu Zuria; Luxenburgoko Konpromisoa; Bake eta Bizikidetzaren Plana; Nazio Batuen Ingurumen Programa; Muga Zerrei eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra.

Izenburua oso luzea denean, lehen hitzeko lehen letra bakarrik idazten da larriz, eta, testuaren barnean, komatxo artean ezartzen da, non hasten eta non bukatzen den zedarritzearen.

Elkartasun politikoa eta nazioarteko babesa eskaintzen duen tresna bat da “Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa”.

Izen berezi bati aposizioan lotuta daudenean, generikoa letra xehez idazten da.

Marshall plana, Renove plana, Manhattan proiektua, Gemini programa, Giza Genoma proiektua.

2.3.17.10 Legeak, dekretuak, dokumentu diplomatikoak eta bestelako arau juridikoak²²

²² Puntu honetan, gaztelaniaren eta frantsesaren estilo ortotipografikoak aski desberdinak dira. Frantsesez askoz letra larri gutxiago erabiltzen dira gaztelaniaz baino lege eta arau juridikoen izenburuetan. Euskaraz, 1980ko hamarkadaz geroztik, ia soilik Hego Euskal Herriko administrazioen testuak argitaratzen dira euskaraz, eta azken 45 urteetako praktikan Espainiako gaztelaniaren hizkera

Nazioarteko tratatu, dokumentu diplomatiko, lege, lege-proiektu, dekretu, zuzentarau, erregelamendu, kode eta gainerako arau juridikoen izenen parte diren hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idazten dira, oro har.

Nantesko Ediktua; Lizarrako Estatutua; Genevako Konbentzioa; Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa; Zigor Kodea; Europar Batasunaren Trataturik; Lurralde Historikoen Legea; Prozedura Zibilarren Legea; Bizkaiko Forua; Nafarroako Foru Orokorra; Zergekiko Foru Arau Orokorra; Merkataritzako Erregistroaren Erregelamendua; Frantziako 1958ko Konstituzioa.

Espainiako 1978ko Konstituzioa.

Estatuetako arau gorenak dira konstituzioak, eta modu laburtuan adierazi ohi dira, modu antonomasikoan, letra larriz hasita, Konstituzioa, eta testuinguruak argitzen du zer konstituzio edo nongo konstituzio aipatzen ari den.

PSE-EEko idazkari nagusiak esan du 45 urte bete dituela Konstituzioak eta modernizatzeko, berritzeko eta etorkizunera begira jartzeko garaia dela.

Eraikuntza(-)produktuei buruzko 89/106/EEE Zuzentzaraua.

920/2017 Errege Dekretua, urriaren 23koa, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa arautzen duena.

7/2010 Legea, martxoaren 31koa, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Orokorra [data eta identifikazio-zenbakia aipatzen ez direnean, honela: Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorra].

2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.

Berdin jokatzeko da izen laburtuak (arau-maila [legea, dekretua...] eta identifikazio-zenbakia [zenbakia/urtea] bakarrik) edo izendapen egokituak erabiltzen direnean ere.

administratibo eta juridikoaren antz handia duen tradizio ortotipografikoa finkatu da letra larrien eta xeheen erabilerari dagokionez.

39/2015 Legea

Administrazio eta Prozedura Legea

(izen osoa: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena [Honela ere bai: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea]).

Egonkortze-prozesua EITBn, 20/2021 Legearen arabera.

Hala ere, arauaren izena luzea denean (zazpi hitz nagusi edo gehiago dituenean), ohikoa da lehen hitza bakarrik idaztea letra larriz hasita.

1093/1997 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, Hipoteka Legea betearazteko Erregelamenduaren arau osagarriak, hirigintza(-)izaerako egintzak Jabetza Erregistroan inskribatzeari buruzkoak, onesten dituena.

6/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean alde aurreko erretiroa eskatzen duten unibertsitatetik kanpoko langile irakasleek borondatezko erretiroaren sari osagarria jasotzeko baldintzak ezarri eta borondatezko erretiroaren sari osagarri horren zenbatekoa finkatzen dituena.

29/2005 Foru Agindua, martxoaren 17koa, hotz(-)instalazioetako instalatzaile eta mantentzaile-/zaintzaile-agiriak lortzeko prestakuntza(-)plana ezartzen duena.

Kasu horretan, letra etzanez idatz litezke testu baten barnean aipatzean, araua non hasten den eta non bukatzen den argi zedarriztearren, baina ez da ohikoa.

Ez da ahaztu behar hor dagoela *14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero(-)identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa*, lehenago ere aipatua.

Era guztietako arauen parteak adierazteko erabiltzen diren hitz guztiak (artikulua, apartatua, paragrafoa, eranskina, zatia, titulua, kapitulua, atala, xedapena...) letra xehez idazten dira.

19/2013 Legearen II. kapituluko 8. artikuluan

Legearen 2. xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera

Eredu hori Konstituzioko II. tituluan bertan juridikoki zehaztuta dago.

OHARRA

Testuan osorik (edo modu laburtuan) idatzi den arauari erreferentzia egiteko haren arau-mota izendatzen duen izen arrunt hutsa (legea, dekretua, agindua...) erabiltzen denean (aipamen anaforikoa), ez da letra larriz hasita idazten. Kontuan izan behar da arau-mota izen arrunta dela eta, nahiz eta arauaren izenburuaren parte ere baden, bera bakarrik erabiltzen denean ez duela izenburua modu laburtuan adierazten (*14/2012 Legea*, adibidez, bada lege baten izenburu laburtua, baina *Legea* ez). Jarraian datozen adibideetan, azpimarratu egin dira kasu horiek, zein diren nabarmentzearren:

Hala ere, erregelamendu honen 2. artikuluan...

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira, foru(-)lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako, dirulaguntzaren xede den jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak.

Balorazio sustantiboa egiteko irizpideei dagokienez, legeak argi eta garbi bereizten ditu Lehiaren Batzorde Nazionalak erabakiak hartzeko jarraitu beharko dituen irizpideak eta Gobernuak jarraitzekoak izango direnak.

Nolanahi ere, errege lege-dekretu honek bederatzigarren xedapen iragankorrean ezartzen duena aplikatuko da.

OHARRA

Izendapen ez-ofizialak letra xehez idazten dira. Sortzailearen edo sustatzailearen izena erabiltzen da, batzuetan, legeak modu informalean adierazteko. Beste batzuetan, legea izendatzeko modu kritiko edo iritzizkoak baliatzen dira, edo izendapen deskribatzaile ez-ofizialak. Kasu horietan guztietan ez da letra larririk behar (kasu adierazkorretan, letra etzana ere balia daiteke).

Espainiako tabakoaren aurkako legea

(Espainiako 2005eko abenduaren 26ko 28/2005 Legea aipatzeko)

Frantziako About-Picard legea edo sekten aurkako legea

(Frantziako 2001eko ekainaren 12ko 2001-504 Legea aipatzeko)

Corcuera legearen benetako izena hau zen: 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa.

Noiz onartu zen unibertsitateen legea?

(Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa adierazteko)

Lege horrek txiki uzten ditu *mozal legea* eta *ateari ostikoa emateko legea*.

Alderdi politiko batzuek *soilik bai da bai* legea aldatu nahi zuten.

Toki Erakundeei buruzko Legeari udal(-)legea esan ohi zaio.

Modu generikoan erabiltzen direnean edo izen tradizionala dutenean, letra xehez idazten dira (adibideetan, azpimarratuta ageri dira, nabarmentzearren).

Batzar Nagusiek foru(-)arauak onartzeko ahalmena dute.

Adierazi dute lurzorua babesteko lege(-)proiektu bat lantzen ari direla.

1920ko hamarkadan ezarritako lege lehorrak mafiaren garapenaren oinarriak jarri zituen.

Filipe V.ak emandako lege salikoaren arabera, emakumeak ezin ziren tronura iritsi.

Putin-ek gerra(-)legea ezarri zuen anexionatutako Ukrainako lurraldeetan.

2.3.18 Gauzakiak, produktuak eta markak

2.3.18.1 Izen berezia duten gauzakiak

Beren klaseko gainerakoetatik bereizteko eta identifikatzeko izen berezia duten era guztietako ibilgailu, arma eta bestelako gauzakiak, benetakoak zein fikziozkoak, letra etzanez eta izendapenaren hitz nagusi guztiak letra larriz hasita idazten dira.

Prestige itsasontzia; *Nautilus* itsaspekoa; *Missouri* korazatua; harri(-)jasotzean erabiltzen diren *Igeldoko Harria* eta *Albizuri Handia* harriak; *Hubble* espazio-teleskopioa; *Titanic* transatlantikoa; Tolosako Josu Iztuetaren eta Ángel Ortizen *Nairobiarra* autobusa; *Excalibur* ezpata, *Enola Gay* hegazkina; Lindbergh-en *Spirit of San Louis* hegazkina; alemanen *Berta Handia* kanoia; *Mir* espazio-estazioa, *Apollo 11* espazio-ontzia; *Sputnik 1* satelitea; *Voyager 2* zunda; Sanpedrotarra Arraun Elkartearen trainerua *Libia* da, eta *Ama Guadalupekoa*, berriz, Hondarribia Arraun Elkartearena; pailazoen *Tortolika* hegazkina.

OHARRA

Izena deskribatzaile hutsa denean ere letra larriz hasita idazten da, baina letra etzanik gabe.

Nazioarteko Espazio Estazioa.

2.3.18.2 Markak, serieak eta modeloak

Enpresa bat edo enpresa baten produktuak identifikatzen dituen izen bereizgarria da marka. Marka gehienak erregistratuta daude; hau da, jabetza intelektuala legez babestua dute. Markak, beraz, izen bereziak dira, eta letra larriz hasita idazten dira. Ez dira letra etzanez idazten eta, eskuarki, ez dira itzultzen²³. Beste hainbeste serie eta modeloen izenei dagokienez.

Behin eta berriro Levi's markako prakak erosten ditu.

Automobilik dotoreenak Rolls Royce markakoak dira.

Aste honetan, Danone jogurtak merkealdian daude.

Aurten, Citröen-ek bi modelo berri plazaratu ditu.

Munduko kosmetiko(-)markarik ezagunena L'Oréal da.

Kia-ren Picanto modeloak lau bertsio ditu: Concept, Concept P. Confort, GT-Line eta X-line.

Nire lehen eskuko telefonoa Nokia zen.

²³ Alfabeto latinoan erabiltzen ez duten lurraldeetako markek bi bertsio izaten dituzte, bat jatorrizko alfabetoan eta beste bat alfabeto latinoan. Adibidez: **Honda** / **ホンダ** (japoniera); **Kia** / **기아** (koreera); **Qatar Airways** / **القطرية** (arabiera).

Amaren bizikleta Orbea da.

Bigarren eskuko Golf bat erosi zuen.

Airbus A330 hegazkin-modeloa da salduena.

Ukrainako gerraren hasieran asko erabili ziren Stinger misilak.

Garai batean, Coca-Colaren telebistako iragarkiak ikusgarriak izaten ziren.

OHARRA

Zerbitzu-enpresen produktuen izenak eta software-produktuak ere letra larriz hasita idazten dira, izen komertzialak baitira; baita sare sozialen eta Interneteko bilatzaileen izenak ere.

Kutxabanken Visa Classic txartela

Euskaltelen Osoa Infinity tarifa

Microsoften Excel kalkulu(-)orria eta Mozilla Fundazioaren Firefox web(-)nabigatzailea

OHARRA

Denak letra larriz hasita idazten badira ere, ez dira nahasi behar izen berezia duten gauzakiak (letra etzanez idazten dira) eta markak edo modeloak (letra arruntez idazten dira). Adibidez, *Enola Gay* hegazkin baten izen berezia da, eta Concorde hegazkin-modelo batena. *Enola Gay* bakarra zen, baina Concordeak bat baino gehiago ziren.

2.3.18.3 Markak edo modelook produktua izendatzea (metonimia)

Batzuetan, izen bereziak edo adierazpen izendatzaileak, bere izaera galdu gabe, morfosintaktikoki izen arrunt gisa jokatzen du. Adibidez, marka edo modelooren izena erabiltzen denean marka horren produktu bat izendatzeko (metonimia komertziala).

Enpresa edo marka bat edo modelo bat eta marka horretako edo modelo horretako produktu baten unitate jakin bat edo produktu-unitate generiko bat, hizkuntzaren ikuspegitik, ez dira gauza bera. Esate baterako, Renault edo Nissan automobil-konpainiak dira, markak dira, baina izen horiek erabiltzean, batzuetan, ez da

marka adierazi nahi, baizik eta marka horretako automobil jakin bat edo marka horretako automobil generiko bat. Kasu horietan ere, letra larriz hasita idazten dira.

Renaultek inoiz baino irabazi handiagoak izan ditu (Enpresaren izena edo marka).

Renaulta konpontzera eraman dut (Marka horretako automobil jakin bat).

Ez dut Nissanik erosiko (Marka horretako automobil generiko bat).

Nire Clia gorria da (Renault markako Clio modeloko automobil jakin bat).

Markak edo modeloak produktua izendatzen duenean, izen arrunten baliokidea da; hau da, plurala onartzen du (Nissanak merkeago daude aurten iaz baino), eta izenondoak eta determinatzaileak eta abar onartzen ditu (Nissan hori Mirenena da; gehien gustatzen zaidana Nissan gorria da; Anderri Nissan guztiak gustatzen zaizkio). Dena dela, ez du galtzen markaren edo modeloaren hasierako letra larria, eta ez da lexiko arruntera igarotzen; hau da, ez da hiztegietako sarrera bihurtzen. Hala ere, izen arrunt gisa jokatzeko du; horrenbestez, izen arrunt gisa hartzen ditu kasu-markak.

Nire Fiatak 150.000 kilometro baino gehiago ditu.

Mirenen Clia nirea baino berriagoa da.

1 Formulako aurtengo Ferraria ez da iazkoa baino hobea.

2.3.18.4 Marka edo produktua izen arrunt bihurtzea (lexikalizazioa)

Zenbaitetan, markaren edo produktuaren izen komertzialaren bidez adierazten dena funtsean produktu horren ezaugarri bertsuak dituen baina nahitaez produktu hori ez den produktu generiko bihurtzera iristen da. Hau da, hasieran marka-izena zena edo produktu baten izena zena izen erabat arrunt bilakatzen da, jatorrizko markarekin zuen lotura galdua. Lexiko arruntera pasatzen da, hots, lexikalizatu egiten da; orduan, gainerako izen arruntak bezala, letra xehez idatzi behar da. Lexikalizatzen diren marka- edo produktu-izenak, denborarekin, lexiko arrunteko hiztegietara pasatzen dira, eta, lexikalizatzeko horretan, grafia-aldaketak ere izaten dituzte batzuetan, maileguekin gertatzen den bezala. Hona hemen zenbait adibide, mugagabeen ezarriak:

baselina (Vaseline markatik), bakelita (Bakelite markatik), klaxon (Klaxon markatik), jacuzzi (Jacuzzi markatik), mekano (Meccano markatik), neopreno

(Neoprene markatik), tetrabrik (Tetra Brik markatik), tiritita (Tiritita markatik), termo (Thermos markatik), zelo (Sellotape markatik), eskotx (Scotch markatik), aspirina (Aspirin produktutik).

2.3.18.5 Produktua sortzailearen edo aurkitzailearen izenaren bidez izendatzea

Gauzakiren bat edo sistema edo prozeduraren bat izendatzeko sortzailearen edo aurkitzailearen (edo fabrikatzailearen) izena erabiltzen denean, pertsonaren izen berezia izen arrunt bilakatzen da. Orduan, letra xehez idazten da.

diesel (Rudolf Diesel asmatzailearen izenetik)

Garai hartan, dieselak oso garestiak ziren.

braille (Louis Braille asmatzailearen izenetik)

Hemen ditugu braillez idatzitako liburuak.

mauser (Wilhelm Mauser eta Paul Mauser asmatzaileen izenetik)

Soldaduek mauserak sorbaldatik zintzilika zeramatzen.

zepelin (Ferdinand von Zeppelin asmatzailearen izenetik).

Gera Handian zepelinak erabiltzen hasi ziren.

2.3.18.6 Artelana egilearen izenaren bidez izendatzea (metonimia)

Artelanak izendatzeko haien sortzailearen izena erabiltzen denean, sortzailearen izen berezia izen arrunt moduan erabiltzen da: izen arrunt moduan hartzen ditu kasu-markak eta artikulua, baina letra larriz hasita idazten da, ez baita lexikalizatu; hau da, ez da lexiko arruntera pasatu (eta, horrenbestez, ez da lexiko arrunteko hiztegietan agertzen).

Sotheby's enkante(-)etxeak bi Picasso saldu zituen iaz.

Enkanteko izar nagusia, Monetek gainera, Klein urdin bat izan zen.

Lapurtutako bi Van Goghak saltzen saiatu zen.

1913an eta 1918an erosi zituen gaur egun erakusgai dituen Renoirrak.

2.3.18.7 Janari-edariak eta bestelako produktuak jatorrizko leku-izenaren bidez izendatzea (metonimia)

Janari eta edari batzuk eta bestelako produktu batzuk izendatzeko, haien jatorria den lekuaren izena erabiltzen da antzeko beste produktuetatik bereiztearren. Adibidez, Errioxako ardoa, Modenako ozpina edo Dijongo ziapea.

Batzuetan, produktuaren jatorria den edo produktuarekin nolabaiteko erlazioa duen lekuaren izena erabiltzen da produktua bera izendatzeko. Orduan, izen arrunt bihurtzen da, letra xehez idazten da, eta, zenbaitetan, grafia-aldaketak ere izaten ditu mailegu irentsiekin gertatzen den bezala. Hona hemen zenbait adibide, mugagabeen ezarriak:

(gazta-izenak) camembert, emmental, gruyere (Frantziako Camembert eta Suitzako Emmental eta Gruyère leku-izenetatik, hurrenez hurren).

(edari alkoholdunak) jerez, porto, xanpain, koñak, tekila (Espainiako Jerez de la Frontera, Portugalgo Porto, Frantziako Champagne eta Cognac eta Mexikoko Tequila leku-izenetatik, hurrenez hurren).

(jantziak) bikini, bermuda (Marshall Uharteetako atoloi baten izenetik eta Bermuda uharteetatik, hurrenez hurren).

III. ATALA

Letra xeheen erabilera: non eta noiz ez diren erabiltzen letra larriak

Arau orokorra

Letra xehez idazten dira hitzak testuetan, letra larriz hasita idazteko arrazoi logikoren bat —hizkuntza-arrazoiren bat— **dagoenean izan ezik**. Arrazoa izan daiteke posizioa (adibidez, puntu baten ondoren egotea testuan) edo izen edo izendapen berezi baten parte izatea (adibidez, leku-izen bat izatea, pertsona-izen bat izatea, erakunde baten izena izatea eta abar). Bestela esanda, **letra xehea da araua eta letra larria, berriz, salbuespena**.

Batzuetan, letra larriz hasita idazten dira hitz batzuk arrazoi argirik gabe, uste okerren batek eraginda edo, beste hizkuntza batetik itzuli edo moldatutako testuen kasuan, beste hizkuntza horren jokabidea mimetismoz ekarrita (batez ere, ingelesean oinarritutako testuak direnean).

Beste batzuetan, hizkuntza-arrazoi argirik ez badago ere, letra larriz hasita ikusten dira zenbait hitz testuetan, idazleak garrantzitsutzat jotzen duelako hitz horiek adierazten duten kontzeptua —hitz horien erreferentea— eta hori grafikoki adierazteko baliabide egokia iruditzen zaiolako letra larria. Hori zerbait subjektiboa izan ohi da, idazlearen erlijio-sinesmenek edo ideologiak eragindakoa; orduan, garrantzitsuak iruditzen zaizkion, goresgarritzat hartzen dituen edo beraren ustez tasun positiboak adierazten dituzten hitzak letra larriz hasita idazten ditu, hala nola *aberria, bandera, alderdia, herria, askatasuna, natura, borroka, maitasuna, elkartasuna, fedea, meza, errukia, eukaristia, barkamena* eta abar. Eta jokabide ikasia ere izan daiteke, begirunezko erabilera tradizional batean errota, gizarteko goi-mailetakoa kargu eta tituluei ere hasierako letra larria jartzea; esate baterako, *errege* edo *erregina, zuzendaria, lehendakaria, ministroa, alkatea*... letra larriz hasita idaztea.

Letra larriaren begirunezko edo erreberentziazko erabilera subjektibo horretarako ez dago hizkuntzazko arrazoirik, eta ez da komeni, beraz, testuetan baliatzea. Horrenbestez, hitz horiek guztiak letra xehez idaztea da gomendioa.

Zalantzarik gabe letra xehez idaztekoak diren kasu nabarmen batzuk zehaztuko dira hurrengo puntuetan, erabiltzaileen zalantzak argitzearren.

1 Siglak edo sinboloak eratzeko erabiltzen diren hitz arruntak

Siglak, oro har, letra larriz idazten dira, baina ez da nahasi behar letra larrien erabilera siglan eta letra larrien erabilera siglak ordezkatzeko duen adierazpenean. Hau da, sigla letra larriz idazten delako ez da hortik ondorioztatu behar siglak adierazten duena ere, automatikoki, letra larriz idaztekoa denik.

Sigla baten adierazpen garatua letra larriz hasita idatziko da baldin eta izendapen berezi bati badagokio; adierazpen generiko bat bada, ordea, nahiz eta haren sigla letra larriz idatzi, letra xehez idatzi behar da (ikus siglen atala).

Beste hainbeste gertatzen da elementu kimikoekin, konposatu kimikoekin eta neurri-unitateekin: letra xehez idazten dira, nahiz eta haien sinboloak letra larriz hasita idatzi (ikus sinboloen atala).

Sigla edo sinboloa	Siglaren edo sinboloaren forma garatua
KPI	KPIa: kontsumoko prezioen indizea [eta ez Kontsumoko Prezioen Indizea]
BEZ	BEZa: balio erantsiaren gaineko zerga [eta ez Balio Erantsiaren gaineko Zerga]
IKT	IKTak: informazioaren eta komunikazioaren teknologiak [eta ez Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak]
NAN	NANa: nortasun(-)agiri nazionala [eta ez Nortasun Agiri Nazionala]
GKE	GKEa: gobernuz kanpoko erakundea [eta ez Gobernuz kanpoko Erakundea]
Cl	Cl-a: kloroa (eta ez Kloroa)
CO	CO-a: karbono monoxidoa [eta ez Karbono Monoxidoa]
A	A: amperea [eta ez Amperea]

2 Sigletatik eta erakunde-izenetatik eratorritako hitzak

Silabaka irakur daitezkeen sigletatik abiatuta eratzen diren hitz arruntak letra xehez idazten dira testuetan (salbuespenetarako, ikus siglen ataleko 7.1 puntua).

JEL siglatik, jelkidea, jeltzalea; ETA siglatik, etakidea, etazalea; UZEI siglatik, uzeikidea; UEU siglatik, ueukidea.

Erakunde, elkarte edo taldeen izenei *-zale* edo *-kide* elkartuta eratzen diren hitzak ere letra xehez idazten dira.

Athletic izen berezitik, athleticzalea; Baskonia izen berezitik, baskoniazalea; Elhuyar izen berezitik, elhuyarkidea; Bildu izen berezitik, bildukidea, bilduzalea.

3 Pertsona-izenetatik eratorritako izenak eta adjektiboak

Pertsona-izenetatik eratortzen diren izen eta adjektiboak hitz arruntak dira eta letra xehez idazten dira, nahiz eta haien jatorrian letra larriz hasita idazten den izen bat izan.

marxismo, marxista (jatorria: Marx), darwinismo, darwinista (jatorria: Darwin), taylorismo (jatorria: Taylor), epikureismo, epikurotar (jatorria: Epikuro), kalbinismo, kalbinista (jatorria: Kalbino), zapatismo, zapatista (jatorria: Zapata), fermioi (jatorria: Fermi), nepertar (jatorria: Neper), karlismo, karlista (jatorria: Karlos), freudiar (jatorria: Freud), wagnertar (jatorria: Wagner).

4 Leku-izenetatik eratorritako herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak

Leku-izenetatik eratorrita sortzen diren izenak eta adjektiboak hitz arruntak dira eta letra xehez idazten dira, nahiz eta haien jatorrian letra larriz hasita idazten den izen bat izan (etnia eta herrien izenetarako, ikus II. ataleko 2.3.3.7 puntua).

euskal herritarra, bilbotarra, atharraztarra, arabarra, italiarra, txinatarra, frantziarra, espainiarra, indiarra.

5 Leku-izen, pertsona-izen edo abizen batetik eratorritako familia, leinu, dinastia eta jarraitzaileen izenak

Pertsona-izen batetik, abizen batetik edo leku-izen batetik eratortzen diren familia, leinu, dinastia eta jarraitzaileen izenak letra xehez hasita idazten dira (ikus, zehaztapenentarako, II. ataleko 2.3.3.6 puntua).

agirretarrak, kennedytarrak, perurenatarrak; beaumontarrak,
banukasitarrak; sabindarrak, frantziskotarrak; akemenestarrak,
seleukotarrak.

6 Elementu eta konposatu kimikoak, mineralak, neurri-unitateak

Letra xehez idazten dira, nahiz eta haien jatorrian pertsona-izen bat edo leku-izen bat izan edo haien sinboloa edo sigla letra larriz idatzi.

kristobalita, atakamita, polibinil kloruroa (PVC), karbono dioxidoa (CO₂), joulea (J), gaussa (Gs).

7 Santu-santen izenetatik eratorritako auzo, herri eta hirietako jaien izenak

Nahiz eta hitzaren jatorrian letra larriz hasita idazten den santu edo santa baten izena izan, haren izenetik eratortzen diren jaien izenak letra xehez idazten dira. Jaia adierazteko, *san* edo *santa* titulua pertsona-izenari lotuta idazten da, eta pluralean erabiltzen da (ikus II. ataleko 2.3.10.4.2 puntua).

sanferminak, santanak, santomasak, santafeak.

8 Trataerak, tituluak, karguak eta lanbideak

Letra xehez idazten dira ia beti (ikus, zehaztapenentarako eta salbuespenentarako, II. ataleko 2.3.3.8 eta 2.3.3.9 puntuak).

lehendakaria, erregina, idazkaria, ingeniaria, enperadorea, markesa, aita santua, alkatea.

9 Herritarrak eta etniak

Letra xehez hasita idazten dira, mailegatuak izan zein eratorriak izan²⁴ (ikus, zehaztapenetarako, II. ataleko 2.3.3.7 puntua).

Baionako herritarrak baionesak edo baionarrak dira.

Frantziako herritarrak frantsesak edo frantziarrak dira, eta Espainiakoak espainolak edo espainiarrak.

Etxe berean bizi dira paristar bat, erromatar bat eta bi iruindar.

Plazan elkartzen ziren arratsaldero turkoak, kurduak eta juduak.

Masaiak, flandriarrak, siuxak.

10 Hizkuntzak

Hizkuntzak izendatzeko hitzak hitz arruntak dira, eta letra xehez idazten dira²⁵. Irakaskuntza arautuko irakasgai baten izena hizkuntza baten izena denean bakarrik idazten da letra larriz hasita.

Eskolan, frantsesez eta euskaraz ikasten zuen.

Oker zaude, latina ez da Vatikanoko Hiriko hizkuntza ofiziala.

Batxilergoko lehen ikasturtean, Latina gainditu nuen, baina Grekoa ez.

11 Animaliak, landareak eta onddoak, arrazak eta barietateak

Animaliak, landareak eta onddoak izendatzeko hitzak izen arruntak dira, eta letra xehez idazten dira (ikus II. ataleko 2.3.4.2 puntua).

hartz arrea, ibis gorritzta, urrearraina; erkametza, haritz gorria, ziza ezkatabeltza.

Hitz bat baino gehiagoko izendapenetan, baldin eta hitzetakoren bat izen berezia bada, letra larriz hasita idazten da.

²⁴ Frantsesez, ingelesez eta nederlanderaz, adibidez, letra larriz hasita idazten dira; gaztelaniaz, portugesez, katalanez eta italieraz, berriz, letra xehez.

²⁵ Hala idazten dira frantsesez eta gaztelaniaz ere. Ingelesez, berriz, letra larriz hasita.

Aurizko zaldia, Himalaiako zedroa, Judasen arbola, Lurmuturreko azeria, Bengalako tigrea, Baztango txerria, Enkarterriko astoa, Flandriako untxia, Karrantzako ardia.

Arrazak eta barietateak ere letra xehez idazten dira.

rottweilerra, pointerra, katu persiarra, cocker spaniela, behi suitzarra, siamesa, xarolesa; garnatxa, erle(-)mahatsa.

cabernet sauvignon-a, chardonnay-a, hondarribi zuria...;

kuba libre, manhattan, errioxa, rueda...

Kasu gutxi batzuetan, izen berezia arraza-izen bilakatu da, eta letra xehez idazten da orduan.

limusina (behi-arraza, jatorriz Limousingoa), labradorra (txakur-arraza, jatorriz Labradorrekoa), chihuahua (txakur-arraza, jatorriz Chihuahuakoa), sanbernardoa (txakur-arraza, jatorriz Alpeetako San Bernardo mendateko ospitalekoa).

Zoologian eta botanikan erabiltzen diren taxonen izenetarako, ikus II. ataleko 2.3.4.1 puntua.

12 Erliijoak, otoitzak eta erlijoen arloko kontzeptuak

Erliijoak eta erlijo-mugimenduak eta -doktrinak izendatzen dituzten izenak hitz arruntak dira; beraz, letra xehez idazten dira.

katolizismoa, protestantismoa, budismoa, islamismoa.

Erliioei lotutako kontzeptuak ere, hitz arruntak direnez, letra xehez idazten dira.

zerua, infernua, garbitokia/purgatorioa, sendotza, eukaristia, errukia, fedea.

Beste hainbeste otoitzei dagokienez.

agurmaria, aitagurea, angelusa, arrosarioa, gloria, kredo, requiema, salbea.

13 Zientziaren arloko teoria, printzipio eta gisako kontzeptuak

Izendapen deskribatzaile arruntak dira, eta letra xehez idazten dira. Izendapenaren parte diren pertsona-izenak bakarrik idazten dira letra larriz hasita.

erlatibitatearen teoria, akzio-erreakzio printzipioa, gas idealen legea, efektu fotoelektrikoa.

Bohr-en teoria, Heisenberg-en ziurgabetasun(-)printzipioa, Gay-Lussac-en legea, Edison efektua.

14 Arte-, ideologia- eta pentsamendu-mugimenduak eta estiloak, eskolak eta generoak

Artearen, pentsamenduaren, ideologiaren, politikaren, ekonomiaren eta kulturaren arloko mugimenduak, eskolak edo joerak adierazten dituzten izenak hitz arruntak dira eta letra xehez idazten dira.

erromanikoa, gotikoa, inpresionismoa, kubismoa, platonismoa, sinbolismoa, modernismoa; darwinismoa, estrukturalismoa, komunismoa, liberalismoa, sozialismoa.

15 Asteko egunak, urteko hilabeteak eta urtaroak

Letra xehez hasita idazten dira asteko egunak, urteko hilabeteak eta urtaroak, diren egutegikoak direla.

urtarrila, maiatza; ramadana, *safar-a* (egutegi islamikoa); *brumaire-a*, *germinal-a* (Frantziako egutegi errepublikanoa); *tammuz-a*, *sivan-a* (hebrear egutegia).

astelehena, larunbata; udaberria, negua.

OHARRA

Data historikoen edo jaien edo kaleen eta kidekoen izenen parte direnean, letra larriz hasita idazten dira (ikus II. ataleko 2.3.1.12, 2.3.10.4.1, 2.3.10.4.3 eta 2.3.11 puntuak).

68ko Maiatza, Maiatzaren 2a (Maiatzaren Bia), Maiatzaren Lehena, Pragako Udaberria, Brumairearen 18a (Brumairearen Hemezortzia), Uztailaren 14a (Uztailaren Hamalaua); Ostegun Santua, Ramadana; Azaroaren Hogeita Bosta pasealekua, Martxoaren Hirua plaza.

Era berean, artelan baten izenburuaren hasieran agertzen direnean, letra larriz hasita (eta letra etzanez) idazten dira.

Udaberriaren sagaratzea (Stravinskiren balleta)

Maiatzeko gaua (Rimski-Korsakoven opera)

Maiatzaren hiruko fusilamenduak (Goyaren margolana)

Udaberria (Botticelliren margolana)

16 Sendagaiak

Sendagai generikoen kasuan, sendagaiak daukan printzipio aktiboaren izen berarekin merkaturatzen dira. Printzipio aktiboak izen arruntak dira, eta letra xehez hasita idazten dira; horrenbestez, sendagai generikoak ere, printzipio aktiboaren izen bera dutenez, letra xehez idazten dira.

Sendagileak esan zion bentzidamina hartu behar zuela hanturaren kontra.

Gaur egun gehien erabiltzen den botiketako bat omeprazola da.

Antibiotiko ezagunak dira amoxizilina eta anpizilina; penizilina semisintetikoak dira biak.

Sendagaien izen komertzialak marka erregistratuak dira, eta letra larriz hasita idazten dira, gainerako produktuen markak bezala.

Orfidal eta Idalprem botikek lorazepama dute.

Hona hemen ibuprofenoaren hiru izen komertzial: Algiasdin, Dalsy eta Pirexin.

Zenbat Apiretal eman behar zaio 10 urteko haur bati?

Marka askorekin gertatzen den bezala (ikus II. ataleko 2.3.18.3 puntua), sendagaiaren marka erabiltzen da sendagai horren dosia edo parte bat izendatzeko; adibidez, sendagai jakin baten pastilla bat izendatzeko, sendagaiaren izena erabiltzen da: gaur goizean, Apiretala hartu du. Erabilera horretan, izen arrunten baliokidea da, eta izen

arrunt baten moduan hartzen ditu kasu-markak, baina ez du galtzen hasierako letra larria.

Gogorarazi behar diogu Nolotilak errezeta behar duela.

Gaur goizean gosarian hartu dudan Gelocatilak on egin dit: buruko mina kendu dit.

Zenbat diru gastatzen ote du hilero Orfidaletan!

Barre egitea da Betadinerik onena.

OHARRA

Izen komertziala, erabiliaren erabiliaz, izen generiko bihurtzera irits daiteke, jatorrizko markarekin zuen lotura galduta (ikus II. ataleko 2.3.18.4 puntua). Orduan, hiztegiko hitz arrunt bihurtzen da, eta letra xehez idazten. Adibidez, azido azetilsaliziliko terminoaren sinonimoa da aspirina hitza, 1899an Alemaniako Bayer konpainiak sortu zuen Aspirin marka-izenetik eratorria.

17 Dibisak (dirua)

Dibisen izenak letra xehez idazten dira, izen arruntak baitira, jatorria edozein dela ere.

Nik eurotan ordaindu nahi nion, baina dolarrak besterik ez zuen onartzen.

Marokoko diru(-)unitatea dirhama da, eta Aljeriakoa dinar aljeriarra.

Afrikako hamalau estatutan CFA frankoa da diru(-)unitatea.

ISO 4217 nazioarteko arauak hiru letrako kode bat erabiltzen du mundu osoko dibisak izendatzeko²⁶. Kodea osatzen duten hiru letrak larriz idazten dira. Adibidez: EUR (euroa); GBP (libera esterlina); USD (dolar estatubatuarra); JPY (yena); RUB (errublo errusiarra).

18 Musika-notak

²⁶ Lehen bi letrak herrialdearen kodeari dagozkio (ISO 3166-1 arauarenak dira), eta hirugarren letra ia beti dibisaren beraren iniziala da.

Izen arruntak dira, eta letra xehe arruntez idazten dira.

Zeinuaren erdialdeko sartuneak adierazten du do notaren kokalekua.

la bemolean, sol minorrean, fa maiorrean.

19 Zergak

Era guztietako tasen eta zergen izenak letra xehez hasita idazten dira.

balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ), pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ), ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ), urteko tasa baliokidea (UTB), hiri(-)lurren balio(-)gehikuntzaren gaineko zerga (HLBGZ).

OHARRA

Zergen siglak letra larriz idazten dira (ikus atal honetako 1. puntua).

Noiz egin behar da BEZaren (balio erantsiaren gaineko zergaren) aitortpena?

OHZa (ondasun higiezinaren gaineko zerga) ordaintzeko borondatezko epea.

20 Koloreak

Koloreak eta kolore-ñabardurak izendatzeko izenak eta adjektiboak letra xehez idazten dira.

urdin iluna, zeru-urdina, belar-berdea, esmeralda-berdea.

Zenbaitetan, izen berezi batez lagunduta erabiltzen da kolorea adierazten duen hitza, kolore edo tonalitate jakin bat bereizteko. Orduan, izen berezia letra larriz hasita idazten da. Gehienetan, leku-izen bat izaten da zehaztailea.

Mañaria grisa, Markina beltza, Bilbo urdina, Paris berdea, Prusia urdina, Napoles horia, Bordele gorria.

Baina bestelakoa ere izan daiteke, hala nola pertsona-izena edo marka-izena.

Valentino gorria (jatorria: Valentino Garavani), Alice urdina (jatorria: Alice Roosevelt Longworth); Tiffany urdina (jatorria: Tiffany & Co. enpresa), Ferrari gorria (jatorria: Ferrari enpresa).

21 Zodiakoa: zeinuak eta aldi horietan jaiotako pertsonak

Zodiakoko hamabi konstelazioen izenak letra larriz hasita idazten dira, gainerako konstelazioak bezala (ikus II. ataleko 2.3.1.18 puntua), bai latinezko nazioartekoak (Aquarius, Aries, Cancer, Capricornus, Gemini, Leo, Libra, Pisces, Sagittarius, Scorpius, Taurus, Virgo), bai haien euskarazko azalpen-izenak (Akuarioa, Aharia, Karramarroa, Kaprikornioa, Bikiak, Lehoia, Balantza, Arrainak, Sagitarioa, Eskorpioia, Zezena, Birjina).

Zodiakoko konstelazio bakoitzari dagokion aldi jaiotako pertsonak modu generikoan adierazteko ere erabiltzen dira zodiakoko konstelazioen izenak, baina, orduan, izen arruntak dira eta letra xehez idazten dira.

Bera aquarius zela gogorarazi zidan.

Ez da egia izango, zu ere gemini? Banengoen ba!

Langileak eta fidagarriak izaten dira taurusak.

22 Dantzak

Dantzen izenak izen arruntak dira, eta letra xehez idazten dira.

arku(-)dantza, aureskua, balsa, banakoa, charlestona, ezpata(-)dantza, fandangoa, kaxarranka, kontrapasa, larrain(-)dantza, makil dantza, minueta, pasodoblea, sardana, soka-dantza, zortzikoa.

IV. ATALA

Letra larri eta xeheen gaikako aurkibidea

ZER	NON
1968ko Maiatza	II.2.3.11
Abendua/abendua	II.2.3.10.4.3
Aberri Eguna	II.2.3.10.4.5
abizen konposatuak	II.2.3.2.1
abizenak	II.2.3.2
Acheul aldia	II.2.3.10.2
adierazpenak	II.2.3.17.9
Administrazioa/administrazioa	II.2.3.5.5
Afrikako Adarra	II.2.3.1.10
agaramontarrak, Agaramonteko etxea	II.2.3.3.6
agiriak	II.2.3.17.9
Ahalguztiduna	II.2.3.3.2
ahizpa	II.2.3.3.8
Aiako Harria	II.2.3.1.10
aintzirak	II.2.3.1.10
Aita	II.2.3.3.2; II.2.3.3.8
aita santua	II.2.3.3.8
Akitaniako Dukerria	II.2.3.11.1
akordioak	II.2.3.17.9
aldi erlijiosoak	II.2.3.10.4.3
aldi geologikoak	II.2.3.10.1
aldi historikoak (izen arrunt bidez adieraziak)	II.2.3.10.3
aldizkariak	II.2.3.17.4
Aliantza Hirukoitzaren gerra	II.2.3.11
alkatea	II.2.3.3.8
altxonbideak	II.2.3.1.13
Ama	II.2.3.3.2; II.2.3.3.3; II.2.3.3.8
Ama Birjina / ama birjina	2.3.3.2; II.2.3.3.3
Ameriketako Estatu Batuak	II.2.3.1.2
anaia	II.2.3.3.8
andramariak / Andra Maria	II.2.3.3.3
Andre Dona Maria	II.2.3.3.3
Andre Maria / andremariak	II.2.3.3.3
andrea	II.2.3.3.8
Andredena Maria	II.2.3.3.3
animalia antropomorfoak	II.2.3.3.5
animalia-arrazak animalia arrazak	II.2.3.4.2; III.11
animalia-izen bereziak animalia izen bereziak	II.2.3.4
animalien izen zientifikoak	II.2.3.4.1
anjoutarrak, Anjouko etxea	II.2.3.3.6
antroponimoak	II.2.3.2
Antropozenoa	II.2.3.10.1

ZER	NON
antzezlanak	II.2.3.17.7
Antzinako Erregimena	II.2.3.10.3
Antzinaroa	II.2.3.10.2
Antzinatea	II.2.3.10.3
Aquarius/aquarius	III.21
Arartekoa/arartekoa	II.2.3.3.8
Araua/araua	II.2.3.17.10
Argiaren Hiria/argiaren hiria	II.2.3.1.9
Argien Mendea	II.2.3.10.3
Aries/aries	III.21
Armada/armada	II.2.3.5.5
armak	II.2.3.18.1
Armistizioaren Eguna	II.2.3.10.4.5
Aro Garaikidea	II.2.3.10.2
Aro Modernoa	II.2.3.10.2
aroak	II.2.3.10.2
Arrantzaleen Eguna	II.2.3.10.4.5
arrazak	II.2.3.4.2; III.11
arreba	II.2.3.3.8
arte-eskolak arte eskolak	III.14
arte-estiloak arte estiloak	III.14
arte-generoak arte generoak	III.14
artelana artistaren izenaren bidez izendatzea	II.2.3.18.6
artelanak	II.2.3.17.7
Artikoa/artikoa	II.2.3.1.17
artikuluen izenburuak (liburuen barnekoak)	II.2.3.17.2
artistaren izena artelana izendatzeko erabiltzea	II.2.3.2.6
Artzainaren Eguna	II.2.3.10.4.5
Askatasunaren estatua	II.2.3.1.14
Aste Nagusia	II.2.3.10.4.5
Aste Santua	II.2.3.10.4.3
asteak (zerbait ospatzeko edo gogora ekartzeko asteak)	II.2.3.10.4.5
asteko egunak	III.15
astroak	II.2.3.1.18
atariak	II.2.3.17.5
Aurignac aldia	II.2.3.10.2
aurkezpenak	II.2.3.17.8
Austro-hungariar Inperioa	II.2.3.1.5; II.2.3.11.1
autonomia-erkidegoak autonomia erkidegoak	II.2.3.1.2
auzoak	II.2.3.1.3
Azaroaren Hamaika (Armistizioaren Eguna)	II.2.3.10.4.5
azokak	II.2.3.13
bakea	II.2.3.11
balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ)	III.19
balletak	II.2.3.17.7

ZER	NON
banukasitarrak	II.2.3.3.6
barietateak	III.11
barrutiak	II.2.3.1.3
Batxilergoa/batxilergoa	II.2.3.12.1
Batzordea/batzordea	II.2.3.5.6
beaumontarrak, Beaumonteko etxea	II.2.3.3.6
Berdelaren Eguna	II.2.3.10.4.5
Berrezarkuntza/berrezarkuntza	II.2.3.11
Bertsoaren Eguna	II.2.3.10.4.5
bertso-lerroak bertso lerroak	II.1.7
Bi Arrosen gerra	II.2.3.11
Biblia/biblia	II.2.3.17.3
bideak	II.2.3.1.13
bideojokoak	II.2.3.17.5
Bigarren Mundu Gerra	II.2.3.11
bigarren mundua	II.2.3.1.6
bildumak	II.2.3.17.4
Bizantziar Inperioa	II.2.3.1.5; II.2.3.11.1
Bizkaiko golkoa	II.2.3.1.10
blogak	II.2.3.17.5
bonapartetarrak, Bonaparte dinastia	II.2.3.3.6
borboiak, Borboiko etxea	II.2.3.3.6
botiken izen komertzialak	III.16
Britainiar Inperioa	II.2.3.11.1
Brontze Aroa	II.2.3.10.2
Buda/buda	II.2.3.3.2
Burdin Aroa	II.2.3.10.2
Cancer/cancer	III.21
Capricornus/capricornus	III.21
Caudilloa	II.2.3.3.8
corpusak	II.2.3.17.5
dalai-lama	II.2.3.3.8
Dantzak	III.22
datu-bankuak datu bankuak	II.2.3.17.5
deiturak	II.2.3.2
Dekretua/dekretua	II.2.3.17.10
denbora-erreferentziak denbora erreferentziak	II.2.3.10
departamenduak	II.2.3.1.2
Departamentua/departamentua	II.2.3.6
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	II.2.3.12.1
Diada (Kataluniako Diada)	II.2.3.10.4.5
dibisak	III.17
dinastiak	II.2.3.3.6
Diputazioa/diputazioa	II.2.3.5.3
diskurtsoak	II.2.3.17.8
dohatsua	II.2.3.3.8

ZER	NON
dokumentu diplomatikoak	II.2.3.17.10
Domina/domina	II.2.3.15
don	II.2.3.3.8
Dona	II.2.3.3.3
doña	II.2.3.3.8
Done/done	II.2.3.3.3
Donejakue bidea	II.2.3.1.13
Ducea	II.2.3.3.8
Dukerria/dukerria	II.2.3.11.1
Durangoko Azoka	II.2.3.13
efektuak (zientzian)	III.13
Eguberriak/eguberriak/Eguberri	II.2.3.10.4.2
egunak (zerbait ospatzeko edo gogora ekartzeko egunak)	II.2.3.10.4.5
egunkariak	II.2.3.17.4
Eguzkia/eguzkia	II.2.3.1.18
eguzki-sistema eguzki sistema	II.2.3.1.18
Ehun Egunak	II.2.3.11
Ehun Urteko gerra	II.2.3.11
Eiffel dorrea	II.2.3.1.14
Ekialde Hurbila	II.2.3.1.6
Ekialde Urruna	II.2.3.1.6
Ekialdea/ekialdea	II.2.3.1.6
eklipsea	II.2.3.1.18
ekliptika	II.2.3.1.17
ekuatorea	II.2.3.1.17
El Niño	II.2.3.8
elementu kimikoak	III.6
Eliza/eliza	II.2.3.5.5
elizbarrutia	II.2.3.1.7
Elkanoren Eguna	II.2.3.10.4.5
elkarteen izenak	II.2.3.5
Emakumeen Nazioarteko Eguna	II.2.3.10.4.5
enperadorea, enperatriza	II.2.3.3.8
enumerazioak	II.1.4.2
epitetoak	II.2.3.2.4
eraikinak	II.2.3.1.14
erakundeak (erakundeen izenak)	II.2.3.5
erakundeen izen laburtuak	II.2.3.5.2; II.2.3.5.3
erakunde-izenetatik eratorritako hitzak erakunde izenetatik eratorritako hitzak	III.2; III.5
erakusketak	II.2.3.13
erdal abizenak (preposizioa edo artikulua dutenak)	II.2.3.2.2
Erdi Aroa	II.2.3.10.2
Erdialdeko mendigunea	II.2.3.1.10
erlijioak	III.12
erlijioaren arloko izen bereziak	II.2.3.3
erlijioaren arloko kontzeptuak	III.12

ZER	NON
Erreforma/erreforma	II.2.3.11
errege, erregina	II.2.3.3.8
Erregelamendua/erregelamendua	II.2.3.17.10
Erregeorderrria/erregeorderrria	II.2.3.11.1
Erreginaren Kopa	II.2.3.14
errektorea	II.2.3.3.8
Errenazimentua	II.2.3.10.3
errepideak	II.2.3.1.12
Errepublika	II.2.3.10.3
Errestaurazioa	II.2.3.10.3
Erresuma/erresuma	II.2.3.11.1
Erromatar Inperioa	II.2.3.1.5; II.2.3.11.1
Eskerrak Emateko Eguna	II.2.3.10.4.5
Eskritura Santua	II.2.3.17.3
eskualdeak	II.2.3.1.4
eskulturak	II.2.3.17.7
esloganak	II.2.3.16
Esne Bidea	II.2.3.1.18
Espainiako Erresuma	II.2.3.1.2
Espainiako Vuelta	II.2.3.14
Espiritu Santua	II.2.3.3.2; II.2.3.3.3
Estatua/estatua	II.2.3.5.5
estatuak	II.2.3.1.2
estuardotarrak, Estuardo dinastia	II.2.3.3.6
etniak	II.2.3.3.7
Etxe Zuria	II.2.3.1.14
Euskal Herriko Itzulia	II.2.3.14
Euskal Kostaldeko Museoen Hilabetea	II.2.3.10.4.5
Euskararen Eguna	II.2.3.10.4.5
Familia Santua	II.2.3.3.3
familiak	II.2.3.3.6
fenomeno meteorologikoak	II.2.3.8
festak	II.2.3.10.4
fikzioaren arloko izen bereziak	II.2.3.3
fikzio-pertsonaiak fikzio pertsonaiak	II.2.3.3.5
filmak	II.2.3.17.7
foruak	II.2.3.17.10
frai	II.2.3.3.8
Frantziako Errepublika	II.2.3.1.2
Frantziako Tourra	II.2.3.14
frau	II.2.3.3.8
Führerra	II.2.3.3.8
Gabonak/gabonak/Gabon	II.2.3.10.4.2
gaixotasunak	II.2.3.2.5
galaxiak	II.2.3.1.18
garaipen-arkua garaipen arkua	II.2.3.1.14
Garizuma	II.2.3.10.4.3

ZER	NON
Gatzaren matxinada	II.2.3.11
gauzakiak	II.2.3.18.1
Gemini/gemini	III.21
gentilizioak	II.2.3.3.7
Germaniako Erromatar Inperio Santua	II.2.3.1.5; II.2.3.11.1
Gerra Handia	II.2.3.11
Gerra Hotza	II.2.3.10.3; II.2.3.11
Gerra Medikoak	II.2.3.11
Gerra Punikoak	II.2.3.11
Gerra Zibila / gerra zibila	II.2.3.11
Gerra/gerra	II.2.3.11
gertaera historikoak	II.2.3.11
Giza Eskubideen Urtea	II.2.3.10.4.5
Gobernua/gobernua	II.2.3.5.5
goiburuak	II.2.3.16
Golkoa/golkoa	II.2.3.1.10; II.2.3.11
Golkoko gerra	II.2.3.11
Gorena	II.2.3.3.2
Gorteak/gortea	II.2.3.5.5
Goya/goya	II.2.3.15
guduak	II.2.3.11
Guggenheim Bilbao Museoa	II.2.3.1.14
gurutzada	II.2.3.11
habsburgotarrak, Habsburgoko etxea	II.2.3.3.6
Hadrianoaren harresia	II.2.3.1.14
Halley kometa	II.2.3.1.18
Hartz Nagusia eta Hartz Txikia	II.2.3.1.18
Haur Hezkuntza	II.2.3.12.1
Hego poloa	II.2.3.1.16
Hego/hego	II.2.3.1.15; II.2.3.1.16
Hegoburua	II.2.3.1.16
hemisferioak	II.2.3.1.16
herriak (leku-izenak)	II.2.3.1.2
herriak (pertsonek, etniak)	II.2.3.3.7
herritar-izenak herritar izenak	II.2.3.3.7
hezkuntza-zikloak hezkuntza zikloak	II.2.3.12.1
Hiesaren Mundu Eguna	II.2.3.10.4.5
hilabeteak	III.15
hilabeteak (zerbait ospatzeko edo gogora ekartzeko hilabeteak)	II.2.3.10.4.5
hipokoristikoak	II.2.3.2.3
hiriak	II.2.3.1.2
Hiru Erregeen Mahaia	II.2.3.1.10
hirugarren mundua	II.2.3.1.6
Hirurteko Konstituzionala	II.2.3.10.3
Hirutasun Santua	II.2.3.3.3
historiaren aldi handiak	II.2.3.10.2

ZER	NON
historiaurrearen aldi handiak	II.2.3.10.2
hitzaldiak	II.2.3.17.8
hizkuntzak	III.10
Holokaustoa/holokaustoa	II.2.3.11
ibaiak	II.2.3.1.10
Iberiar penintsula	II.2.3.1.10
ibilgailuak	II.2.3.18.1
ideologiak	III.14
ikastaroak	II.2.3.12.2
ikuskizunak	II.2.3.13
Ilargia/ilargia	II.2.3.1.18
ilbehera	II.2.3.1.18
ilgora	II.2.3.1.18
Inbestiduren auzia	II.2.3.11
Industria Iraultza / industria(-)iraultza	II.2.3.11
infernua	II.2.3.1.7
Ingurumenaren Mundu Eguna	II.2.3.10.4.5
Inperioa/inperioa	II.2.3.1.5; II.2.3.11.1; II.2.3.10.3
Ipar poloa	II.2.3.1.16
Ipar/ipar	II.2.3.1.15; II.2.3.1.16
Iparburua	II.2.3.1.16
Iparizarra	II.2.3.1.18
Irailaren Hamaika	II.2.3.10.4.5
irakasgaiak	II.2.3.12.1
Iraultza Handia	II.2.3.11
Iraultza/iraultza	II.2.3.11
irratiko programak	II.2.3.17.6
irudizko lerroak	II.2.3.1.17
Irulegiko Eskua	II.2.3.17.7
Italiako Giroa	II.2.3.14
itsasoak	II.2.3.1.10
Itun Berria	II.2.3.17.3
Itun Zaharra	II.2.3.17.3
itunak	II.2.3.11
Itzalik Gabeko Gizona	II.2.3.3.5
izaki mitologiko kolektiboak	II.2.3.3.4
izar iheskorrak	II.2.3.1.18
izar polarra	II.2.3.1.18
izarrak	II.2.3.1.18
izen artistikoak	II.2.3.2.4
izen mitologikoak	II.2.3.3.2
izengoitiak	II.2.3.2.4
izenordeak	II.2.3.2.4
jaialdiak	II.2.3.13
jaiegunak	II.2.3.10.4
jainko eta jainkosak	II.2.3.3.2
Jainkoa/jainkoa	II.2.3.3.1
jakintza-alorrak	
jakintza alorrak	II.2.3.12.1

ZER	NON
Jaun Done	II.2.3.3.3
Jauna	II.2.3.3; II.2.3.3.8
Jaungoikoa	II.2.3.3.2
Jondane	II.2.3.3.3
Jondoni	II.2.3.3.3
Jurasikoa/jurasikoa	II.2.3.10.1
Kale Nagusia	II.2.3.1.12
kaleak	II.2.3.1.12
kanalak	II.2.3.1.10
Kantuaren Eguna	II.2.3.10.4.5
Kapera Sistinoa	II.2.3.1.14
Kapitolioa/kapitolioa	II.2.3.1.14
karguak	II.2.3.3.8
karlistaldia	II.2.3.11
karrikak	II.2.3.1.12
Kasu-markak osorik letra larriz idatzitako hitzetan	I.8
Katu Botaduna	II.2.3.3.5
kirol-ikuskizunak kirol ikuskizunak	II.2.3.14
kirol-probak kirol probak	II.2.3.14
kodeak	II.2.3.17.10
koloreak	III.20
kometak	II.2.3.1.18
kondekorazioak	II.2.3.15
kongresuak	II.2.3.13
konposatu kimikoak	III.6
konstelazioak	II.2.3.1.18
Konstituzioa/konstituzioa	II.2.3.17.10
Kontinente Beltza / kontinente beltza	II.2.3.1.1
Kontinente Zaharra / kontinente zaharra	II.2.3.1.1; II.2.3.1.9
kontinenteak	II.2.3.1.1
Kontrarreforma/kontrarreforma	II.2.3.11
Kopa/kopa	II.2.3.14
Kordobako meskita	II.2.3.1.14
kostak (izen turistikoak)	II.2.3.1.6
Krabelinen Iraultza	II.2.3.11
Kretazeoa/kretazeoa	II.2.3.10.1
Kristal Hautsien Gaua	II.2.3.11
Kristo/kristo	II.2.3.3.1; II.2.3.3.2
kronologiak	II.1.4.5
kultura arkeologikoak	II.2.3.10.2
Labana Luzeen Gaua	II.2.3.11
lady	II.2.3.3.8
Lanbide Heziketa / lanbide-heziketa	II.2.3.12.1
lanbideak	II.2.3.3.8
landareen izen zientifikoak	II.2.3.4.1
landare-izen bereziak landare izen bereziak	II.2.3.4

ZER	NON
Langileen Nazioarteko Eguna	II.2.3.10.4.5
Larunbat Santua	II.2.3.10.4.2
laugarren mundua	II.2.3.1.6
Legea/legea	II.2.3.17.10
legeak (zientzian)	III.13
Legebiltzarra/legebiltzarra	II.2.3.5.5
Lehen Hezkuntza / lehen hezkuntza	II.2.3.12.1
Lehen Mundu Gerra	II.2.3.11
lehen mundua	II.2.3.1.6
lehendakaria	II.2.3.3.8
Lehoien patioa	II.2.3.1.14
leinuak	II.2.3.3.6
leku-izenak leku izenak	II.2.3.1
leku-izenetatik eratorritako hitzak leku izenetatik eratorritako hitzak	III.4; III.5
leloak	II.2.3.16
Leo/leo	III.21
Leonidak	II.2.3.1.18
letra larri instituzionala	II.2.3.5.5
letra larri txikiak	I.2
letra larria aipuetan	II.1.5
letra larria bi puntuen ondoren	II.1.4
letra larria esaldiaren hasieran	II.1.1; II.1.1.3
letra larria etenpuntuen ondoren	II.1.3
letra larria galdera- edo harridura-markaren ondoren	II.1.2
letra larria parentesien eta marra luzeen arteko testuan	II.1.6
letra larria puntuaren ondoren	II.1.1.2
letra larriak (definizioak eta ezaugarriak)	I.1
letra larriak digrametan	I.3
letra larriak eta zeinu diakritikoak	I.4
letra larriak hitzaren letra guztietan	I.5
letra larriak letra guztietan	I.5
letra larriaren erabilera testu administratibo eta juridikoetan	II.1.4.3
letra xeheak (definizioak eta ezaugarriak)	I.1
Libra/libra	III.21
liburu sakratuak eta haien atalak	II.2.3.17.3
Liburuaren Nazioarteko Eguna	II.2.3.10.4.5
liburuaren izenburuak	II.2.3.17.1
Liga/liga	II.2.3.14
linboa	II.2.3.1.7
lord	II.2.3.3.8
Louvre jauregia	II.2.3.1.14
lurburuak	II.2.3.1.16
lurmuturrak	II.2.3.1.10
Lurra/lurra	II.2.3.1.18
madame	II.2.3.3.8
Madeleine aldia	II.2.3.10.2

ZER	NON
mahai-ingurua mahai ingurua	II.2.3.17.8
Maiatzaren 2a (Maiatzaren Bia)	II.2.3.11
Maiatzaren Lehena / maiatzaren lehena	III.15
Maiestatea/maiestatea	II.2.3.3.9
maiuskulak (definizioak eta ezaugarriak)	I.1
margolanak	II.2.3.17.7
marka izen arrunt bihurtzea	II.2.3.18.4
markak	II.2.3.18.2
markaren izenaren bidez produktua izendatzea	II.2.3.18.3
Martxa Luzea	II.2.3.11
masterrak	II.2.3.12.1
Mateo Txistu	II.2.3.3.5
matxinadak	II.2.3.11
medikamentuen izen komertzialak	III.16
Mendebaldea/mendebaldea	II.2.3.1.6
Mendebaldeko Erromatar Inperioa	II.2.3.1.5; II.2.3.11.1
Mendebaldeko Zisma	II.2.3.11
Mendekosteak/mendekosteak/Mendekoste	II.2.3.10.4.2
Mendi Harritsuak / mendi harritsuak	II.2.3.1.10; II.2.2
mendiak	II.2.3.1.10
mendikateak	II.2.3.1.10
meridianoak	II.2.3.1.17
Mesias	II.2.3.3.2
Meskita Urdina	II.2.3.1.14
Mesozoikoa/mesozoikoa	II.2.3.10.1
Metal Aroa	II.2.3.10.2
meteorologia	II.2.3.8
Miel Otxin	II.2.3.3.5
mineralak	III.6
Ministerioa/ministerioa	II.2.3.5.3
mintegiak	II.2.3.12.2
minuskulak (definizioak eta ezaugarriak)	I.1
mitologiaren arloko izen bereziak	II.2.3.3
modeloak	II.2.3.18.2
modeloaren izenaren bidez produktua izendatzea	II.2.3.18.3
moduluak (Lanbide Heziketan)	II.2.3.12.1
monsieur	II.2.3.3.8
monumentuak	II.2.3.1.14
Mosen	II.2.3.3.8
multimedia-produktuak multimedia produktuak	II.2.3.17.5
mundua (lehen mundua, hirugarren mundua...)	II.2.3.1.6
Mundu Berria / mundu berria	II.2.3.1.1; II.2.3.1.9
Murde	II.2.3.3.8
Musde	II.2.3.3.8
musika-notak musika notak	III.18
musika-obrak	II.2.3.17.7

ZER	NON
musika obrak	
Nafarroako Erresuma	II.2.3.1.5; II.2.3.11.1
Nafarroaren Eguna	II.2.3.10.4.5
nebulosak	II.2.3.1.18
Neolitoa	II.2.3.10.2
neurri-unitateak (pertsona-izenetatik eratorriak) neurri unitateak (pertsona izenetatik eratorriak)	II.2.3.2.5; III.6
Nobel sariak	II.2.3.15
ohorezko tituluak	II.2.3.3.9
Oinarrizko Hezkuntza Orokorra	II.2.3.12.1
olerkiak (lerro-hasierak)	II.1.7
On	II.2.3.3.8
onddoak	II.2.3.4.2
Ondorengotza Gerra / ondorengotza-gerra	II.2.3.11
operak	II.2.3.17.7
operazioa	II.2.3.11
Opioaren gerra	II.2.3.11
Oscar sariak	II.2.3.15
Oscar/oscar	II.2.3.15
ospakizunak	II.2.3.10.4
Ostegun Gizena	II.2.3.10.4.2
Ostegun Santua	II.2.3.10.4.2
Ostiral Santua	II.2.3.10.4.2
otoitzak	III.12
Otomandar Inperioa	II.2.3.11.1
ozeanoak	II.2.3.1.10
Paleolitoa	II.2.3.10.2
paradisua	II.2.3.1.7
paraleloak	II.2.3.1.17
parkeak	II.2.3.1.11
Parlamentua/parlamentua	II.2.3.5.5
Pazko/pazko	II.2.3.10.4.2
pentsamendu-eskolak pentsamendu eskolak	III.14
Persiar golkoa	II.2.3.1.10
Pertseidak	II.2.3.1.18
pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ)	III.19
pertsonaia sakratuak	II.2.3.3.2
pertsona-izenak pertsona izenak	II.2.3.2
pertsona-izenetatik eratorritako hitzak pertsona izenetatik eratorritako hitzak	II.2.3.3.6; III.3; III.5
Peruko Erregeorderria	II.2.3.11.1
Petiri Sanz	II.2.3.3.5
piramideak	II.2.3.1.14
Pisako dorrea	II.2.3.1.14
Pisces/pisces	III.21
Pizkundera	II.2.3.10.3
planak	II.2.3.17.9

ZER	NON
planetak	II.2.3.1.18
Planetaren Ordua	II.2.3.10.4.5
plantagenetarrak, Plantagenet dinastia	II.2.3.3.6
plazak	II.2.3.1.12
poemak (lerro-hasierak)	II.1.7
poemen izenburuak (liburuen barnekoak)	II.2.3.17.2
Polizia/polizia	II.2.3.5.5
poloak	II.2.3.1.16
portuak	II.2.3.1.10
Pragako Udaberria	II.2.3.11
prefeta	II.2.3.3.8
printzipioak (zientzian)	III.13
Probidentzia	II.2.3.3.2
probintziak	II.2.3.1.2
produktua izen arrunt bihurtzea	II.2.3.18.4
produktua sortzailearen izenaren bidez izendatzea	II.2.3.18.5
produktuak	II.2.3.18.1
produktuak jatorrizko leku-izenaren bidez adieraztea	II.2.3.18.7
Profeta/profeta	II.2.3.3.2
programak	II.2.3.17.9
proiektuak	II.2.3.17.9
protokoloak	II.2.3.17.9
protokolozko trataerak	II.2.3.3.9
puntu kardinalak	II.2.3.1.15
purgatorioa	II.2.3.1.7
Ramadana/ramadana	II.2.3.10.4.3; III.21
Sagardoaren Eguna	II.2.3.10.4.5
Sagittarius/sagittarius	III.21
Saila/saila	II.2.3.5.3
sailburua	II.2.3.3.8
San	II.2.3.3.3
San Bartolome Gauda	II.2.3.11
San Fermin / sanferminak	II.2.3.3.3; II.2.3.10.4.2
San Joan / sanjoanak / sanjoan-lorea (sanjoan lorea)	II.2.3.3.3; II.2.3.10.4.2
sanbernardo txakurra	II.2.3.3.3
Santa/santa	II.2.3.3.3
santu	II.2.3.3.3
santuen izenetatik eratorritako jaien izenak	III.7
Saria/saria	II.2.3.15
sateliteak	II.2.3.1.18
Scorpius/scorpius	III.21
Sei Eguneko gerra	II.2.3.11
Semea	II.2.3.3.2
sendagaien izen komertzialak	III.16
serieak	II.2.3.18.2
Sezesio Gerra / sezesio-gerra	II.2.3.11
siglak	I.7
siglak eta letra larriak	I.7
sigletatik eratorritako hitzak	III.2

ZER	NON
sinboloak	II.2.3.7
sindromeak	II.2.3.2.5
sir	II.2.3.3.8
Solutre aldia	II.2.3.10.2
sor	II.2.3.3.8
sorkuntza-obra digitalak sorkuntza obra digitalak	II.2.3.17.5
sorkuntza-obrak sorkuntza obrak	II.2.3.17
taifa-erresumak taifa erresumak	II.2.3.11.1
tailerrak	II.2.3.12.2
Taurus/taurus	III.21
telebistako programak	II.2.3.17.6
teoriak (zientzian)	III.13
Testamentu Berria	II.2.3.17.3
Testamentu Zaharra	II.2.3.17.3
tituluak	II.2.3.3.8
toponimo politiko historikoak	II.2.3.1.5
toponimoak	II.2.3.1
torneoak	II.2.3.14
Trantsizioa/trantsizioa	II.2.3.11
trataerak	II.2.3.3.8
Triasikoa/triasikoa	II.2.3.10.1
tropikoak	II.2.3.1.17
tudortarrak, Tudor etxea	II.2.3.3.6
Txapeldunen Liga	II.2.3.14
txapelketak	II.2.3.14
txikigarriak	II.2.3.2.3
Txinako Harresi Handia	II.2.3.1.14
txostenak	II.2.3.17.8
Udala/udala	II.2.3.5.3
uharteak	II.2.3.1.10
Unibertsitatea/unibertsitatea	II.2.3.5.3
unibertsoa	II.2.3.1.18
Urriko Iraultza	II.2.3.11
urtaroak	III.15
urteak (zerbait ospatzeko edo gogora ekartzeko urteak)	II.2.3.10.4.5
Urteberri	II.2.3.10.4.2
Urtezahar	II.2.3.10.4.2
Uztailaren Hamalaua	II.2.3.10.4.5
valoistarrak, Valoisko etxea	II.2.3.3.6
Van/van (Van Gogh / Vincent van Gogh)	II.2.3.2.2
Versaillesko jauregia	II.2.3.1.14
Virgo/virgo	III.21
Von/von (Von Braun / Wernher von Braun)	II.2.3.2.2
wikiak	II.2.3.17.5
Xalbadorren Eguna	II.2.3.10.4.5
zeinu diakritikoak letra larrietan	I.4

ZER	NON
zenbaki erromatarrak	I.6
zenbaki erromatarrak eta letra larriak	I.6
Zerbitzua/zerbitzua	II.2.3.6
zergak	III.19
zerua	II.2.3.1.7
Zetaren bidea	II.2.3.1.13
zientzia eta teknologiako terminoak (pertsone-izenak dituztenak)	II.2.3.2.5
Zientziaren eta Bakearen Nazioarteko Astea	II.2.3.10.4.5
zirkulu polarrak	II.2.3.1.17
Zisma Handia	II.2.3.11
zodiakoa	II.2.3.1.18; III.21
Zuzentaraua/zuzentaraua	II.2.3.17.10